

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**12029** 23/2014 Legea, azaroaren 20koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzkoa.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala:

#### AURKIBIDEA

Atariko titulua. Europar Batasunean zigor-ebazpenak elkarri aitortzeko araubide orokorra.

1. artikulua. Europar Batasunean zigor-ebazpenak elkarri aitortzea.
2. artikulua. Elkarri aitortzeko tresnak.
3. artikulua. Oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzea.
4. artikulua. Araubide juridikoa.
5. artikulua. Estatu emailea eta estatu betearazlea.
6. artikulua. Justizia Ministerioari informatzeko eginbeharra. Agintaritza zentrala.

I. titulua. Europar Batasunean elkarri aitortzeko tresnak helarazteko, aitortzeko eta betearazteko araubide orokorra.

I. kapitulua. Espainiar agintari judizialek elkarri aitortzeko tresnak helaraztea.

7. artikulua. Agindu eta ebazpenak ematea eta dokumentatzea elkarri aitortzeko printzipioaren babesean betearaz ditzaten.

8. artikulua. Agindu eta ebazpenak helaraztea elkarri aitortzeko printzipioaren babesean bete daitezten.

9. artikulua. Elkarri aitortzeko tresnen inguruan Eurojust erakundeari nahitaez eman beharreko informazioa.

10. artikulua. Delituaren eta zigorraren deskribapena.

11. artikulua. Betearazteko helarazitako ebazpenaren izaera betearazlea gerora galtzea.

12. artikulua. Espainiako agintaritza judizialak erreklamaturakoa beste estatu kide batetik igarotzea.

13. artikulua. Elkarri aitortzeko tresnak helarazteko ebazpenen aurkako errekursoak.

14. artikulua. Gastuak.

15. artikulua. Kalte-ordainak eta diru-itzultzeak.

II. kapitulua. Espainiar agintari judizialek elkarri aitortzeko tresnak aitortzea eta betearaztea.

1. atala. Xedapen orokorrak.

16. artikulua. Aitortzea eta berehala betearaztea.

17. artikulua. Ziurtagiria itzultzea.

18. artikulua. Komunikazioak egitea.

19. artikulua. Ziurtagiria zuzentzea.

- 20. artikulua. Tipifikazio bikoitzaren kontrol eza eta salbuespenak.
  - 21. artikulua. Betearaztean aplikatu beharreko arauak.
  - 22. artikulua. Aitorpena eta betearazpena jakinaraztea. Entzunaldia.
  - 23. artikulua. Ebazpenaren betearazpena etetea.
  - 24. artikulua. Errekurtsoak.
  - 25. artikulua. Gastuak.
  - 26. artikulua. Kalte-ordainak eta diru-itzultzeak.
  - 27. artikulua. Espainiako lurraldetik pertsonak igarotzea beste estatu kide batek helarazitako Europako agindu bat edo ebazpen judizial bat betearazteko.
  - 28. artikulua. Espainiako agintaritzak erabakitako betearazpen batean erreklamaturia hirugarren estatu kide batetik igarotzea.
2. atala. Elkarri aitortzeko tresna baten aitorpena edo betearazpena ukatzea.
- 29. artikulua. Elkarri aitortzeko tresna baten aitorpena edo betearazpena ukatzea.
  - 30. artikulua. Informazio osagarria eskatzea.
  - 31. artikulua. Immunitateak kentzeko eskaera.
  - 32. artikulua. Eskatutako neurrien aitorpena edo betearazpena ukatzeko arrazoi orokorrak.
  - 33. artikulua. Inputatua bertan egon gabe emandako ebazpenak.
- II. titulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua.
- I. kapitulua. Xedapen orokorrak.
- 34. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua.
  - 35. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat emateko eta betearazteko Espainiako agintari eskudunak.
  - 36. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren edukia.
- II. kapitulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua ematea eta helaraztea.
- 37. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren xedea.
  - 38. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman aurreko deklarazioa hartzea.
  - 39. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat Espainian emateko betekizunak.
  - 40. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat helaraztea.
  - 41. artikulua. Informazio osagarria igortzea.
  - 42. artikulua. Objektuak entregatzeko eskaera.
  - 43. artikulua. Estatu betearazlean aldi baterako entregak eta deklarazio-hartzeak eskatzea.
  - 44. artikulua. Erantzuna entrega baldintzatuko kasuetan.
  - 45. artikulua. Erreklamaturia espainiar agintari judizial emailearen eskuetan jarriz gero jarraitzeko prozedura.
  - 46. artikulua. Justizia Ministerioari gorabeheren berri ematea.
- III. kapitulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betearaztea.
- 47. artikulua. Entrega eragiten duten gertaerak.
  - 48. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten betearazpena ukatzea.
  - 49. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten betearazpena ukatzea, inputatua bertan egon gabe eman delako.
  - 50. artikulua. Atxilotzea eta agintaritzaren esku jartzea.
  - 51. artikulua. Atxilotuari entzutea eta entregatzeari buruzko erabakia hartzea.
  - 52. artikulua. Erreklamaturitako pertsona aldi baterako lekualdatzeko edo hari deklarazioa hartzeko erabakia.

53. artikulua. Erreklamatuaren egoera pertsonala.
54. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betearazteko epeak.
55. artikulua. Baldintzapean entregatzeko erabakia.
56. artikulua. Entrega eteteko erabakia.
57. artikulua. Zenbait eskaera batera egindako kasuetan erabakia hartzea.
58. artikulua. Erreklamaturako pertsona entregatzea.
59. artikulua. Objektuak entregatzea.
- IV. kapitulua. Bestelako xedapenak.
60. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betearazteko espezialitate-printzipioa aplikatzea.
61. artikulua. Estradizio baten ostean entregatzea.
62. artikulua. Ondorengo estradizioa.
- III. titulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena.
- I. kapitulua. Xedapen orokorrak.
63. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena.
64. artikulua. Espainian askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eta betearazteko eskumena duten agintari judizialak.
- II. kapitulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helaraztea.
65. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eskaerak.
66. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko betekizunak.
67. artikulua. Kondenatuaren adostasuna.
68. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteari buruzko kontsultak estatu emailearen eta estatu betearazlearen artean.
69. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren dokumentazioa.
70. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren helarazpenaren jakinarazpena.
71. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren helarazpena.
72. artikulua. Espetxe-zaintzako epaileak kondenatuaren gaineko kautela-neurriak eskatzea, agintaritzaren betearazleak har ditzan.
73. artikulua. Kondenatua estatu betearazlerra lekualdatzea.
74. artikulua. Espetxe-zaintzako epaile emaileak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena kentzea.
75. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena beste estatu kide batean betearazteak Espainiako prozesuan dituen ondorioak.
76. artikulua. Kondenaren betearazpena Espainiara itzultzea.
- III. kapitulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearaztea.
77. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena Espainian aitortzeko eta betearazteko baldintzak.
78. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren helarazpenari buruzko kontsultak.
79. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eskaera.
80. artikulua. Kondena partzialki betearazteko akordioa.

81. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena aitortzeko prozedura, Espainian bete dadin.

82. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren ziurtagiria kentzea.

83. artikulua. Kondena egokitzea.

84. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren aitorpena geroratzea.

85. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren aitorpena eta betearazpena ukatzea.

86. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearaztean aplikatu beharreko legeria.

87. artikulua. Kondenatuaren askatasuna Espainian dagoen bitartean mugatzeko kautela-neurriak.

88. artikulua. Kondenatua Espainiara lekualdatzea askatasunaz gabetzea betetzeko.

89. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren betearazpena etetea.

90. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena agintaritza emaileari itzultzea.

91. artikulua. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten ondorioz kondenak betearaztea.

IV. kapitulua. Bestelako xedapenak.

92. artikulua. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren betearazteari espezialitate-printzipioa aplikatzea.

IV. titulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

93. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena.

94. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpenaren aplikazio-eremua.

95. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat helarazteko eta betearazteko Espainiako agintari judicial eskudunak.

II. kapitulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpen baten helarazpena.

96. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat igortzeko betekizunak.

97. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren Europako aginduaren dokumentazioa.

98. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpen baten helarazpena.

99. artikulua. Zaintzapeko askatasun-ebazpenaren ondorioak.

100. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena itzultzea.

III. kapitulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat betearaztea.

101. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena Espainiari helarazteko betekizunak.

102. artikulua. Espainiak zaintzapeko askatasunaren ebazpenaren helarazpena onartzeko eskaera.

103. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena aitortzeko prozedura.

104. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena egokitzea.

105. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpen baten aitorpena eta betearazpena ukatzea.

106. artikulua. Zigor-arloko epaile zentralak zaintzapeko askatasunari buruzko ebazpenak geroago ematea.

107. artikulua. Agintari emaileak zaintzapeko askatasunaren ebazpena kentzea.

108. artikulua. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena agintaritza emaileari itzultzea.

V. titulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenak.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

109. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena.

110. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenaren aplikazio-eremua.

111. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena emateko eta betearazteko Espainiako agintari eskudunak.

II. kapitulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenaren helarazpena.

112. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena helarazteko betekizunak.

113. artikulua. Agintari eskudunen arteko kontsultak eta informazio-trukeak behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenari dagokionez.

114. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena helarazteko prozedura.

115. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenaren dokumentazioa.

116. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriak estatu betearazlean ikuskatzeko epea, eta epe horren luzapena.

117. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena kentzea.

118. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena eman duen Espainiako agintaritza judizialaren ikuskatze-eskumenak.

119. artikulua. Zaintza-neurriak ikuskatzeko eskumena berreskuratzea.

120. artikulua. Espainiako agintaritza judizial emaileak behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenari dagokionez geroago erabakiak hartzeko dituen eskumenak.

III. kapitulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpen bat betearaztea.

121. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena Espainian betearaztea.

122. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena aitortzeaz erabakitzekeo prozedura.

123. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena egokitzea.

124. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenaren aitorpena eta betearazpena ukatzea.

125. artikulua. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenari dagokionez geroago erabakiak hartzeko eskumenak.

126. artikulua. Zaintza-neurrien ikuskapena areagotzea.

127. artikulua. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epailearen betebeharrak zaintza-neurrien ikuskapen-aldian.

128. artikulua. Zaintza-neurriak bete behar dituen pertsona entregatzea.

129. artikulua. Erantzunik gabeko jakinarazpenak.

VI. titulua. Babesteko Europako agindua.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

130. artikulua. Babesteko Europako agindua.

131. artikulua. Babesteko Europako agindu bat emateko eta jasotzeko Espainiako agintari eskudunak.

132. artikulua. Babesteko Europako aginduaren eta elkarri aitortzeko beste ebazpen batzuen arteko erlazioa.

II. kapitulua. Babesteko Europako agindua ematea eta helaraztea.

133. artikulua. Babesteko Europako agindu bat emateko eta helarazteko betekizunak.

134. artikulua. Babesteko Europako agindua emateko prozedura.

135. artikulua. Babesteko Europako aginduaren dokumentazioa.

136. artikulua. Babesteko Europako agindu bat hainbat estatu betearazleri helaraztea.

137. artikulua. Espainiako epaile edo auzitegiaren eskumenak babesteko Europako agindua helarazi ostean.

III. kapitulua. Babesteko Europako agindu bat betearaztea.

138. artikulua. Babesteko Europako agindu bat betearaztea.

139. artikulua. Babes-neurri bat ez betetzea.

140. artikulua. Babesteko Europako aginduaren aitortpena eta betearazpena ukatzea.

141. artikulua. Babesteko Europako agindua aldatzea.

142. artikulua. Babesteko Europako agindua baten bidez hartutako neurrien amaiera.

VII. titulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

143. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena.

144. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena emateko eta betearazteko eskumena duten Espainiako agintari judizialak.

II. kapitulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena ematea eta helaraztea.

145. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena helaraztea.

146. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena emateko prozedura.

147. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenaren dokumentazioa.

148. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena zenbait estatu betearazleri helaraztea.

149. artikulua. Espainiako agintari emailearen eskumenak, ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen bat helarazi ostean.

III. kapitulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena betearaztea.

150. artikulua. Tipifikazio bikoitzaren kontrol eza.

151. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena aitortzeko prozedura.

152. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena betetzeko neurriak.

153. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko neurriaren iraupena.

154. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen baten aitortpena eta betearaztea ukatzea.

155. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen bat betearazteko ezintasuna.

156. artikulua. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko neurri baten betearazpena etetea.

VIII. titulua. Konfiskatze-ebazpenak.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

157. artikulua. Konfiskatze-ebazpenak.

158. artikulua. Espainian konfiskatze-ebazpen bat helarazteko eta betearazteko agintari judizial eskudunak.

II. kapitulua. Konfiskatze-ebazpen baten helarazpena.

159. artikulua. Konfiskatze-ebazpen baten helarazpena.

160. artikulua. Konfiskatze-ebazpenaren dokumentazioa.

161. artikulua. Konfiskatze-ebazpena helarazteko prozedura.

162. artikulua. Konfiskatze-ebazpen bat estatu kide bati baino gehiagori helaraztea.

163. artikulua. Konfiskatze-ebazpen baten helarazpenaren ondorioak.

164. artikulua. Konfiskatzearen bihurketa.

165. artikulua. Konfiskatutako ondasunak xedatzeari buruzko agintarien arteko akordioa.

III. kapitulua. Konfiskatze-ebazpen bat betearaztea.

166. artikulua. Konfiskatze-ebazpen bat aitortzea.

167. artikulua. Konfiskatze-ebazpena aitortzeari buruzko prozedura.

168. artikulua. Konfiskatze-ebazpen bat betearaztea.

169. artikulua. Konfiskatze-ebazpen anizkunak betearaztea.

170. artikulua. Konfiskatze-ebazpen baten aitortpena eta betearazpena ukatzea.

171. artikulua. Konfiskatze-ebazpen baten betearazpena etetea.

172. artikulua. Konfiskatutako ondasunak xedatzea.

IX. titulua. Diruzko zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

173. artikulua. Diruzko zehapena.

174. artikulua. Espainian diruzko zehapen baten ordainketa eskatzeko ebazpena transmititzeko eta betearazteko eskumena duten agintari judizialak.

175. artikulua. Kobratutako zenbatekoen xedea.

II. kapitulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten helarazpena.

176. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten helarazpena.

177. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpenaren dokumentazioa.

178. artikulua. Diruzko zehapen baten ordainketa eskatzen duen ebazpena helarazteko prozedura.

179. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten helarazpenaren ondorioak.

III. kapitulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena betearaztea.

180. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena Espainian aitortzea eta betearaztea.

181. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena aitortzeko eta betearazteko prozedura.

182. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpenaren aitortpena eta betearazpena ukatzea.

183. artikulua. Zehapenaren zenbatekoa berrikustea.

184. artikulua. Diruzko zehapena ordaindu ezean ezarri beharreko ordezkio zehapenak.

185. artikulua. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten betearazpena etetea.

X. titulua. Frogak lortzeko Europako exhortoa.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

186. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoa.

187. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoaren eremua.

188. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhorto bat emateko eta betearazteko Espainiako agintari eskudunak.

II. kapitulua. Frogak lortzeko Europako exhorto bat ematea eta helaraztea.

189. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoa ematea eta helaraztea.

190. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoaren dokumentazioa.

191. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoa helarazteko prozedura.

192. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoaren helarazpena.

193. artikulua. Errekurtsoak estatu betearazlean.

194. artikulua. Beste estatu kide batean exhortoa betearaztean eskuratutako datu pertsonalak Espainian erabiltzea.

III. kapitulua. Frogak lortzeko Europako exhorto bat betearaztea.

195. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhorto bat Espainian betearaztea.

196. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoa aitortzeko eta betearazteko prozedura.

197. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoaren bidez eskuratutako objektu, dokumentu edo datuak lortzea eta helaraztea.

198. artikulua. Frogak lortzeko Europako exhortoaren aitortzea eta betearazpena ukatzea.

199. artikulua. Exhortoa betearazteko prozesuari buruzko berariazko informazioa.

200. artikulua. Exhortoaren betearazpena etetea.

Lehenengo xedapen gehigarria. Gibraltartetik etorritako edo hara bidali beharreko atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduak igortzea eta betearaztea.

Bigarren xedapen gehigarria. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko, eta frogak eta diruzko zehapenak segurtatzeko neurrien helarazpena Erresuma Batuarekiko eta Irlandako Errepublikarekiko harremanetan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Europar Batasuneko Kontseiluko Idazkaritza Nagusiaren aurrean egindako adierazpenei buruzko informazioa.

Lehenengo xedapen iragankorra. Araubide iragankorra.

Bigarren xedapen iragankorra. Kondena-ebazpenak Poloniara igortzea eta betearaztea.

Hirugarren xedapen iragankorra. Schengengo informazio-sistemako deskribapenaren baliokidetasuna.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehenengoa. Eranskinak eguneratzea.

Azken xedapenetako bigarrena. Eskumen-titulua.

Azken xedapenetako hirugarrena. Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.



## HITZAURREA

## I

Amsterdamgo Itunak Europar Batasunean askatasun-, segurtasun- eta justizia-gune bat sortzea aurreikusi zuenetik hamar urte baino gehiago igaro ostean, estatu kideak, Espainia tartean, lankidetzak judizialerako mekanismoak indartzen ari dira oraindik, oinarritzko bi printzipio hauek aplikatuz egin ere: legedien harmonizazioa eta ebazpen judizialak elkarri aitortzea.

Elkarri aitortzeko printzipioa, estatu kideen arteko konfiantzan oinarritua, eta Tampereko Europar Kontseiluan Europar Batasuneko lankidetzak judizial, zibil eta penalaren giltzarri gisa goretsia, benetako iraultza izan da estatu kideen arteko lankidetzak-harremanetan. Izan ere, estatu kide bateko agintari judizial batek emandako ebazpena beste estatu kide batean aitortzea eta betearaztea ahalbidetzen du, aitortpena ukatu ahal izateko zioetako bat gertatzen denean izan ezik. Azkenik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak printzipio juridiko gisa ezarri du elkarri aitortzea, eta 82. artikuluari jarraituz, zigor-arloko lankidetzak judizialaren oinarria da.

Lankidetzak judizialaren eredu berri horrek Europar Batasuneko estatu kideen arteko harremanen erabateko aldaketa dakar; izan ere, agintaritzak zentralen edo gobernu-agintaritzen arteko garai bateko jakinarazpenen ordean, agintari judizialen arteko zuzeneko komunikazioa dago, krimen-egozte bikoitzaren printzipioa ezabatu da, alde zehaztutako delituen zerrendari dagokionez, eta salbuespen gisa arautu da ebazpen baten aitortpena eta betearazpena ukatzea, ezezkoa emateko zioen zerrenda oinarri hartuta. Gainera, ebazpen judizialak helarazteko prozedurak erraztea eta bizkortzea lortu da, ebazpen bat beste estatu kide bati helarazteko eskumena duten agintari judizialek bete beharreko inprimaki edo ziurtagiri bat erabiliz.

Zigor-arloan ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa praktikan jartzeko neurrien programan xedatutakoaren arabera, zigor-eremuan printzipio hori aplikatu behar da zigor-arloko prozesuaren fase bakoitzean; hau da, kondena-epaia eman aurretik, emateko unean, bai eta eman ostean ere.

## II

Zigor-zuzenbidearen eremuan, printzipio hori Europar Batasunaren tresna juridiko batean gauzatu zen, estreinakoz, 2002/584/JAI Esparru Erabakian, Europako aginduari eta estatu kideen arteko entrega-prozedurei buruzkoan, bizkortasun eta segurtasun juridiko handiagoko prozesua lortze aldera. Arau hori berehala sartu zen espainiar zuzenbidean, honako lege hauen bidez: martxoaren 14ko 3/2003 Legea, atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduari buruzkoa, eta martxoaren 14ko 2/2003 Lege Organikoa, aurrekoaren osagarri dena.

Eremu horretan hartutako bigarren esparru-erabakia 2003ko uztailaren 22ko 2003/577/JAI Esparru Erabakia izan zen, Europar Batasunean ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenak betearazteari buruzkoa. Horrenbestez, jatorrizko estatuko agintari judizialak beste estatu kide batean prebentzioz enbargatzeko ebazpen bat eman dezake gero konfiskatuko diren ondasunei edota epaiketan frogak gisa erabiliko diren ondasunei dagokienez. Arau hori Espainiako zuzenbidean txertatu zen bi lege hauen bidez: ekainaren 5eko 18/2006 Legea, prozedura penaletan enbargo-ebazpenak eta frogak segurtatzea eraginkortasunez egitekoa, eta ekainaren 5eko 5/2006 Lege Organikoa, aurrekoaren osagarri dena, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena.

Hirugarrenik, 2005eko otsailaren 24ko 2005/214/JAI Esparru Erabakiari, diruzko zehapenak elkarri aitortzearen printzipioa aplikatzeari buruzkoari, esker estatu eskatzaileak jo zezakeen lege-hauste penal baten ondorioz (edo, kasu jakin batzuetan, lege-hauste administratibo baten ondorioz) sortutako diruzko zehapen bat ordaindu behar duen pertsonak ondarea-elementuak dauzkan, diru-sarrerak lortzen dituen edo ohiko bizilekua duen estatuko agintari judizialengana, zehapen hori betearazteko. Arau hori gure

zuzenbidean txertatu zen lege hauen bidez: abenduaren 4ko 1/2008 Legea, diruzko zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak Europar Batasunean betearaztekoa, eta abenduaren 4ko 2/2008 Lege Organikoa, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, aurrekoaren osagarri dena.

Urtebete geroago, 2006ko urriaren 6ko 2006/783/JAI Esparru Erabakiak, konfiskatze-ebazpenak elkarri aitortzearen printzipioa aplikatzeari buruzkoak, ahalbidetu zuen estatu batean ondasun batzuk konfiskatzeko emandako ebazpena dena delako ondasun horiek dauden estatuko auzitegi batek aitortzea eta betearaztea. Arau hori izan da, gaur arte, zigor-ebazpenak elkarri aitortzeari buruz gure zuzenbidean txertatu den azken esparru-erabakia, honako lege hauen bitartez: martxoaren 10eko 4/2010 Legea, konfiskatze-ebazpenak Europar Batasunean betearaztekoa, eta martxoaren 10eko 3/2010 Lege Organikoa, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, eta aurrekoaren osagarri dena.

2008an, zigor-arloan emandako ebazpen judizialak elkarri aitortzeari buruzko zenbait esparru-erabaki hartu ziren. Lehenik eta behin onetsi zen 2008ko azaroaren 27ko 2008/909/JAI Esparru Erabakia, askatasunaz gabetzeko zigor edo beste neurri batzuk ezartzen dituzten zigor-arloko epaiak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa, Europar Batasunean betearazteko ondorioetarako. Erabaki hori dela eta, pertsona fisiko bati askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen dion kondena-ebazpena beste estatu kide batean betearaz daiteke, baldin eta horrek kondenatua gizarteratzen laguntzen badu. Esparru-erabaki horrekin batera hartu zen 2008ko azaroaren 27ko 2008/947/JAI Esparru Erabakia, zaintzapeko askatasuna ezartzeko epai eta ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioaren aplikazioari buruzkoa, zaintzapeko askatasuna eta ordezkio zigorrak ezartzeko neurriak zaintzearen. Horren bitartez, estatu batean kondenatu bati ezarritako zaintzapeko askatasuna edo ordezkio zigorra betetzen dela zaintzeko ardura beste estatu kide bati helarazi ahal zaio. Amaitzeko, 2008ko abenduaren 18ko 2008/978/JAI Esparru Erabakia, frogak lortzeko Europako exhortoari buruzkoa, hartu zen 2008an, prozedura penaletarako objektu, dokumentu eta datuak eskatzeko. Estatu kide bateko agintari eskudunek emandako ebazpen judiziala da, beste estatu kide bati objektuak, dokumentuak eta datuak eskatzea helburu duena, zigor-arloko prozesu batean erabiltzeko.

2009an onetsi zen aurreko esparru-erabaki batzuk aldatu zituen lehenengo esparru-erabakia; hain zuzen ere, 2009ko otsailaren 26ko 2009/299/JAI Esparru Erabakia, aurreko esparru-erabaki hauek aldatu zituena: 2002/584/JAI, 2005/214/JAI, 2006/783/JAI, 2008/909/JAI eta 2008/947/JAI. Esparru-erabaki horren xedea zen pertsonen eskubide prozesalak sendotzea, eta inputatua bertan agertu gabe egindako epaiketen ondorioz emandako ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatu dadin laguntzea. Arau horien artean dago, halaber, 2009ko urriaren 23ko 2009/829/JAI Esparru Erabakia, behin-behineko espetxeratzearen ordezkio zaintza-neurriak hartzeko ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa Europar Batasuneko estatu kideen artean aplikatzeari buruzkoa. Horri esker estatu kide batean egindako zigor-arloko prozesu batean pertsona fisiko bati behin-behineko askatasuna zaintzeko neurri bat edo gehiago ezartzeko emandako ebazpenak beste estatu kide bateko agintari judizialek ikuska ditzakete.

Amaitzeko, Lisboako Itunak Europar Batasunaren egituran eta dagozkion arauzko tresnetan eragindako aldaketan ondorioz, 2011ko abenduaren 13an onetsi zen esparru horretako lehen zuzentaraua. Hain zuzen ere, 2011ko abenduaren 13ko 2011/99/EB Zuzentaraua, Babesteko Europako aginduari buruzkoa, lege honetan ere txertatzen dena. Zuzentarau horren xedea da estatu kide bateko agintari eskudunek pertsona bat beste baten balizko delitu-egintzetatik babesteko ezarritako neurrien bidez emandako babesa hedatzea pertsona hori bizitzera edo denboraldi batez egotera joandako estatu kidera.

Europar Batasuneko araugintza emankor horren ondorioz, estatu kideak legegintza-jarduera biziari ekin beharrean daude orain arte onetsitako xedapen horiek estatu-ordenamenduetan txertatzeko. Espainian, gainera, lehenengo lau esparru-erabakiak gurera ekartzeko erabili den araugintza-teknikari eutsiz gero, hainbat eta hainbat arau egin beharko lirateke. Izan ere, lege ugari egin behar izateaz gainera, lege organiko osagarriak

egin beharko lirateke, eta horien bidez, Botere Judizialaren Lege Organikoa behin eta berriro aldatu beharko litzateke.

Horregatik, Europako arau horiek gurera ekartzeko orain arte erabilitako araugintza-teknika aldatzea erabaki da, honako helburu hauek xede hartuta: alde batetik, transposizio hobe bermatzea, eta bestetik, arauen dispersioa eta ordenamenduaren konplexutasuna murriztea; izan ere, ordenamendu horrek ahalbidetu behar du, azken finean, berez konplexua eta berria den eremuan eragile juridikoek zuzenbidea aplikatzea.

Horrenbestez, lege honek bertan behera uzten du Europako esparru-erabaki edo zuzentarau bakoitza, berariaz, lege arrunt baten bidez eta dagokion lege organiko osagarriaren bidez gurera ekartzeko teknika; halaber, baterako testu gisa ageri da, eta zigor-ebazpenak elkarri aitortzeko alorrean gaur arte onetsitako esparru-erabaki eta zuzentarau guztiak biltzen ditu. Barnean hartzen ditu gure zuzenbidean jada txertatu direnak, bai eta txertatu gabe daudenak ere. Hartara, adierazitako arau-dispersioa saihesten da, eta zuzenbidearen alorreko profesionalek arau horiek ezagutzea eta erabiltzea errazten da. Gainera, etorkizunean gai horretan eman daitezkeen zuzentzarauak erraz txertatzeko moduko eskema baten arabera egituratuta dago.

Lege honekin batera, lege organiko bat egin da, Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzen duena. Horrenbestez saihesten dira lege organiko horren etengabeko erreformak, transposizioa banaka eginez gero beharrezkoak izango liratekeenak.

### III

Legea atariko titulu labur batekin hasten da, eta gero zenbait titulutan egituratuta dago. Titulu horietako lehenengoak Europar Batasuneko zigor-ebazpenen helarazpenerako eta aitortzenerako araubidea jasotzen du, askotariko tresnei aplikatu beharreko arauak barnean hartuta, bai eta tresna horietako bati edo bakar batzuei dagozkienak ere. Horrenbestez, kasu zehatz bakoitzean, araudia aplikatzeko ardura dutenek jarraitu behar dituzte osotasunaren koherentzia bermatzen duten arau orokorrak, bai eta tresna horietako bakoitzaren berariazko xedapenak ere.

Ondorengo tituluetan arautzen dira elkarri aitortzeko tresna guztiak, banaka-banaka, eskema berdin-berdinari utsita: arau komun batzuk daude, beste arau batzuen xedea da agintari judizial eskudunari kasu bakoitzean adieraztea elkarri aitortzeko ebazpen bat nola helarazi Europar Batasuneko beste estatu kide batzuei, eta amaitzeko, beste arau batzuek ezartzen dituzte gainerako estatu kideetako agintari eskudunek helarazitako ebazpenak Espainian betearazteko arauak. Legearen amaierako zatian, berriz, honako xedapen hauek jasota daude: hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, lau azken xedapen eta hamahiru eranskin. Azken horietan jasota daude Espainiako agintari judizialek ebazpen judizialak helarazteko edo legeak ezarritako jakinarazpenak egiteko erabili beharko dituzten inprimaki edo ziurtagiriak.

### IV

Atariko tituluak Europar Batasunean zigor-ebazpenak elkarri aitortzeko araubide juridikoa osatzen duten oinarritzko xedapenak jasotzen ditu. Legeak banaka-banaka aipatzen ditu zer ebazpen judizial diren gero arautuko direnak; oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzea jarduteko irizpide nagusia dela ezartzen du; gai honetan Prozedura Kriminalaren Legea osagarri gisa aplikatu behar dela xedatzen du, eta estatu emaille zein estatu betearazle kontzeptuei buruzko azalpenak ematen ditu. Legeak ez du ahazten lankidetzaren judizialerako eredu horien dinamikak datu estatistikoetan adierazita ezagutzeko premia.

### V

I. tituluak Europar Batasunean elkarri aitortzeko tresnak helarazteko, aitortzeko eta betearazteko arau orokorrak jasotzen ditu. Zigor-ebazpen judizialak elkarri aitortzeko arauetan dauden elementu komunak identifikatzeko ahalegina egiten du. Xedapen horiek

Europar Batasunaren esparru-erabakiek formulazio desberdinen bidez jasotako arauak orokortzen dituzte. Izan ere, arau horiek irizpide kritikorik gabe txertatuz gero, justifikaziorik gabeko desberdintasunak sortuko lirateke, eta aldi berean, lege honen aplikazioa konplexuagoa izango litzateke.

Horrenbestez, titulu honetan ezagutzen dira elkarri aitortzean oinarritutako lankidetzako judizialerako sistema berriaren oinarritzko ezaugarriak. Artikulu horietan jasota daude, besteak beste, arlo hauei buruzko arau komunak: Europako agindua eta ebazpen judizialak beste estatu kide batzuei helaraztea, xedapen horiek Espainian betearaztea, aitortzea eta betearazpena ukatzeko zio orokorrak, eta baliabide, gastu, kalte-ordain eta itzultzei buruzko arauak.

Elkarri aitortzeko tresnak helarazteko nahiz betearazteko eskumena epaileen, auzitegien eta fiskaltzaren artean banatuta dago. Legeak orokortzen du fiskalari aurrez entzutea, aipatutako tresna horien azterketaz arduratzen ari dena epailea edo auzitegia izanez gero.

Garrantzi berezia du tipifikazio bikoitzaren printzipioa aplikatzeko betebeharririk ez duten delitu-kategorien zerrenda, bertan adierazten baita Europar Batasuneko herrialdeen oinarritzko konpromisoa, arau-hauste jakin batzuetan krimen-egozte bikoitzaren kontrolaren eskakizunari uko egitekoa. Hortaz, beste estatu kide batzuetan emandako ebazpenak, eta Espainiari aitortzeko eta betearazteko helarazi zaizkionak, ez dira egongo Espainiako epaile edo auzitegiak tipifikazio bikoitza kontrolatzearen mende, zerrendan adierazitako delituetako bati buruzkoak izanez gero, eta ebazpen judizialen mota bakoitzerako eskatutako baldintzak betetzen badira. Elkarri aitortzeko printzipioaren jardueraren ondorioz, atzerriko agintari judizialak erabakitako Europako agindua aitortzeko eta betearazteko eskumena duen agintariaren erabakia ia automatikoa da, barne-antolamendu juridikoarekin bat datorrela egiaztatzeko premiarik gabe, eta helarazitako erabakiaren betearaztea ukatzeko kasuak mugatzen dira lege honetan aztertutako eta berariaz aurreikusitako kausetara.

Arau orokor horiek agerian jartzen dute estatu desberdinetako agintari judizialen arteko harreman zuzenetik sortutako elkarrekiko aitortpenaren berezitasuna. Ezaugarri hori praktikan jartzeko, ezinbestekoa da kasu bakoitzean hartutako erabakiak, eta kasu askotan alde aurreko kontsultak ere, berehala jakinaraztea, hartara agintari eskudunek baloratzeko tresna horietara jotzea egoki ote den.

Elkarri aitortzeko tresna guztiei aplikatu beharreko manu horien garrantzia nabarmena da edukiari erreparatuz gero, honako alderdi hauek kontuan hartzen baititu, besteak beste: jakinarazpenak, itzulpenak, baliabideen araubidea, eta helarazitako ebazpen baten betearazpena gure herrialdean eteteko edo ukatzeko kasu arruntak.

## VI

II. titulua da tresna zehatz bat helburu duen lehena; hain zuzen, atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua. Tresna horren arauak, martxoaren 14ko 3/2003 Legeak, atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduari buruzkoak, araututakoa jarraitzen dute, eta gainera, eguneratu dira, gai horretan bildutako esperientzia baliatuta. Horrek guztiak berme juridikoen sendotzea eragin du, batez ere proportzionaltasunaren irizpidea sartzean, araugintza-teknikan zenbait hobekuntza egin dira, eta arauaren aplikazio praktikoa hobetzea helburu duten beste aldaketa batzuk ere egin dira. Horrenbestez bikaindu da prozedura hau, Espainiako edozein agintari judizial honako aukera hau ematen diona: beste estatu kide bati pertsona bat entregatzeko eskatzea, zigor-arloko jardueretarako, edo ezarritako kondena bat betearazteko, eta beste estatu kide bateko agintari judizialak emandako atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua jasoz gero, entrega hori egitea.

## VII

III. tituluaren xede dira askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak betetzeko ebazpenak. Manu horien bitartez txertatzen da orain arte gurerara ekarri ez den esparru-erabaki bat, estatu kide batean emandako kondena-ebazpen bat beste estatu kide batean

betearaztea bideratzen duena, kondenatuaren gizarteratzea errazagoa izan dadin. Beraz, Espainiako agintari judizialek kondena-epaiak helarazi ahal izango dizkiete beste estatu batzuei, epai horietan askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak ezarri badira, eta legez ezarritako baldintzak betez gero. Halaber, helarazi zaizkienak betearazi beharko dituzte.

## VIII

Bestalde, IV. tituluak jasotzen ditu zaintzapeko askatasunari buruzko ebazpena emateko arauak, kondena osteko neurrien esparruan emandako ebazpenak helarazteko eta betearazteko araubidea ezartzen dutenak. Titulu horrek barnean hartzen du, alde batetik, Espainiako agintari judizialek zaintzapeko askatasuna edo ordezkio zigorra jartzeko neurriak ezartzeko ebazpena helarazteko jarraitu behar duten prozedura, eta bestetik, Espainian ebazpen horiek betearazteko prozedura, beste estatu kide batzuetan eman badira. Ebazpen horiek elkarri aitortzearen xedea da kondenatuaren gizarteratzeko aukerak areagotzea. Izan ere, familiaren, hizkuntzaren eta kulturaren alorreko loturei eusteko aukera ematen zaio, eta zaintzapeko askatasuna eta ordezkio zigorrak ezartzeko neurriak betetzen direla hobeto kontrolatzea, berrerortzea saihesteko, biktimak babesteko printzipioa aintzat hartuta.

## IX

V. tituluak behin-behineko askatasuna zaintzeko ebazpenei buruzkoa da, estatu batek ezarritako zaintza-neurria betetzen dela beste estatu batek ikuskatzeko aukera ematen duena, hala eskatuz gero, eta legez ezarritako baldintzak betetzen badira. Horrenbestez, zigor-arloan estatuen jarduera hobeto antolatzen da, eta zigor-arloko arau-hauste baten ondorioz estatu kide bateko biztanlea bere ohiko ingurutik ateratzea saihesten da, epaiketa egin arteko denboran. Horrenbestez, segurtasun publiko handiagoa lortzen da; izan ere, estatu kide batean bizi eta beste batean prozedura penalak izanez gero, bizitokiko agintariak zaintzeko aukera ematen du, epaiketa egin arte. Hartara, neurri errepresiboagoak saihesten dira, esate baterako, behin-behineko espetxeratzea, edo segurtasun gutxiago ematen dutenak, adibidez, zaindu gabeko behin-behineko askatasuna.

## X

VI. tituluak Babesteko Europako agindu bat helaraztea eta beste estatu kide batean betearaztea arautzen ditu. Agindu hori edozein estatu kidek eman dezakeen zigor-ebazpen bat da, estatu horrek aurrez hartutako babes-neurriari dagokionez. Horrenbestez, beste estatu kide bateko agintari eskudunari ahalmena ematen zaio, delitua dela-eta arriskuan egon daitezkeen biktimen edo balizko biktimen aldeko neurri egokiak hartzeko, lurralde hartara joan badira. Arauketa horrek aukera ematen du biktima baten alde hartutako babes-neurriari eusteko Europar Batasuneko edozein tokitan, hara noizbehinka edo modu iraunkorrean egoteko joanda ere. Arrisku hori eragin duen pertsonak, berriz, aurre egin beharko dio Europako agindu hori ez betetzearen ondorioei.

Aurreikusitako neurrien ezaugarria da biktimak une bakoitzean dituen babes-beharretara egokitzeko malgutasuna; horren ondorioz, agintari eskudunak ere erabaki dezake babes-agindu hori luzatzea, berrikustea, aldatzea edo baliogabetzea. Horrela bermatzen da mehatxatutako pertsona baten alde edozein estatu kidean hartutako babes-neurriak eraginkorrak izatea Europar Batasuneko lurralde osoan.

## XI

VII. tituluak ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenak aitortzeko araubidea ezartzen du. Bertan sartzen dira, aldaketa batzuekin, ekainaren 5eko 18/2006 Legea, enbargo-ebazpenak eta frogen segurtasuna Europar Batasunean zigor-arloko prozeduretan eraginkorrak izatekoa. Mekanismo horren bidez, Espainiako agintari judizialek prozedura penaletan ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak

segurtatzeko hartutako neurriak helaraziko dizkiete neurri horren xede diren objektu, datu edo dokumentuak egon daitezkeen estatu kideei. Halaber, zehazten da Espainiako agintari judizialek aitortu eta beteko dituztela ebazpen horiek, beste estatu kide bateko agintari judizialak emanez gero. Garrantzitsua da azpimarratzea tresna honi aplikatutako neurria segurtatzeko kontzeptuak barne hartzen dituela prozesatuaren diruzko erantzukizuna estaltzeko nahikoak diren ondasunei eragiten dieten neurriak. Elkarri aitortzeko eskakizunen ondorioz, tresna honen barruan sartzen dira delituaren gorputza segurtatzeko hainbat eginbide; esate baterako, biltzea, blokeatzea, kontserbatzea, atzitzea, konfiskatzea edo gordailutze judiziala. Hori guztia alderdien eta fede oneko interesdunen eskubideak babesten dituzten bermeak behar bezala errespetatuta.

## XII

VIII. tituluaren xedea da konfiskatze-ebazpenaren araubidea aurreikustea, eta martxoaren 10eko 4/2010 Legeak, Europar Batasunean konfiskatze-ebazpen judizialak gauzatzeari buruzkoak, jasotako edukia txertatzea, egokitzapen batzuk eginda. Horrenbestez, konfiskatzea ezartzen duten epai irmoak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuei transmititzeko Espainiako agintari judizialek baliatu beharreko prozedura arautzen du. Halaber, ezartzen du Espainiako agintari judizialek nola aitortu eta betearaziko dituzten ebazpen horiek, beste estatu kide batek transmitituz gero. Jakina da Europar Batasuneko arauak konfiskazioaren kontzeptua zehaztean gai honetan izan duten eragina. Izan ere, kontzeptu horrek barne hartzen ditu kondenatuak kondena ezarri aurreko aldi egindako delituzko jardueren ondorio diren ondasunak, edo baldin eta, ondasunen balioa, kondenatuaren legezko diru-sarrerekin alderatuta, neurrigabea dela badakite eta agintari judizial nazional bat, gertaera zehatzak oinarri hartuta, delitu baten ondorio dela ziur badago. Aitzitik, lege honetatik kanpo geratzen dira ondasunak jabe legitimoen itzultzeko kasuak.

Legeak barne hartzen ditu konfiskatu beharreko ondasunak aurkitzeko zalantzek sortutako arazoak konpontzeko asmoz egindako berrikuntza batzuk; izan ere, arazo horiek direla-eta, agintari judizial batek bere ebazpena Europar Batasuneko zenbait estatu kideri aldi berean helarazteko aukera du. Aurreikuspen horrek, aldi berean, agintari judizialen arteko komunikazioa hobea izatera behartzen du, betearaztean gehiegikeriak saihesteko.

## XIII

IX. tituluaren xedea da diruzko zehapen baten ordainketa eskatzen duen ebazpena arautzea, eta 1/2008 Legea, abenduaren 4koa, diruzko zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak Europar Batasunean betearaztekoa, txertatzen du, aldaketa txiki batzuk eginda. Pertsona fisiko edo juridiko bati, egindako zigor arau-hauste baten ondorioz, diruzko zehapen bat eskatzen dion ebazpen irmoa pertsona horrek ondasunak dauzkan, diru-sarrerak eskuratzen dituen edo ohiko bizileku duen Europar Batasuneko beste estatu kide batzuei helarazteko Espainiako agintari judizialek jarraitu beharreko prozedura zehazten dute arau horiek. Halaber, arautzen da Espainiako agintari judizialek ebazpen horiek aitortzeko eta betearazteko prozedura, beste estatu kide batek helaraziz gero, eta kondenatuak gure herrialdean jabetzak, diru-sarrerak edo bizilekua izanez gero.

Argitu behar da tresna honen diruzko zehapenaren kontzeptuak, arau-hauste baten ondorioz ezarritako isun gisa eskatutako diruaz gainera, kontuan hartzen duela ebazpen berean epaiketa-kostu gisa ezarritako zenbatekoa, biktimentzako konpentsazio gisa ezarritakoa edota funts publiko batera edo biktimei laguntzeko erakunde batera bideratu beharrekoa. Gainera, ezarritako zehapenak zigor-arloko zein administrazio-arloko arau-hauste baten ondorio izan daitezke, araututakoari jarraituz.

## XIV

Azken tituluak, X.ak, frogak lortzeko Europako exhortoa arautzen du. Esparru-erabaki berri bat txertatzen du, Espainiako agintariek beste estatu kide batekiko harremanetan

bidali edo jaso dezaketen ebazpena –objektuak, dokumentuak eta datuak eskatzeko– helarazteko eta betearazteko arauak erregulatuz. Frogak lortzeko Europako exhortoa izan daiteke, halaber, Europar Batasuneko beste kide batzuetako agintari eskudunek hasitako prozedurei dagokiena, haren antolamenduan arau-hauste administratibo gisa tipifikatutako ekintzengatik har daitekeen erabakiaren ondorioz zigor-arloko jurisdikzio-organo baten aurrean prozesua eragitea litekeena izanez gero. Ez da hala Espainian egindako arau-hauste administratiboen kasuan; izan ere, gure zuzenbidean, administrazio-agintari eskudunak ez daude Europako arauan aurreikusitako egoeran, haien ebazpenak administrazioarekiko auzien bidean errekurritzeko aukera baitago, eta ez zigor-bidean; horrenbestez, ezin da sartu lankidetzeta-mekanismo horretan. Azpimarratu behar da espainiar epaile edo fiskalak esku hartuz gero ebazpen hori betearazteko, beste estatu batek helarazi duenean, ebazpena emandako agintariak baliozkotzeko betekizuna alde batera utz daitekeela, epaileak edo fiskalak baloratzen baitu eskatutako neurriaren proportzionaltasuna eta oinarritzko eskubideen mugaketa ote dakarren.

## XV

Aipatu behar dira, halaber, lege honen amaierako eranskinak, Europar Batasuneko agintari judizialen arteko jakinarazpenak egiteko inprimaki eta ziurtagirien ereduak jasotzen dituztenak. Inprimaki eta ziurtagiri berdin-berdinak dira herrialde guztietan; beraz, erraz ulertzen dira, hizkuntza bakoitzera itzulitako ereduak oinarri hartuta, eta horrela, arintasun eta segurtasun juridiko handiagoa ematen zaie harreman horiei.

## XVI

Azken finean, lege hau tresna integratzailea da, Europako arauak ezarritako eginbideak betetzeaz gainera, Europar Batasunean zigor-arloko lankidetzeta judiziala hobetzeko konpromisoari ere erantzuten dio, bai eta krimenen aurkako borrokari ere, herritarren segurtasuna eta eskubideak bermatuz, Estatuaren ezin uko eginezko xede diren aldetik.

## ATARIKO TITULUA

**Europar Batasunean zigor-ebazpenak elkarri aitortzeko araubide orokorra**1. artikulua. *Europar Batasunean zigor-ebazpenak elkarri aitortzea.*

Europar Batasuneko askatasun-, segurtasun- eta justizia-eremuan zigor-ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatuz, lege honetan araututako agindu edo ebazpen bat ematen duten Espainiako agintari judizialek beste estatu kide bati helarazteko aukera dute, han aitortu eta betearazteko.

Zigor-ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatuz, Espainiako agintari judizial eskudunek Espainian aitortu eta betearaziko dituzte, aurreikusitako epean, lege honetan xedatutako Europako aginduak eta zigor-ebazpenak, beste estatu kide bateko agintaritzak eskudunak behar bezala helarazi baditu, eta aitortpena edo betearazpena ukatzeko zerrendatutako zioen bat gertatu ezean.

2. artikulua. *Elkarri aitortzeko tresnak.*

1. Elkarri aitortzeko tresnatzat hartzen da Europar Batasuneko estatu kide bateko agintari eskudunak emandako Europako agindua edo ebazpena, beste estatu kide bati helarazten zaiona, han aitortzeko eta betearazteko.

2. Lege honetan elkarri aitortzeko tresna hauek arautzen dira:

- a) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua.
- b) Zigor bat edo askatasunaz gabetzeko neurri bat ezartzeko ebazpena.
- c) Zaintzapeko askatasun-ebazpena.

- d) Behin-behineko askatasuna zaintzeko neurriei buruzko ebazpena.
- e) Babesteko Europako agindua.
- f) Ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpena.
- g) Konfiskatze-ebazpena.
- h) Diruzko zehapenak ezartzen dituen ebazpena.
- i) Frogak lortzeko Europako exhortoa.

3. artikulua. *Oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzea.*

Lege hau aplikatuko da oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatuz, eta Espainiako Konstituzioan, Europar Batasuneko Itunaren 6. artikuluan, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean, eta Europako Kontseiluaren 1950eko azaroaren 4ko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmenean jasotako printzipioak aintzat hartuta.

4. artikulua. *Araubide juridikoa.*

1. 2. artikuluan zerrendatutako elkarri aitortzeko tresnen aitortpena eta betearazpena arautuko dira lege honetan, Europar Batasuneko arauetan eta Espainiak parte hartutako indarreko nazioarteko hitzarmenetan jasotako xedapenen arabera. Berariazko xedapenik ezean, Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko da.

2. I. tituluko xedapenak aplikatuko dira lege honetako gainerako tituluetan aurreikusitako elkarri aitortzeko tresna bakoitzaren berariazko arauen kalterik gabe.

3. Lege honetan jasotako arauen interpretazioa elkarri aitortzeko tresna bakoitza arautzeko Europar Batasuneko arauen arabera egingo da.

5. artikulua. *Estatu emailea eta estatu betearazlea.*

Honako hauek izango dira:

a) Estatu emailea: Lege honetan araututako agindu edo ebazpen bat, beste estatu kide batean aitortzeko eta betearazteko, eman duen agintaritza eskuduna dagokion Europar Batasuneko estatu kidea.

b) Estatu betearazlea: Europar Batasuneko beste estatu kide bateko agintari judizialak emandako agindu edo ebazpenaren helarazpena jaso duen estatu kidea, hura aitortu eta betearaz dezan.

6. artikulua. *Justizia Ministerioari informatzeko eginbeharra. Agintaritza zentrala.*

1. Lege honetan aurreikusitako elkarri aitortzeko tresnak helarazten edo betearazten dituzten epaile edo auzitegiek hiruhileko buletin estatistikoetan jaso eta Justizia Ministeriora igorriko dituzte.

2. Estatuko Fiskaltza Nagusiak sei hilabete behin Fiskaltzako ordezkariak emandako edo betearazitako elkarri aitortzeko tresnen zerrenda bidaliko diote Justizia Ministeriori.

3. Justizia Ministerioa izango da agintari judizialei laguntzeko eginkizuna izango duen agintaritza zentrala.



## I. TITULUA

### **Europar Batasunean elkarri aitortzeko tresnak helarazteko, aitortzeko eta betearazteko araubide orokorra**

## I. KAPITULUA

### **Espainiako agintari judizialek elkarri aitortzeko tresnak helaraztea**

7. artikulua. *Agindu eta ebazpenak ematea eta dokumentatzea elkarri aitortzeko printzipioaren babesean betearaz ditzaten.*

1. Espainiako zigor-ebazpen batek Europar Batasuneko beste estatu kide batean jarduera prozesalak behar baditu, lege honetan araututako elkarri aitortzeko tresnaren bat izanez gero, Espainiako agintari judizial eskudunak dokumentatuko du ezinbesteko inprimaki edo ziurtagirian, eta beste estatu kideko agintari judizial eskudunari helaraziko dio, betearazteari ekin diezaion.

Ziurtagiriaren oinarri den zigor-ebazpenaren testigantza nahitaez bidaliko du, ziurtagiriarekin batera, honako kasu hauetan izan ezik: atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua, frogak lortzeko Europako exhortoa edo babesteko Europako agindua izan ezean. Azken horiek dagokion inprimakia soilik baliatuta dokumentatuko dira.

Ebazpenaren edo ziurtagiriaren originala agintari betearazleak eskatzen duenean baino ez da bidaliko.

2. Dokumentatzen den ebazpena emateko eskumena duen agintaritza judizialak sinatuta egongo da ziurtagiria edo inprimakia.

3. Ziurtagiria edo inprimakia itzuliko da helburu duen estatu kideko hizkuntza ofizialera, edo hizkuntza ofizialetako batera; edo, hala badagokio, estatu horrek onartutako europar erakundearen hizkuntza ofizial batera, estatu horrekin egindako hitzarmenek gaztelaniaz igortzeko aukera ematen duten kasuetan izan ezik.

Zigor-ebazpena agintaritza judizial betearazleak hala eskatzen badu baino ez da itzuliko.

8. artikulua. *Agindu eta ebazpenak helaraztea elkarri aitortzeko printzipioaren babesean bete daitezten.*

1. Elkarri aitortzeko tresnen helarazpena, bai eta lege honen arabera egindako beste edozein jakinarazpen estatu betearazleko agintari judizial eskudunari helaraziko zaio zuzenean, hala egin izana egiaztatzen duen idatzizko agiria jasotzea bideratzen duen edozein bitarteko baliatuta.

Elkarri aitortzeko tresna bat betearazteko behar den dokumenturen baten helarazpenaren edo egiazkotasunaren inguruan sortutako edozein arazo inplikaturako agintari judizialen arteko zuzeneko komunikazioaren bidez konponduko da, edo estatu kideetako agintaritza zentralen parte-hartzearekin, hala badagokio, atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren edo frogak lortzeko Europako exhortoaren kasuan.

2. Agintaritza judizial eskudun betearazlea ezagutzen ez bada, dagokion informazioa eskatuko da, beharrezko bitarteko guztiak baliatuta, Europako Sare Judizialeko (ESJ) espainiar kontaktu-guneak eta gainerako lankidetzaren sareak barne hartuta.

3. Lege honetan araututako elkarri aitortzeko tresnak dagokion agintaritza judizial eskudunari helarazi ahal izango zaizkio, Espainiak Eurojust erakundearen duen kide nazionalaren laguntza eskatuta, egoki izanez gero, haren arau erregulatzailerari jarraituz.

9. artikulua. *Elkarri aitortzeko tresnen inguruan Eurojust erakundeari nahitaez eman beharreko informazioa.*

1. Elkarri aitortzeko tresna batek zuzenean eragiten badie hiru estatu kideri, gutxienez, eta lankidetzaren bidez eskatutako eskaerak edo erabakiak helarazi bazaizkie bi estatu

kideri, gutxienez, Eurojust erakundeari jakinarazi beharko zaio, haren araudian ezarritakoari jarraituz.

2. Prozedura aztertzeiko ardura duen agintaritza judizialak informazioarekin batera Eurojust erakundeari egindako laguntza-eskaera eranstea erabaki ahal izango du.

10. artikulua. *Delituaren eta zigorraren deskribapena.*

Europar Batasuneko beste estatu kide bati helarazitako betearazpenari dagokion ebazpen judiziala dokumentatzen duen inprimaki edo ziurtagiria ematen duen agintari judizialak zehaztuko du ebazpen judizialaren xede den delitua sailkatuta ote dagoen estatu betearazlean jokabidearen tipifikazio bikoitzaren kontroletik salbuesten duten kategorietako batean, 20. artikuluari jarraituz, eta delituarentzat aurreikusitako zigorra ote den, abstraktuan, hiru urtez edo gehiagoz askatasunaz gabetzeko zigorra.

11. artikulua. *Betearazteko helarazitako ebazpenaren izaera betearazlea gerora galtzea.*

Espainiako agintari judizial emaileak berehala jakinaraziko dio betearazteko ardura duen agintaritzari edozein ebazpen edo neurri, baldin eta horien xedea bada aurretiaz helarazitako agindu edo ebazpenaren izaera betearazlea baliogabetzea, eta formularioa edo ziurtagiria itzultzeko eskatuko du.

12. artikulua. *Espainiako agintaritza judizialak erreklamaturakoa beste estatu kide batetik igarotzea.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat, edo askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak ezartzen dituen ebazpen bat ematen duen espainiar agintaritza judizial batek dakienean erreklamatuak igaro behar duela estatu betearazlea ez den beste estatu batetik, Justizia Ministerioari eskatuko dio horretarako baimena emateko. Horrenbestez, ebazpen judizialaren eta egindako ziurtagiriaren kopia igorriko dio, azken dokumentu hori igaro behar den estatuak onartzen duen hizkuntzetako batera itzulita.

Justizia Ministerioak informazioa eskatuko dio igaro behar den estatuari, lurralde horretan, aurreko gertaera edo kondenaren ondorioz, kondenatua ez dutela jazarriko, atxilotuko, edo askatasunaren beste edozein murrizketa aplikatuko bermatzen ote duen jakiteko. Justizia Ministerioak eskaera bertan behera utzi ahal izango du, hala badagokio, agintaritza judizial emaileak eskatuta.

13. artikulua. *Elkarri aitortzeko tresnak helarazteko ebazpenen aurkako errekurtsuak.*

1. Elkarri aitortzeko tresna bat helaraztea erabakitzen duten ebazpenen aurka jarri ahal izango dira espainiar ordenamendu juridikoan aurreikusitako errekurtsuak, eta errekurtsu horiek Espainiako agintari judizial eskudunak ebatziko ditu, eskusiboki, espainiar legediari jarraituz.

2. Errekurtsu bat baietsiz gero, Espainiako agintari judizialak berehala jakinaraziko dio betearazpena aztertzeiko ardura duen agintariari.

3. Errekurritutako ebazpenean eragiten duen indultu bat emanaz gero, Espainiako agintaritza judizialak berehala jakinaraziko dio betearazpena aztertzeiko ardura duen agintaritzari.

Indultuak ezingo du inola ere barne hartu kosten edo prozesuak sortutako gastu administratiboen kontzeptua, ez eta biktimaren aldeko konpentsazioa ere.

4. Fiskaltzak ikerketa-eginbidetan hartutako elkarri aitortzeko tresna bat helarazteko erabakiaren aurka ezingo da errekurtsorik jarri, geroago dagokion zigor-arloko prozeduran baloratzearen kalterik gabe, Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitakoaren arabera.

## 14. artikulua. *Gastuak.*

Espainiako estatuak finantzatuko ditu beste estatu kide bati helarazitako elkarri aitortzeko agindu edo ebazpen bat betearazteak dakartzan gastuak, estatu betearazlearen lurraldean sortutakoak izan ezik.

Espainiako epaile edo auzitegi batek emandako konfiskatze-ebazpena betearaztean estatu betearazlearen jakinarazpena jasotzen bada, sortutako gastuak partekatzea proposatzeko, idazkari judizialak, bost eguneko epean, jakinarazpena jasotako egunetik zenbatzen hasita, idazki ofiziala bidaliko dio Espainiako Justizia Ministerioari, estatu betearazlearen proposamena onar dezan edo errefusa dezan, eta kostuak banatzeko akordioa egin dezan.

## 15. artikulua. *Kalte-ordainak eta diru-itzultzeak.*

Legeak bestelakorik agintzen ez badu, emandako agindu edo ebazpena betetzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galeren ordainetan eman dituen zenbatekoak baino ez dizkio ordainduko Espainiako estatuak estatu betearazleari, betiere horiek ez badira estatu horren jardueraren ondorioz sortu.

## II. KAPITULUA

### **Espainiako agintari judizialek elkarri aitortzeko tresnak aitortzea eta betearaztea**

#### *1. atala. Xedapen orokorrak*

## 16. artikulua. *Aitortzea eta berehala betearaztea.*

1. Espainiako agintari judizial eskudunek aitortu eta betearaziko dute, beste estatu kide bateko agintari judizial batek helarazitako agindu edo ebazpena, lege honetan ezarritako izapideak soilik eginda, eta kasu bakoitzerako legez xedatutako epean.

2. Agindu edo ebazpena jaso duen agintari judizialak hura betearazteko eskumenik ez duela deklaritzen duen ebazpenak erabaki behar du, halaber, eskumena duela irizitako agintari judizialari berehala bidaltzea. Orobat, ebazpen hori Fiskaltzari jakinaraziko dio, bai eta estatu emaileko agintaritza judizialari ere.

3. Espainian betearazteko helarazitako agindu edo ebazpena aitortzea edo betearaztea ukatzen duen ebazpenak erabaki behar du, halaber, agintari judizial emaileari berehala eta zuzenean itzultzea, autoa irmoa bada.

## 17. artikulua. *Ziurtagiria itzultzea.*

1. Inprimakia edo ziurtagiria espainierara itzulita ez badago, sinatu duen estatu emailearen agintaritza judizialari berehala itzuliko zaio dagokion itzulpena egin dezan, betiere aipatutako estatu horrekin indarrean dagoen hitzarmen batek edo Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiaren aurrean emandako adierazpen batek beste hizkuntza horretan bidaltzea baimentzen ez badu.

2. Ziurtagiria oinarritzen den ebazpen judiziala ez da espainierara itzulita jaso behar, baina agintaritza judizialak, halere, itzultzeko eskatu ahal izango du gauzatzeko ezinbestekoa dela iritziz gero.

## 18. artikulua. *Komunikazioak egitea.*

1. Espainiako agintari judizialek posta ziurtatuz edo bitarteko informatikoz edo telematikoz eginiko bidalketa onartuko dute, baldin eta dokumentuak elektronikoki sinatuta badaude eta egiazkotasuna egiaztatzeko modukoak badira. Fax bidez eginiko komunikazioak ere onartuko dira eta, jarraian, jatorrizko dokumentazioa agintaritza judizial emaileari bidaltzeko eskatuko da; hala, berau jasotzeak ekarriko du Lege honetan aurreikusitako epeak zenbatzen hastea.

2. Espainiako agintaritzak judizialak Lege honetan xedatutakoa betez agintaritzak emaileari egin beharreko komunikazioak zuzenak izango dira eta espainieraz egin ahal izango dira posta ziurtatuz, bitarteko elektriko sinesgarriez edo fax bidez; agintaritzak atzerritarri, halere, dagokion lekukotasuna igorri ahal izango zaio hala eskatzen bada.

#### 19. artikulua. *Ziurtagiria zuzentzea.*

1. Inprimakia edo ziurtagiria nahikoa ez bada, horrelakorik ez badago edo nabarmen ez badator bat helarazitako gauzaren ebazpen judizialarekin, agintaritzak judizialak horrela jakinaraziko dio agintaritzak emaileari, eta ziurtagiria berriro aurkezteko, osatzeko edo aldatzeko beste epe bat finkatuko du.

2. Ondasunak enbargatzeko edo frogak bermatzeko ebazpena baldin bada, agintaritzak judizialak, Ministerio Fiskalari entzun ondoren, hiru eguneko epea hartu ahal izango du eta, epe horren barruan, honako erabaki hauetakoren bat hartu ahal izango du:

- a) Ziurtagiria berriro aurkezteko edo osatzeko edo aldatzeko epea finkatzea.
- b) Beharrezko informazioa osatzen duen estatu emailearen agintaritzak eskudunaren dokumentu baliokide bat onartzea.
- c) Agintaritzak judizialak emailearen dokumentua aurkeztetik salbuestea emandako informazioa nahikoa dela iriziz gero.

3. Helaraztea nahitaezkoa izan arren betearazteko eskatu den ebazpen judizialik ez badago, agintaritzak judizialak emaileak hori igortzeko epea erabakiko du agintaritzak judizialak.

#### 20. artikulua. *Tipifikazio bikoitzaren kontrol eza eta salbuespenak.*

1. Beste estatu kide batean emandako agindu edo ebazpen bat Espainiari helarazten bazaio ezagut eta gauza dezan, horrelako tresnak ez dira, Espainiako epaile edo auzitegiaren aldetik, tipifikazio bikoitzaren kontrolari lotuta egongo, betiere jarraian zerrendatutako delituetakoren bati badagokio eta legez elkarri aitortzeko tresna mota bakoitzarentzat eskatutako baldintzak betetzen badira.

Delitu hauek dira:

- Delitu-antolakunde bateko kidea izatea.
- Terrorismoa.
- Gizakien salerosketa.
- Adingabeen sexu-esplotazioa eta haur-pornografia.
- Drogen eta substantzia psikotropikoen legez kontrako trafikoa.
- Armen, munizioen eta lehergailuen legez kontrako trafikoa.
- Ustelkeria.
- Iruzurra, Europako Erkidegoen interes finantzarioei eragiten diena barne.
- Delitu-emaizten zuriketa.
- Dirua faltsutzea.
- Informatika-delituak.
- Ingurumenaren aurkako delituak, babestutako animalia-espezieen eta landare-espezie eta -barietateen legez kontrako trafikoa barne.
- Legez kanpoko sarrera eta egonaldia laguntzea.
- Borondatezko giza hilketa eta lesio larriak eragiten dituen erasoak.
- Giza organoen eta ehunen legez kontrako trafikoa.
- Bahiketa, legez kontrako atxiloketa eta bahituak hartzea.
- Arrazakeria eta xenofobia.
- Antolatutako lapurreta edo armak erabiliz egindakoak.
- Kultur ondasunen legez kontrako trafikoa, antzinako gauzen eta artelanena barne.
- Iruzurra.
- Xantaia eta funts-estortsioa.
- Jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzea eta salgaiak faltsutzea.
- Administrazio-dokumentuak faltsutzea eta dokumentu faltsuen trafikoa.

Ordainbideak faltutzea.  
Substantzia hormonalen eta bestelako hazkuntza-faktoreen legez kontrako trafikoa.  
Gai nuklearren edo erradiaktiboaren legez kontrako trafikoa.  
Lapurtutako ibilgailuen trafikoa.  
Bortxaketa.  
Eragindako sutea.  
Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikzioan jasotako delituak.  
Aireontzien eta ontzien bahiketa.  
Sabotajea.

2. Diruzko zehapenak ezartzen dituzten ebazpen judizialak elkarri aitortzeko, aurreko paragrafoan adierazitakoez gain, tipifikazio bikoitzaren mende ere ez dira egongo honako delitu edo arau-hauste hauekoren baten modura epaitutako gertaerak zigortzen dituzten ebazpen judizialak:

Zirkulazioari buruzko legediaren kontrako jokabidea, gidatzeari eta atsedeneri buruzko legediaren eta salgai arriskutsuen garraioa arautzen duten arauen arau-hausteak barne.  
Salgaien kontrabandoa.  
Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideen arau-hausteak.  
Pertsonen aurkako mehatxuak eta indarkeria-ekintzak, kirol-ekitaldietako indarkeria barne.  
Bandalismoa.  
Lapurreta.  
Estatu emaileak erkidegoko arauak betez ezarritako arau-hausteak.

3. Babesteko Europako aginduak betearaztea eta elkarri aitortzea tipifikazio bikoitzaren kontrolarekin egingo da beti.

4. Jasotako aginduak edo ebazpen judizialak artikulua honetan aurreikusitakoa ez den delitu baten modura tipifikatutako gertaera zigortzen duenean, tipifikazio bikoitzaren betekizuna bete beharra jarri ahal izango da berau onartzeko eta gauzatzeko baldintza gisa, betiere elkarri aitortzeko tresna bakoitzarentzat legez eskatutako baldintzak betetzen badira.

Aurrekoa gorabehera, agindua edo ebazpena tributu-alorreko zigor arau-hauste batengatik ezarri bada, ebazpena betearaztea ukatzerik ez da egongo horren oinarria bada Espainiako legeriak ez duela estatu emaileko legeriaren tributu bera ezartzen edo ez duela erregulazio bera jasotzen tributuen, aduanaren eta kanbio-kontrolaren arloan.

## 21. artikulua. *Betearaztean aplikatu beharreko arauak.*

1. Beste estatu kide batek helarazitako aginduaren edo ebazpenaren betearazpenak Espainiako Zuzenbidea beteko du eta Espainiako agintaritzak judizial batek eman balu bezala gauzatuko da.

Aurrekoa gorabehera, Espainiako agintaritzak judizial eskudunak estatu emaileko agintaritzak judizialak berariaz adierazitako formalitateak eta prozedurak beteko ditu, betiere formalitate edo prozedura horiek ez badira Espainiako antolamendu juridikoaren funtsezko printzipioen aurkakoak.

2. Aginduaren edo ebazpenaren betearazpena esaten duenari doituko zaio, eta ez zaie zabalduko horrek barne hartzen ez dituen pertsonen, ondasunen edo dokumentuen, frogak lortzeko Europako exhortoarentzat xedatutakoaren kalterik gabe.

## 22. artikulua. *Aitorpena eta betearazpena jakinaraztea. Entzunaldia.*

1. Eragindakoak bizilekua edo egoitza Espainian duenean, betiere atzerriko prozedura sekretua izendatu ez bada edo hori jakinarazteak nahi den xedea deuseztatuko ez balu, betearaztea eskatutako atzerriko aginduak edo ebazpen judizialak jakinaraziko zaizkio.

Jakinarazpen hori gauzatzeak prozesuan esku hartzeko eskubidea aitortzea ekarriko du, hala egokitzen joz gero, abokatu eta prokuradorearekin agertuta.

2. Espainiako agintaritza judizialak estatu emaileko agintaritza judizial eskudunari eta Fiskaltzari lehenbailehen jakinaraziko die helarazitako agindua edo ebazpena aitortzeko edo ukatzeko ebazpena edo haren betearazteari eragin diezaiokkeen beste edozein gorabehera, bereziki hori betearazterik ez badago eta Espainiako Zuzenbidean aurreikusita ez dauden ordezeko neurriak ezin badira gauzatu.

3. Egotzitakoaren entzunaldi-eskubidea prozeduran zehar gauzatu ahal izango da telefonoz edo bideokonferentzia bidez entzunaldiak egiteko aukera aurreikusten duten nazioarteko edo Europar Batasuneko zuzenbide-instrumentuak aplikatuz.

#### 23. artikulua. *Ebazpenaren betearazpena etetea.*

1. Betearazpena etengo da legez aurreikusitako kausetakoren batengatik eta agintaritza judizial emaileak Espainiako agintaritza betearazleari jakinarazten badiu helarazitako agindu edo ebazpen judizialak betearazpen-izaera gerora galdu duela.

2. Espainiako agintaritza judizialak berehala jakinaraziko dio estatu emaileko agintaritza judizialari jasotako agindu edo ebazpen judizialaren betearazpena eten dela, bai eta etetearen arrazoiak eta, ahal bada, haren iraupena ere.

3. Etetearen arrazoiak desagertu bezain laster, Espainiako agintaritza judizialak berehala hartuko ditu neurri egokiak agindu edo ebazpen judiziala betearazteko, eta horren berri emango dio estatu emaileko agintaritza judizial eskudunari.

4. Etetearen kausagatik aurreikusgarria bada berau ez kentzea, inprimakia edo ziurtagiria, jarduketa guztiekin batera, agintaritza judizial emaileari itzuliko zaio.

#### 24. artikulua. *Errekurtsoak.*

1. Espainiako agintaritza judizialak elkarri aitortzeko Europako instrumentuei buruz ebazteko emandako ebazpenen kontra Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako arau orokorren arabera bidezkoak diren errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira.

Errekurtsioa aurkezteak aginduaren edo ebazpenaren betearazpena eten ahal izango du, baldin eta horrek egoera atzeraezinak sor baditzake edo konpondu ezin diren edo konpontzea zaila duten kalteak eragin baditzake; nolana ere, ebazpenaren eraginkortasuna bermatu ahal izateko kautelazko neurriak hartuko dira.

2. Agintaritza judizial eskudunak estatu emaileko agintaritza judizialari jakinaraziko dio errekurtsoren bat aurkeztu izana, baita haren arrazoiak zein horri buruz emandako ebazpena ere.

3. Agindua edo ebazpena hartzeko funtsezko arrazoiak agintaritza judizial emailearen estatu kideak aurkeztutako errekurtsio baten bidez baino ezin izango dira aurkaratu.

4. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu elkarri aitortzeko tresnak betearazteko Fiskaltzak emandako ebazpenen kontra, agintaritza emailearen aurreko funtsari buruzko balizko aurkaratzeen eta estatu emailean jarraitutako zigor-arloko prozedurako ondorengo balorazioaren kalterik gabe.

#### 25. artikulua. *Gastuak.*

1. Elkarri aitortzeko tresna bat gauzatzeak Espainiako lurraldean eragindako gastuak Espainiako estatuak ordainduko ditu. Gainontzeko gastuak eta, zehazki, kondenatuak lekualdatzeko gastuak eta estatu emailearen lurraldean bakarrik eragindako gastuak azken horrek ordainduko ditu.

2. Konfiskatzeko ebazpen judizialak betearazteko orduan Espainiak salbuespenezko gastuak izan baditu, agintaritza judizialak horren berri eman ahal izango du. Horrenbestez, Espainiako Justizia Ministerioari jakinarazpena igorriko dio azken horrek, egoki iritziz gero, estatu emaileari proposa diezaion eragindako gastuak banatzea eta dagokion akordioa lor dezan.

26. artikulua. *Kalte-ordainak eta diru-itzultzeak.*

Justizia Ministerioak estatu emaileari eskatuko dio Espainiako legeriarekin bat etorritz hirugarrenei eman beharreko kalte eta galeren kalte-ordain gisa ordaindu behar izan duen zenbatekoa ordaintzeko, betiere horrelakoak ez badira Espainiaren erantzukizun bakarra izan Justizia Administrazioaren funtzionamendu txarragatik edo oker judizialagatik.

27. artikulua. *Espainiako lurraldetik pertsonak igarotzea beste estatu kide batek helarazitako Europako agindu bat edo ebazpen judizial bat betearazteko.*

1. Justizia Ministerioa eskuduna izango da baimentzeko Espainiako lurraldetik igaro dadin atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat edota askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpen bat betearazteko estatutik estatu emailera lekualdatzen ari diren pertsona bat, betiere igarotzeko eskaerarekin batera ebazpena betearazteko emandako ziurtagiriaren kopia ere igortzen badio.

Justizia Ministerioak estatu emaileari eskatu ahal izango dio inprimakiaren edo ziurtagiriaren kopia bat espainierara itzulita igor diezaion.

2. Justizia Ministerioak estatu emaileari jakinaraziko dio ezin badu bermatu kondenatua ez dutela Espainian esetsiko, atxilotuko edo norbanakoen askatasunaren beste edozein murrizketa ezarriko estatu betearazletik irten aurretiko gertaera edo kondenengatik.

3. Justizia Ministerioak bere erabakiaren berri emango dio estatu emaileko agintaritzak eskudunari astebeteko epean gehienez eskaera jasotzen duenetik hasita, inprimakia edo ziurtagiria itzultzeko eskatu badu izan ezik, horrelakoetan erabakia itzulpena jaso arte atzeratu ahal izango baitu.

Pertsonaren atxiloteta ez da inola ere luzatuko igarotzeko behar den denboratik harago.

4. Igarotzeko eskaera ez da beharrezko izango eskalarik gabeko aire-zirkulazioaren kasuetan, nahitaezko lurreratzean izan ezik, azken hori gertatuz gero Justizia Ministerioak baimena emango baitu 72 orduko epean.

28. artikulua. *Espainiako agintaritzak erabakitako betearazpen batean erreklamatur hirugarren estatu kide batetik igarotzea.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat edo hirugarren estatu kide batek askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpen bat betez erreklamaturakoa igarotzea beharrezkoa denean, Espainiako agintaritzak judizial betearazleak horren berri emango dio atzerriko agintaritzak judizial emaileari, agintaritzak horrek beharrezko baimena eska diezaien igaro beharreko estatuko agintariei.

2. atala. *Elkarri aitortzeko tresna baten aitortzea edo betearazpena ukatzea*

29. artikulua. *Elkarri aitortzeko tresna baten aitortzea edo betearazpena ukatzea.*

Lege honetan araututako arrazoiaren bat dagoenean baino ezin izango da ukatu, horren arrazoiak emanda betiere, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko agintaritzak eskudunak zuzen igorritako aitortzea edo elkarri aitortzeko tresna baten betearazpena.

30. artikulua. *Informazio osagarria eskatzea.*

Aitortzea edo betearazpena ukatzea justifikatzen duen kausa bat dagoenean edota ematean edo helaraztean zuzentzeko moduko okerra egon daitekeen kasuetan, agintaritzak judizial eskudunak informazio osagarria eskatu ahal izango dio estatu emaileko agintaritzari, eta aipatutako informazioa igortzeko epea ere ezarriko du.

31. artikulua. *Immunitateak kentzeko eskaera.*

1. Baldin eta, elkarri aitortzeko tresnaren xedearekin lotuta Espainian jurisdikzio- edo betearazte-immunitatea dagoenean, Espainiako agintaritzak judizial betearazleak pribilejio hori kentzeko eskatuko du luzatu gabe, betiere hori egitea Espainiako agintaritzak baten eskumena bada. Hori kentzea beste estatu baten edo nazioarteko erakunde baten eskumena bada, betearazi nahi den agindua edo ebazpena eman duen agintaritzak judizialak egin beharko du eskaera; hartarako Espainiako agintaritzak judizial betearazleak horren berri emango dio agintaritzak emaileari.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako immunitatea kentzeko eskaeraz ebatzi arte, Espainiako agintaritzak judizial betearazleak, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen dituen kautelazko neurriak hartuko ditu immunitatea kendutakoan agindua edo ebazpena eraginkortasunez betearazten dela bermatzeko.

3. Espainiako agintaritzak judizial betearazleari immunitatea kentzearen berri ematen zaionean, Lege honetan aurreikusitako epeak zenbatzen hasiko dira dagokion betearazpena egiteko.

32. artikulua. *Eskatutako neurrien aitortpena edo betearazpena ukatzeko arrazoi orokorrak.*

1. Espainiako agintaritzak judizialak ez ditu igorritako aginduak edo ebazpenak aitortuko edo betearaziko elkarri aitortzeko tresna bakoitzarentzat araututako kasuetan eta, oro har, honako kasu hauetan:

a) Espainian edo emailea ez den beste estatu batean pertsona beraren kontra eta gertaera berberei buruz kondenatzeko edo absolbitzeko epai irmoa eman badute eta betearazteak *non bis in idem* printzipioa urratzen badu legeetan eta Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmen eta itunetan aurreikusitakoaren arabera, baita kondenatua ondoren indultatu badute ere.

b) Agindua edo ebazpena Espainiako agintariek epaitzeko eskudun diren gertaerei buruzkoa bada eta, Espainiako jurisdikzio-organo batek kondena ebatzi badu, ezarritako zehapena preskribitu bada Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik.

c) Neurriak hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko inprimakia edo ziurtagiria osatu gabe badago edo nabarmen okerra bada edo ez badio neurriari erantzuten, edo ziurtagiria falta bada, 19. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

d) Ebazpena betearaztea eragozten duen immunitatea badago.

2. Espainiako agintaritzak judizialak ebazpen baten aitortpena eta betearazpena ere ukatu ahal izango ditu, baldin eta 20. artikuluan 1. paragrafoan araututakoa ez den arau-hauste bategatik ezarri bada eta hori ez badago tipifikatuta Espainiako zuzenbidean, edo artikuluan bereko 2. paragrafoan tipifikatuta ez dagoen bategatik, hori ere Espainian tipifikatuta ez badago eta diruzko zehapenak ezartzen dituen ebazpena bada.

3. Espainiako agintaritzak judizialak agindu edo ebazpen baten aitortpena eta betearazpena ukatu ahal izango ditu, baldin eta Espainiako zuzenbideak guztiz edo zati handi edo funtsezko batean Espainiako lurraldean egindakotzat jotzen dituen gertaerei badagokie.

4. Neurrien aitortpena edo betearazpena ukatzeko erabakiak luzatu gabe eta zergatiak emanez hartu beharko dira, eta berehala jakinaraziko zaizkie agintaritzak judizial emaileari eta Fiskaltzari.

5. Artikulu honen 1. paragrafoaren c) idatz-zatian eta 3. paragrafoan zerrendatuta dauden ez aitortzeko edo ez betearazteko zergatiak ez dira aplikatuko ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko neurriei dagokienez.

33. artikulua. *Inputatua bertan egon gabe emandako ebazpenak.*

1. Espainiako agintaritzak judizialak helarazi dioten agindua edo ebazpena betearaztea ere ukatuko du, baldin eta inputatua ez bada agertu ebazpena eman duten epaiketean,



betiere horretan ez badago jasota, estatu emaileko prozesu-legegintzan aurreikusitako gainontzeko eskakizunekin bat etorritz, hauetako zirkunstantziaren bat:

a) Beharrezko aurrerapenez, egotzia zuzenean deitu zuten eta ebazpen hori ekarri duen epaiketa egiteko aurreikusitako egunaren eta tokiaren berri eman zioten, edo informazio ofizial hori benetan jaso duela agerian uzten duten beste bide batzuetatik hartu zuen, eta, gainera, agertu ezean ebazpena eman zitekeela ere jakinarazi zioten.

b) Epaiketa egiteko aurreikusitako egunaren eta tokiaren berri jasota, egotziak epaiketan defendatzeko abokatu bat izendatu zuen eta hark benetan defendatu zuen eginiko epaiketan.

c) Ebazpenaren berri eman eta epaiketa berri baterako eskubidea edo errekurtsio bat aurkezteko eskubidea (eta hasierakoaren aurkako ebazpena ekar zezakeen prozesua, non agertzeko aukera izango zuen, eragingo zuen horrek) berariaz jakinarazi ondoren, inputatuak berariaz adierazi zuen ebazpenaren aurka ez zuela egin behar, edo ez zuen epaiketa berririk hasteko eskatu edo ez zuen errekurtsorik aurkeztu horretarako aurreikusitako epearen barruan.

2. Manu hori ez zaie aplikatuko ondasunen prebentziozko enbargoa edo frogen segurtatzea eskatzen duten ebazpenei, frogak lortzeko Europako exhortoari, ezta behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurriak ezartzen dituzten ebazpenei ere.

## II. TITULUA

### Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

34. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua Europar Batasuneko estatu kide batean emandako ebazpen judiziala da beste estatu kide batek pertsona bat atxilotu eta entrega dezan, pertsona hori erreklamatzeko baitute eginbide penalak gauzatzeko edo askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat edo adingabeentzako zentro batean sartzeko neurri bat betearazteko.

35. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat emateko eta betearazteko Espainiako agintari eskudunak.*

1. Horrelako aginduak egokiak diren auziaz arduratzen den epailea edo auzitegia da atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua emateko agintaritza judizial eskuduna.

2. Auzitegi Nazionaleko instrukzioko epaile zentrala izango da agintaritza judizial eskuduna atxilotzeko Europako agindu bat betearazteko. Agindua adingabe bati buruzkoa bada adingabeen epaile zentralak izango du eskumena.

36. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren edukia.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua I. eranskinean ageri den inprimakian dokumentatuko da, informazio hau berariaz aipatuta:

- Erreklamatuak pertsonaren nortasuna eta nazionalitatea.
- Agintaritza judizial emailearen izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa.
- Epai irmo bat, atxilotzeko agindu bat edo titulu honetan aurreikusitako indar bera duen beste edozein ebazpen judizial betearazle bat dagoela adieraztea.
- Delituaren izaera eta legezko tipifikazioa.

- e) Delitua zer egoeratan egin zen deskribatzea, unea, tokia eta erreklamaturako pertsonak horretan izan zuen parte-hartze maila barne.
- f) Emandako zigorra, epai irmorik badago, edota, legeriak delitu horrentzat ezarritako zigor-eskala.
- g) Ahal izanez gero, delituaren beste ondorio batzuk.

## II. KAPITULUA

### **Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat ematea eta helaraztea**

#### 37. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren xedea.*

Espainiako agintaritza judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman ahal izango du honako kasu hauetan:

- a) Akzio penalak egiteko, Espainiako zigor-arloko legeak gutxienez hamabi hilabeteko gehieneko iraupeneko askatasunaz gabetzeko zigorra edo segurtasun-neurria edo adingabe bat epe berean erregimen itxian barneratzeko neurria zehazten duen gertaerengatik.
- b) Gutxienez lau hilabeteko askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurriko kondena bat betetzeko, edo adingabe bat epe berean erregimen itxian barneratzeko neurri bat betetzeko.

#### 38. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman aurreko deklarazioa hartzea.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman aurretik, epaile eskudunak erreklamaturako pertsona dagoen estatuari baimena eskatu ahal izango dio deklarazioa hartzeko laguntza judizialeko eskabide baten bitartez 2000ko maiatzaren 29ko Europar Batasuneko estatu kideen arteko zigor-arloko Laguntza Judizialeko Hitzarmenaren babespean.

#### 39. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat Espainian emateko betekizunak.*

1. Espainiako agintaritza judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman ahal izango du akzio penalak egiteko baldin eta, Lege honetan horretarako aurreikusitako eskakizunak beteta, horiez gain Prozedura Kriminalaren Legear aurreikusitakoak ere betetzen badira erreklamaturakoa behin-behineko espetxealdian sartzea erabakitzeke, edota adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoarenak betetzen badira, adingabe bat kautelaz barneratzea erabakitzeke.

2. Halaber, erreklamatuak zigorra bete dezan Espainiako agintaritza judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua bakarrik eman ahal izango du, baldin eta, Lege honetan horretarako aurreikusitako eskakizunak beteta, ezin bada ordeztu edo eten kondenatu duten askatasunaz gabetzeko zigorra.

3. Eman aurretik, epaileak probidentzia bidez Fiskaltzari eta, hala badagokio, akusazio partikularrari, helaraztea erabakiko du, txostena egiteko. Txosten hori egiteko bi eguneko epea izango du, premiagatik epe laburragoan egin beharra badago izan ezik. Fiskaltzak edo, hala badagokio, akusazio partikularrak, atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua akzio penalak egiteko emateko eskatzen badu baino ezin izango du epaileak, auto arrazoitu bidez, erabaki.

#### 40. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat helaraztea.*

1. Erreklamaturako pertsona non dagoen ezaguna bada, Espainiako agintaritzak judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua zuzenean jakinarazi ahal izango dio betearazteko eskumena duen agintaritzak judizialari.

2. Leku ezezagunean badago, Espainiako agintaritzak judizialak emaileak erreklamaturako pertsonaren deskribapena Schengengo informazio-sisteman sartzea erabaki ahal izango du.

3. 1. paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe, Espainiako agintaritzak judizialak edonola ere erabaki ahal izango du erreklamaturako pertsonaren deskribapena Schengengo informazio-sisteman sartzea.

4. Aipaturako deskribapen horiek 1985eko ekainaren 14ko Schengengo Ituna aplikatzeko 1990eko ekainaren 19ko hitzarmenaren, muga komunetan kontrolak pixkanaka kentzeari buruzkoaren, 95. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo dira. Schengengo informazio-sistemako deskribapen bat, 36. artikuluan ageri den informazioarekin batera, ondorio guztietarako atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten baliokidea izango da.

5. Schengengo informazio-sistemara jotzerik ez badago, Espainiako agintaritzak judizialak Interpoleko zerbitzuetara jo ahal izango du atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua jakinarazteko.

6. Espainiako agintaritzak judizialak Justizia Ministeriori bidalitako atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduen kopia bat igorriko du.

7. Barne Ministerioak Justizia Ministerioari jakinaraziko dizkio atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduak betearaziz egindako atxiloketak eta entregak.

#### 41. artikulua. *Informazio osagarria igortzea.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua helarazi ondoren, Espainiako agintaritzak judizialak hura betearazteko baliagarria izan daitekeen informazio osagarria guztia igorri ahal izango dio agintaritzak judizialak betearazleari, bai ofizioz, bai Fiskaltzak eskatuta edo, hala badagokio, akusazio partikularrak eskatuta, bai eta horrela egiten duen agintaritzak betearazleak berak eskatuta ere.

#### 42. artikulua. *Objektuak entregatzeko eskaera.*

Espainiako agintaritzak judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat ematen duenean, beharrezkoa denean, agintaritzak betearazleari eskatu ahal izango dio, betiere barneko zuzenbidearekin bat etorritik, frogabideak edo delituaren ondorioak diren objektuak emateko eta segurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko.

Eskatutako objektuen deskribapena Schengengo informazio-sisteman jasoko da.

#### 43. artikulua. *Estatu betearazlean aldi baterako entregak eta deklarazio-hartzeak eskatzea.*

1. Erreklamaturakoa aldi baterako entrega haren kontrako akzio penalak egiteko bakarrik eskatu ahal izango da, baina ez erreklamaturakoak Espainian jada ezarritako zigorra bete dezan.

2. Aldi baterako entrega eskatu ahal izango da, baita agintaritzak betearazleak behin betiko entregaz erabaki aurretik ere, eginbide penalak gauzatzeko edo ahozko ikustaldia egiteko.

3. Helburu berberaz aldi baterako entrega eskatu ahal izango da, baldin eta agintaritzak betearazleak, erreklamaturako pertsona entregatzea erabaki ostean, hori bertan behera uztea erabakitzen badu estatu betearazlean epaiketa egin gabe dagoelako edo atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua eragin zuena ez beste gertaera bategatik ezarritako zigorra bete gabe duelako.

44. artikulua. *Erantzuna entrega baldintzatuko kasuetan.*

Baldin eta agintaritzea betearazleak bere nazionala edo egoiliarra entregatzeko baldintzatzen jartzen badu estatu betearazlerak itzul dezaten Espainian haren kontra eman litekeen askatasunaz gabetzeko zigorra edo segurtasun-neurria edo adingabe baten barneratzeko neurria bete dezan, Espainiako agintaritzea judizial emaleari horretarako eskaera egiten zaionean, epaileak edo auzitegiak bertaratutako alderdiei hiru egunez entzungo die eta horren ostean autoa emango du baldintza onartuz edo ez.

Askatasunaz gabetzeko zigorraren edo neurriaren betearazpena beste estatura transmititzeko konpromisoa hartzeko autoa loteslea izango da Espainiako zigor-arloko prozeduraren ondorengo faseetan eskumena duten agintaritzea judizial guztientzat.

45. artikulua. *Erreklamaturia espainiar agintari judizial emalearen eskuetan jarriz gero jarraitzeko prozedura.*

1. Atxilotzeko eta entregatzeko agindua akzio penalak egiteko emanaz gero, erreklamaturia agindua eman zuen Espainiako agintaritzea judizialaren esku jartzean, horrek agerraldia deituko du Prozedura Kriminalaren Legean edo, hala badagokio, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoan aurreikusitako epeetan eta moduan, atxiloaren egoera pertsonalaz ebazteko. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua bat betearazteagatik erreklamaturia askatasun-gabeziako egoeran izan den aldi oro kenduko du Espainiako agintaritzea judizialak behin-behineko gehieneko espetxealditik.

2. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua eman badute zigortuak askatasunaz gabetzeko zigorra bete dezan, agindua eman zuen Espainiako agintaritzea judizialaren esku erreklamaturia jartzen dutenean, horrek espetxean zigortu modura sartzea dekretatuko du Europako agindua ematea eragin zuen kausagatik. Espainiako agintaritzea judizialak askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri baterako kondenaren ondorioz Espainian bete beharreko askatasun-gabeziako aldi osotik kenduko du atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua bat betearaztearen ondoriozko askatasun-gabeziako aldi oro.

46. artikulua. *Justizia Ministerioari gorabeheren berri ematea.*

Espainiako agintaritzea judizialak Justizia Ministerioari jakinaraziko dizkio estatu betearazleari egotz dakizkiokkeen atxilotua entregatzeko epeen ez-betetzeak, bai eta Espainiak emandako atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduak aitortzeari eta betearazteari behin eta berriz egindako ukoak edo jarritako zailtasunak ere.

Justizia Ministerioak Eurojust erakundeari jakinaraziko dizkio aurreko lerrokadan adierazitako ez-betetze errepikatuak Espainiak emandako atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduen betearazpenei dagokienez.

### III. KAPITULUA

#### **Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua baten betearazpena**

47. artikulua. *Entrega eragiten duten gertaerak.*

1. Baldin eta atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua 20. artikuluan 1. paragrafoan zerrendatutako delitu-kategorietako bateko delitu bategatik eman bada eta aipatutako delituari estatu emalean askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat edo adingabea erregimen itxian barneratzeko neurri bat ezartzen bazaio, betiere horren gehieneko iraupena, gutxienez, hiru urtekoa bada, erreklamaturia pertsona gertaeren tipifikazio bikoitzaren kontrolik gabe entregatzea erabakiko da.

2. Aurreko paragrafoan jasotako gainontzeko kasuetan, baldin eta estatu emalean askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri batekin edo adingabe bat erregimen itxian barneratzeko neurri batekin zigortuta badaude eta horren gehieneko iraupena, gutxienez, hamabi hilabetekoa bada, edo erreklamaturia xedea bada gutxienez lau

hilabeteko askatasun-gabeziako zigor edo segurtasun-neurri baterako kondena betetzea, entregatzeko baldintza gisa jarri ahal izango da atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua ematea eragin duten gertaerak delitu izatea Espainiako legeriarekin bat etorriz, osatzen duten elementuak edo haren kalifikazioa gorabehera.

48. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten betearazpena ukatzea.*

1. Espainiako agintaritza judizial betearazleak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua betearazteari uko egingo dio, 32. eta 33. artikuluetan aurreikusitako kasuetan zein honako kasu hauetan:

a) Erreklamaturako pertsona Espainian indultatu badute atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua oinarritzen den gertaera berberengatik ezarritako zigorretik eta hori Espainiako jurisdikzioaren aldetik jazargarria bada.

b) Espainian gertaera berberengatik behin betiko largestea erabaki bada.

c) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagokion pertsonak behin betiko ebazpena jaso badu Europar Batasuneko beste estatu kide batean gertaera berengatik eta horrek eragozten badu ondoren eginbide penalak gauzatzea.

d) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagokion pertsona Europar Batasuneko kidea ez den estatu batean behin betiko epaitu badute gertaera berengatik, betiere, zigortu badute, zehapena betearazi badute edo uneotan betearaztear badago edo jada ezin bada betearazi kondena ezarri duen estatuko Zuzenbidearen arabera.

e) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagokion pertsona, duen adina dela eta, oraindik ezin bada agindua eragin duten gertaeren erantzule penaltzat hartu Espainiako zuzenbidearen arabera.

2. Espainiako agintaritza judizial betearazleak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua betearazteari uko egin ahal izango dio honako kasu hauetan:

a) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagokion pertsonari atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua eragin duen gertaera beragatik Espainian zigor-arloko prozedura hasi diotenean.

b) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat betearazteko eman dutenean, erreklamaturako pertsona Espainiako nazionalitatekoa izanik, horrek zigorra estatu emailean betetzea onartzen badu izan ezik. Hala egin ezean, zigorra Espainian bete beharko du.

c) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua estatu emailetik kanpo eginiko gertaerei buruzkoa bada eta Espainiako zuzenbideak ez badu baimentzen horrelako arau-hausteak jazartzea bere lurraldetik kanpo egin badituzte.

49. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten betearazpena ukatzea, inputatua bertan egon gabe eman delako.*

1. 33. artikuluan aurreikusitako kasuetan ez ezik, Espainiako agintaritza judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren betearazpena ukatu ahal izango du, baldin eta inputatua ez bada ebazpena eragin duen epaiketan agertu, betiere atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduan jasota ez badago, estatu emaileko prozesu-legerian aurreikusitako gainerako eskakizunekin bat etorriz, ebazpena ez zaiola inputatuari zuzenean jakinarazi baina entregatu ondoren luzatu gabe jakinaraziko zaiola; une horretan, orobat, beste epaiketa baterako edo errekurtsua jartzeko eskubidea duela ere jakinaraziko zaio, horretarako aurreikusitako epeak barne, eta aurkezteko eskubidea izango zuen beste prozesu horrek hasierakoaren kontrako ebazpena ekar zezakeela.

2. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat askatasunaz gabetzeko zigor bat edo atxilotzeko agindu bat aurreko paragrafoko baldintzekin bat etorriz betearazteko ematen bada eta interesdunak ez badu aurretiaz bere kontrako akzio penal horren gaineko informazio ofizialik jaso, pertsona horrek, atxilotzeko eta entregatzeko Europako

aginduaren edukiaren berri ematen diotenean, entregaren aurretik epaiaren kopia jasotzea eskatu ahal izango du, ondorio informatibo soiletarako.

Agintaritza emaileak, Espainiako agintaritza judizialaren bitartez, interesdunari berehala emango dio epaiaren kopia, eta eskaera horrek ez du inola ere entregatzeko prozedura luzatuko, ezta atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua betearazteko erabakia ere.

3. Pertsona bat artikulua honen 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzetan entregatzen badute eta beste prozesu bat eskatu edo errekurtsio bat jarri badu, atxilotzea berrikusiko da, aldi behin edo interesdunak eskatuta, estatu emaileko legeriarekin bat etorritik betiere, harik eta jarduketak amaitzen diren arte bertan behera utzi edo eten behar den erabakitzeke.

50. artikulua. *Atxilotzea eta agintaritza judizialaren esku jartzea.*

1. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu batek eragindako pertsonak Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako moduan zein baldintza eta bermeekin atxilotuko dira.

2. Atxilotu eta gehienez hirurogeita hamabi orduko epean Auzitegi Nazionalako instrukzioko epaile zentralaren esku jarriko dute atxilotua. Horren berri emango zaio agintaritza judizial emaileari.

3. Atxiloa epailearen esku jarrita, hauek jakinaraziko zaizkio: atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagoela, haren edukia, epailearen aurreko entzunaldiaren izapidea eta estatu emailearako entrega ezeztazina onartzeko aukera duela, bai eta dagozkion gainontzeko eskubideak ere.

51. artikulua. *Atxilotuari entzutea eta entregatzeari buruzko erabakia hartzea.*

1. Atxiloaren entzunaldia gehienez hirurogeita hamabi orduko epean egingo da epailearen esku jartzen dutenetik, eta horretan Fiskaltzak, atxiloaren abokatuak eta, behar izanez gero, interpretatzaileak parte hartuko dute; Prozedura Kriminalaren Legean atxiloaren deklarazioaz aurreikusitakoarekin bat etorritik egin beharko da, orobat. Horrez gain, defentsa-eskubidea bermatuko da eta, legez hala dagokionean, doako laguntza juridikoa.

2. Lehenik eta behin, atxiloari entregari onarpen ezeztazina emateari buruz entzungo zaio.

Atxiloa espainiarra edo Espainiako egoiliarra izanez gero, estatu emaileak haren kontra eman dezakeen askatasunaz gabetzeko zigorra edo segurtasun-neurria betetzeko Espainiara itzultzeko eskatzen duen ere entzungo zaio.

3. Atxiloak entrega onartzen badu, horren berri jasotzen duen akta egingo du, eta berau atxiloak, horren abokatuak eta, hala dagokionean, interpreteak sinatuko dute, bai eta fiskalak eta epaileak ere. Akta horretan bertan espezialitate-printzipioari heltzeko uko egiten diola ere jasoko dute, hala izan bada.

Nolanahi ere, atxiloak entrega askatasun osoz eta ondorio guztien, bereziki ezeztazina izatearen, jakitun dela onartu duen egiaztatuko du Instrukzioko epaile zentralak. Gauza bera egingo du, halaber, espezialitate-printzipioari heltzeari uko egiteari dagokionez.

4. Eragindako pertsonak estatuko emaileari entregatzea onartu badu eta Instrukzioko epaile zentralak ez badu entrega hori ukatzeko edo baldintzatzeko kausarik, estatu emaileari entregatzea auto bidez erabakiko du. Auto horren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri.

5. Onartu ezean, Instrukzioko epaile zentralak alderdiak deituko ditu ikustaldia egiteko; ikustaldi hori gehienez hiru eguneko epean egingo da, eta horretan Fiskaltzak, erreklamaturako pertsonak, abokatuak lagunduta, eta beharrezkoa izanez gero, interpreteak parte hartuko dute. Entrega ukatzeko edo baldintzatzeko kausen gainean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira ikustaldi horretan. Instrukzioko epaile zentralak horrelakoei buruz entzungo die alderdiei eta alegatutako kausak egiaztatzeko proposatutako frogak onartu edo ukatuko du.

6. Froga entzunaldian egiterik ez badago, epaileak horretarako epea jarriko du, Lege honetan aurreikusitako gehieneko epeak bete beharra dagoela kontuan harturik betiere.

7. Erreklamaturako pertsona behin-behineko askatasunean gelditu eta ez bada ikustaldira agertu Instrukzioko epaile zentralaren aurreko agerraldian hartarako behar bezala deituta egon arren, hura gabe egingo da eta zuzenbidean dagokion moduan ebatziko da.

8. Instrukzioko epaile zentralak auto bidez ebatziko du gehienez ikustalditik hamar eguneko epean. Auto horren aurka zuzeneko apelazioko errekurtsioa jarri ahal izango dute Auzitegi Nazionaleko zigor-arloko salaren aurrean, Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako moduan, eta horrek lehentasunezko izaera izango du.

52. artikulua. *Erreklamaturako pertsona aldi baterako lekualdatzeko edo hari deklarazioa hartzeko erabakia.*

1. Emandako atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren helburua akzio penalak egitea denean, agintaritza judizial emaileak hala eskatzen badu, Instrukzioko epaile zentralak hauetako bat erabakiko du, Fiskaltzari hiru eguneko epean entzunda: erreklamaturako pertsonari deklarazioa hartzea edo pertsona hori estatu emailera aldi baterako lekualdatzea.

2. Espainiara bertaratutako agintaritza judizial emaileak hartuko dio deklarazioa erreklamaturako pertsonari, estatu emaileko zuzenbidearekin bat etorritik izendatutako pertsonak parte hartuta, hala badagokio; halaber, interprete bat ere izendatu beharko da eginbidearen funtsezko alderdiak espainierara itzultzeko. Espainiako agintaritza judizialaren aurrean egin beharko dute, eta Espainiako legearen arabera eta bi agintaritza judizialak hitzartutako baldintzak betez egiten dela zainduko du horrek; aipaturako baldintzetan estatu emaileko legeriak xedatutako eskakizunak eta formalitateak jaso ahalko dira, betiere gure antolamendu juridikoaren funtsezko printzipioen aurkakoak ez badira. Nolanahi ere, atxiloaren abokatu-laguntzarako eskubidea, bere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea eta erruduna dela ez aitortzekoa errespetatuko dira, baita interprete baten laguntza jasotzeko eskubidea ere.

Eginbide horretan idazkari judizialak ere parte hartuko du, artikulua honetan aurreikusitako baldintzak eta prozeduraz arduratzen diren agintaritza judizialek hitzartutakoak betetzen dituztela jasoko baitu.

3. Atxiloa aldi baterako lekualdatzea erabakiz gero, agintaritza judizial emailearekin adostutako baldintzetan eta iraupenarekin egingo da. Edozelan ere, erreklamaturako pertsona Espainiara itzuli beharko da entregatzeko prozeduraren esparruan dagozkion ikustaldietan parte har dezan.

53. artikulua. *Erreklamatuaren egoera pertsonala.*

1. Instrukzioko epaile zentralak, 51. artikuluan aipaturako entzunaldiaren edo ikustaldiaren barruan, betiere Fiskaltzari entzunda, behin-behineko espetxeratzea edo behin-behineko askatasuna dekretatuko du, erreklamaturako atzemateko moduan dagoela bermatzeko beharrezko eta neurrizko kautela-neurriak hartuta, betiere Prozedura Kriminalaren Legearen aurreikuspenekin bat etorritik.

2. Kasuaren gorabeherak eta atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua betearaztea bermatzeko xedea kontuan hartuta ebatziko du epaileak.

3. Prozeduraren edozein unetan eta kasuaren gorabeherari kasu eginez, epaileak, Fiskaltzari entzunda, behin-behineko espetxealdia etetea erabaki ahal izango du, baina horrelakoetan artikulua honen 1. paragrafoan aipaturako kautela-neurriren bat edo batzuk hartu beharko ditu.

4. Artikulu honek aipaturako ebazpen judizialen kontra apelazioko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Auzitegi Nazionaleko zigor-arloko salaren aurrean, 51. artikulua 8. paragrafoan ezarritako baldintza beretan. Ikustaldia egingo da alderdietako batek hala eskatzen duenean.

54. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betearazteko epeak.*

1. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua premiaz izapidetu eta betearaziko da.
2. Erreklamaturako pertsonak entrega onartzen badu, entzunaldia egin ondoko hamar eguneko epean hartu beharko du epaileak ebazpena.
3. Onartu ezean, ebazpen irmoa hartzeko gehieneko epea atxilotu eta hirurogei egunekoa izango da.
4. Justifikaturako arrazoiagatik erabakia ezin bada aipaturako epe horren barruan hartu, epea beste hogeita hamar egun gehiagoz luzatu ahal izango da. Horren berri emango zaio agintaritzak judizial emaileari, baita arrazoiaren berri ere, eta bitartean entregarako beharrezko baldintzei eutsiko diete.

55. artikulua. *Baldintzapean entregatzeko erabakia.*

1. Baldin eta atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua oinarrituta dagoen arau-haustea askatasunaz betiko gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri batekin zigortuta badago, Espainiako agintaritzak judizialak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua betearazteko baldintza izango da estatu kide emaileak ordenamenduan zigorraren berrikuspenera jasota eduki dezan, edota pertsonak barkaberatasun-neurriari heldu ahal izateko aukera egon dadin zigor edo neurri hori ez betetzeko.
2. Halaber, akzio penal bat egiteko atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren eraginpeko pertsona espainiar nazionalitatekoa edo Espainiako egoiliarra bada, horren gainean entzun ondoren, entregarako baldintzatzat jarri ahal izango da Espainiara itzul dezaten estatu emaileak eman lezakeen askatasunaz gabetzeko zigorra edo segurtasun-neurria betetzeko. Baldintza hori betetzea askatasunaz gabetzeko zigorrak edo neurriak betetzea ebazteko xedaturakoaren bitartez.

56. artikulua. *Entrega eteteko erabakia.*

Erreklamaturako pertsonak Espainiako jurisdikzioaren aurrean zigor-arloko prozesuren bat ebazteke badu atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua ekarri duena ez beste gertaera bategatik, Espainiako agintaritzak judizialak, agindua betearaztea ebatzi arren, entrega eten ahal izango du, harik eta epaiketa egiten den edo ezarritako zigorra betetzen duen arte.

Horrela gertatuz gero, Espainiako agintaritzak judizialak erreklamaturako pertsona aldi baterako entregatzea erabakiko du, agintaritzak judizial emaileak hala eskatzen badu, azken horrekin idatziz hitzartutako baldintzak betez, zeinak estatu kide emaileko agintaritzak guztientzat lotesleak izango diren.

57. artikulua. *Zenbait eskaera batera egindako kasuetan erabakia hartzea.*

1. Bi estatu kidek edo gehiagok atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman badute pertsona berari dagokionez, Instrukzioko epaile zentralak hartuko du betearaztearen lehentasunari buruzko erabakia, Fiskaltzari entzunaldia egin ostean; hartarako, gorabehera guztiak hartuko ditu kontuan, bereziki delituen tokia eta larritasun erlatiboa zein aginduen datak, bai eta agindua jazarpen penalerako edo askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat betearazteko eman duten ere.

2. Aldi berean gertatzen badira atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eta hirugarren estatu batek aurkeztutako estradizio-eskaera bat, Espainiako agintaritzak judizialak prozedura etengo du eta dokumentazio guztia Justizia Ministerioari igorriko dio. Lehentasuna atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduari edo estradizio-eskaerari eman beharri buruzko erabaki-proposamena Justiziako ministroak egingo dio Ministroen Kontseiluari, gorabehera guztiak kontuan hartuta, bereziki 1. paragrafoan jasotakoak eta aplikatu beharreko hitzarmen edo akordioan aipaturakoak. Izapide hori Estradizio pasiboari buruzko martxoaren 21eko 4/1985 Legean ezarritakoaren arabera arautuko da.



3. Estraditatzeko eskaerari lehentasuna ematea erabakiz gero, horren berri emango zaio Espainiako agintaritzak judizialari eta honek agintaritzak judizial emaileari jakinaraziko dio.

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduari lehentasuna ematea erabakiz gero, Espainiako agintaritzak judizialari jakinaraziko zaio prozedura eten zen izapidean jarrai dezaten.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ulertzen da Nazioarteko Zigor Auzitegiaren estatutuak dakartzan betebeharren kalterik gabe.

#### 58. artikulua. *Erreklamaturako pertsona entregatzea.*

1. Erreklamaturako pertsona Espainiako agintaritzako agenteek entregatuko dute, agintaritzak judizial emaileak horretarako izendaturako agintaritzari finkaturako tokia eta eguna jakinarazi ondoren, betiere entregatzeko epailearen erabakiaren osteko hamar eguneko epearen barruan.

2. Estatu emaile edo beterazleetako baten kontroletik kanpoko kausengatik epe horretan egiterik ez balego, esku hartzen duten agintaritzak judizialak berehala jarriko dira harremanetan beste egun bat finkatzeko, hasiera batean finkaturako egunetik aurrerako hamar eguneko beste epe baten barruan.

3. Salbuespen gisa, agintaritzak judizialak entrega behin-behineko geldiarazi ahal izango du arrazoi humanitario larriak direla eta, baina berau egin beharko dute aipaturako arrazoiak desagertzen direnean. Aipaturako arrazoiak desagertzen direnean erabakitako egun berriaren osteko hamar eguneko epearen barruan egingo da entrega.

4. Erreklamaturako pertsonaren entrega Espainian zigor-arloko prozesuren bat ebazteke duelako eta askatasunaz gabetuta dagoelako eteten edo atzeratzen bada, bermatu beharko dute atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren prozeduraz arduratzen den Espainiako agintaritzak judizialari erreklamaturako pertsona aske noiz utzi behar duten jakinarazten zaiola, haren egoera pertsonalari buruz dagokion erabakia berehala har dezan agintaritzak betearazleari entregatzeko.

Erreklamaturako pertsona kondena betetzen ari bada, espetxeak atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren prozeduraz arduratzen den Espainiako agintaritzak judizialari jakinarazi beharko dio kondena beteko duen eguna, gutxienez hamabost egun lehenago, era horretan haren egoera pertsonalari buruz dagokion erabakia hartu ahal izan dezan.

Erreklamaturako pertsona behin-behineko espetxeratuta badago Espainian hasitako auzi bategatik, prozedura horretaz arduratzen den epaitegiak erreklamaturak berehala jarriko du atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren prozeduraz arduratzen den Espainiako agintari judizialaren esku, eta beharrezko aurrerapenaz jakinaraziko dio bere prozeduran aske uzteko hartutako erabakia, hirurogeita hamabi orduko epean haren egoera pertsonalari buruzko erabakia hartu eta entrega betearaztea bermatzeko.

5. Entregarako gehieneko epeak igarotzen badira eta estatu emaileak ez badu erreklamaturako pertsona jaso, pertsona hori aske utziko dute edo, Espainian auziren bat ebazteke badu, Prozedura Kriminalaren Legearen arabera egokiak diren neurriak aplikatuko dira; hori ez da oinarria izango, halere, gertaera berak oinarri dituen atxilotzeko eta entregatzeko ondorengo Europako agindu bat betearazteari uko egiteko.

6. Edozelan ere, entregatzeko unean, atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagokion pertsona askatasunaz gabetuta egondako aldia jakinaraziko dio idazkaritzak judizialak agintaritzak judizial emaileari, ezartzen zaion zigor edo segurtasun-neurritik ken dezaten; horrez gain, atxiloak espezialitate-printzipioari uko egin zion ere jakinaraziko dio.

#### 59. artikulua. *Objektuak entregatzea.*

1. Agintaritzak judizial emaileak eskatuta edo bere ekimenez, Instrukzioko epaile zentralak, barneko zuzenbidearekin bat etorritik, delituaren frogabide edo ondorio diren objektuak atzeman eta entregatuko ditu, betiere Espainiako estatuak edo hirugarrenek

horrelakoen gainean izan litzaketen eskubideak alde batera utzi gabe. Hala bada, epaiketa amaituta, itzuli egingo dituzte.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako objektuak entregatu beharko dituzte atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua erreklamaturako pertsonaren heriotza edo ihesagatik egiterik ez badago ere.

3. Ondasunak Espainian enbargatuta edo konfiskatuta badaude, Espainiako agintaritzak judizialak entrega ukatu edo aldi baterako egin ahal izango du, betiere hori beharrezkoa bada ebazteke dagoen zigor-arloko prozesurako.

#### IV. KAPITULUA

##### Beste xedapen batzuk

60. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betearazteko espezialitate-printzipioa aplikatzea.*

1. Pertsona bat entregatu aurretik egindako arau-hausteengatik, Espainiako estatura entregatzea eragin zuena ez bezalakoak izanik, ezarritako askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat betearazteko asmoz auzipetu, kondenatu edo atxilotzeko adostasuna edo baimena dagoela joko da, baldin eta agintaritzak judizial betearazleko estatuak Europar Batasuneko Kontseiluko Idazkari Nagusiari horren aldeko adostasuna jakinarazi badio, betiere kasu partikular batean agintaritzak judizial betearazleak aurkakoa adierazten ez badu entregatzeko ebazpenean.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpena jakinarazi ezean, Espainiara entregatutako pertsona ezin izango da prozesatu, kondenatu edo askatasunaz gabetu entregaren aurretik eginiko eta entrega eragin duena ez beste arau-hauste bategatik, betiere estatu betearazleak horretarako baimena ematen ez badu. Hartarako, Espainiako agintaritzak judizial emaileak baimen-eskaera bat aurkeztuko dio agintaritzak judizial betearazleari 36. artikuluan aipatutako informazioarekin batera.

3. Estatu betearazlea Espainia izanez gero, 1 paragrafoan aipatutako jakinarazpena Kontseiluko Idazkaritzak Nagusiari egin arte, estatu emaileak aurreko paragrafoan aipatutako baimena eskatu beharko du pertsona bat entregatu aurretik egindako arau-hausteengatik, entrega hori eragin zuena ez beste batzuegatik, askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat betearazteko asmoz auzipetu, kondenatu edo atxilotu ahal izateko.

Fiskaltzari bost egunez entzungo zaio baimenaz ebazteko. Hori egin ondoren, abokatuak izendatu beharko da erreklamatuaren interesak defendatzeko, horrelakorik ez badu, eta horren berri emango zaio alegazioak bost eguneko epean aurkeztu ahal izan ditzan. Instrukzioko epaile zentralak auto arrazoitu bidez ebatziko du hamar eguneko epean, eta gehienez hogeita hamar eguneko epea egongo da, jasotzen denetik hasita, eskaeraren izapideak egiteko. Baimena emango da atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betearazteko baldintzak badaude eta horren betearazpena ukatzeko aurreikusitako kausarik ez badago.

4. Aurreko paragrafoak ez dira aplikatuko ondoko egoeraren bat gertatzen bada:

a) Pertsonak entregaren aurretik espezialitate-printzipioari berariaz uko egitea agintaritzak judizial betearazlearen aurrean.

b) Pertsonak entregaren ostean espezialitate-printzipioari heltzeari uko egitea entregaren aurretiko arau-hauste jakin batzuei dagokienez. Estatu kide emaileko agintaritzak judizial eskudunaren aurrean egin behar da ukapena, eta horren akta egingo da estatu horretako barne-zuzenbidearekin bat etorritik. Pertsonak borondatez eta horrek dakartzan ondorioen jakitun egin duela agerian uzteko moduko baldintzetan egingo da ukapena. Hartarako, pertsonak abokatu baten laguntzarako eskubidea izango du.

c) Pertsonak entregatu duten estatu kideko lurraldetik irteteko aukera izatea eta hori ez egitea berrogeita bost eguneko epean, behin betiko askatasunean jarri dutenetik zenbatzen hasita, edota lurralde horretara itzultzea handik irten ondoren.

d) Arau-haustea askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri batekin zehagarria ez izatea.

e) Zigor-arloko prozesua ez amaitzea norberaren askatasuna murrizten duen neurri bat aplikatuz.

f) Pertsona lotuta egotea askatasunaz gabetzen ez duen zigor edo neurri bati, diruzko zehapenak barne, edo neurri baliokide bati, zigor edo neurri horrek norbanakoen askatasuna murriztuta ere.

## 61. artikulua. *Estradizio baten ostean entregatzea.*

1. Erreklamaturako pertsona Espainiara hirugarren estatu batetik estraditatu badute eta pertsona hori estraditatzeko egindako akordioaren espezialitate-printzipioari buruzko xedapenek babestuta badago, Espainiako agintaritzak judizial betearazleak estraditatu duen estatuaren baimena eskatuko du estatu emailera entregatu ahal izateko. 54. artikuluan jasotako epeak zenbatzen hasiko dira espezialitate-printzipioari buruzko arau horiek aplikatzeari uzten dioten egunetik aurrera.

2. Baimena izapidetu bitartean, Espainiako agintaritzak judizial betearazleak entregatzeko beharrezko baldintza materialak oraindik daudela bermatuko du.

## 62. artikulua. *Ondorengo estradizioa.*

1. Pertsona bat atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betez Espainiara entregatu dutenean, Europar Batasuneko kidea ez den estatu batek ondoren haren estradizioa eskatzen badu, estradizio hori ematerik ez da egongo entregatzea erabaki zuen agintaritzak judizial betearazlearen adostasunik gabe, eta hartarako, Instrukzioko epaile zentralak beharrezko eskaera egingo du.

2. Baldin eta Espainiako agintaritzak judizialak pertsona bat Europar Batasuneko beste estatu kide batera entregatzea erabaki badu atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat betez, eta agintaritzak judizial emailak baimena eskatzen badiu Europar Batasuneko kidea ez den hirugarren estatu batera estraditatzeko, aipaturako baimen hori Espainiak parte hartzen duen alde biko edo alde askotako hitzarmenekin bat etorritik emango da, eta baimenaren eskaera estradizio-esketzat hartuko da ondorio horietarako.

## III. TITULUA

### **Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena**

#### I. KAPITULUA

##### **Xedapen orokorrak**

## 63. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena.*

1. Titulu honetan estatu kide bateko eskudun agintaritzak zigor-arloko prozesu baten ostean emandako ebazpen judizial irmoak aitortzeko eta betearazteko erregimena arautzen da. Epaia horien bitartez pertsona fisiko bat askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri batera kondenatzen dute zigor arau-hauste bat egiteagatik; horien barruan adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoarekin bat etorritik ezarritako barnealdi-neurriak ere sartzen dira.

2. Titulu honetan xedaturakoa betearazi gabe, guztiz edo zati batez, dauden zigor edo neurriei bakarrik aplikatzen zaie. Guztiz betetzen direnean, honako lege organiko honen arabera arautuko dira zigor-arloko prozesu berri batean: 7/2014 Lege Organikoa, azaroaren 12koa, Europar Batasunean zigor-aurrekarien informazioa trukatzeari eta zigor-arloko ebazpen judizialak aintzat hartzeari buruzkoa.

64. artikulua. *Espainian askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eta betearazteko eskumena duten agintari judizialak.*

1. Espetxe-zaintzako epaileak dira eskudun askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko, baita adingabeen epaileak ere adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoarekin bat etorritz ezarritako neurriei dagokienez. Kondena betetzen hasi ez denean, epaia lehen auzialdian eman duen auzitegia izango da eskudun agintaritzaren.

2. Zigor-arloko epaile zentrala izango da eskudun agintaritzaren askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena aitortzeko eta betearaztea erabakitzeko. Espetxe-zaintzako epaile zentrala izango da eskuduna hura betearazteko. Ebazpena adingabe bat erregimen itxian barneratzeko neurri bati buruzkoa bada adingabeen epaile zentralak izango du eskumena.

3. Agintaritzaren judizialak Espainian helarazi edo aitortutako ziurtagirien kopia bat igorriko du Justizia Ministeriora hiru eguneko epean, horiek ematen edo aitortu eta betearazten dituztenetik zenbatzen hasita.

## II. KAPITULUA

### **Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helaraztea**

65. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eskaerak.*

1. Espainiako agintaritzaren judizialak ofizioz helarazi ahal izango du askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena, baita estatu betearazleak edo kondenatuak eskatuta ere.

Kondenatuak ebazpena helarazteko prozedura hasteko eskaera Espainiako edo estatu betearazleko agintaritzaren eskudunaren aurrean egin ahal izango du.

Estatu betearazleko agintaritzaren eskudunaren eta kondenatuaren eskaerak ez dute Espainiako agintaritzaren judiziala ebazpena helaraztera behartuko.

2. Kondena betearazten hasi aurretik, betiere kondenatua besteren bat betetzen ari ez bada, epaia eman duen epaile edo auzitegiak, epaia irmoa denean, ebazpena helarazi ahal izango dio estatu betearazleko agintaritzaren eskudunari, bai zuzenean bai espetxe-zaintzako epailearen bitartez.

66. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko betekizunak.*

1. Espainiako agintaritzaren judizial eskudunak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpen bat helarazi ahal izango dio Europar Batasuneko beste estatu kide bateko eskudun agintaritzari, betiere baldintza hauek betez gero:

a) Kondenatua Espainian edo estatu betearazlean egotea.

b) Espainiako agintaritzaren judizialak, hala dagokionean estatu betearazleari galdetu ostean, iriztea estatu betearazleak kondena betearazten badu hori lagungarria izan daitekeela kondenatua errazago gizartera dadin.

c) Kondenatua ados agertzea, horren beharrik ez badago izan ezik, hurrengo artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri baterako kondenaz gain, oraindik ordaindu ez den diruzko zehapena edo konfiskatzea ere ezarri izanak ez du eragotziko askatasunaz gabetzeko zigorrak edo neurriak ezartzen dituen ebazpena helaraztea. Epaile edo auzitegi epai-emaileak konfiskatzeko edo diruzko zehapenak jartzeko emandako ebazpen judizialak helaraztea babestu ahal izango dute ondare-arloko kondenatuen ebazpenak.

3. Ebazpena helarazi aurretik, agintaritzaren judizial eskudunak segurtatuko du ez dagoela kondenatutakoari dagokionez irmo bihurtu gabeko kondenatuen ebazpenak.

67. artikulua. *Kondenatuaren adostasuna.*

1. Espainiako agintaritzak judizial eskudunak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena beste estatu kide bati aitortu eta betearaz dezan helarazteko aurretik kondenatuak horretarako baimena eman beharko du eskudun agintaritzak judizialaren aurrean; hartarako, gainera, abokatuak, eta hala badagokio, interpreteak lagunduta, egon beharko da eta, aurretik, entzunaldiaren eta baimenaren xedea zein den azaldu beharko diote modu argi eta ulergarrian.

2. Baimen hori ez da beharrezkoa izango, dena den, estatu betearazlea hauetako bat bada:

a) Kondenatuaren nazionalitateko estatua, betiere horrekin loturak baditu ohiko bizilekuari zein familia-, lan- edo lanbide-harremanei dagokienez.

b) Epaian edo epaiaren ondoriozko epaile- edo administrazio-ebazpen batean jasotako kanporatzeko edo lekualdatzeko agindu bat oinarri hartuta kondenatua aske utzitakoan kanporatu beharreko estatu kidea.

c) Espainian kondenatuaren aurka hasitako zigor-arloko prozesuaren aurrean edo Espainian kondenatu dutelako pertsona horrek ihes egin duen edo itzuli den estatu kidea.

3. Nolanahi ere, agintaritzak judizial eskudunak Espainian dagoen kondenatuari aukera emango dio bere iritzia hitzez edo idatziz eman dezan. Iritzi hori kontuan hartuko da ebazpena helarazteaz erabakitzean, eta estatu betearazleko agintaritzari igorriko zaio gainerako agiriekin batera.

Kondenatuak, adina edo egoera fisikoa edo psikikoa dela eta, iritzia ematerik ez badu, haren legezko ordezkariaren bitartez bilduko da hori.

68. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteari buruzko kontsultak estatu emailearen eta estatu betearazlearen artean.*

1. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazi aurretik, ebazpena transmititzea kondenatua errazago gizarteratzeko lagungarria izango dela ondorioztatzea dakarten alderdiei buruzko kontsulta egin ahal izango dio agintaritzak judizial eskudunak estatu betearazleko agintaritzak eskudunari, horretarako egokiak diren bide guztiak erabiliz.

2. Kontsulta hori nahitaezkoa izango da ebazpena kondenatua bizi eta nazionala den edo aske utzitakoan kanporatu behar duten estatura ez beste estatu betearazle batera helarazten denean.

3. Estatu betearazleak egindako kontsultari erantzuten dionean, agintaritzak judizial eskudunak ebazpena helarazten duen edo, jada helarazita badago, kentzen duen erabakiko du.

69. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren dokumentazioa.*

Agintaritzak judizial eskudunak kondena-epaia Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearaztea erabaki ondoren, aipatutako epaia agintaritzak eskudunari helaraziko dio II. eranskinean ageri den ziurtagiriarekin batera (behar bezala beteta).

70. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren helarazpenaren jakinarazpena.*

Agintaritzak judizial eskudunak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helaraztea erabakitzeke emandako autoa zuzenean jakinaraziko zaio kondenatuari, beharrezkoa bada interpreteak lagunduta, betiere III. eranskineko ziurtagiriarekin bat etorritz.

Autoa ematean kondenatua estatu betearazlean badago, III. eranskineko ziurtagiria hango agintaritzak judizial eskudunari helaraziko zaio jakinarazpena egin dezan.

71. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren helarazpena.*

1. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena estatu betearazle bakarrari helaraziko zaio.

2. Estatu kide hauetako bati helarazi ahal izango zaio:

a) Kondenatua nazionala den eta ohiko bizilekua duen estatuari.  
b) Kondenatua nazionala den eta, epaiarekin edo administrazio-ebazpenarekin bat etorriz, aske jarritakoan kanporatuko duten estatuari.

c) Beste edozein estatu kideri, baldin eta hango agintaritza eskudunak ebazpena helaraz dakion onartzen badu.

d) Beste edozein estatu kideri, haren baimena eskuratu beharrik gabe, baldin eta horrela adierazi badu Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak, betiere elkarrekikotasuna badago eta baldintza hauetako bat gutxienez betetzen bada:

1.a Kondenatua modu legal eta jarraian estatu horretan gutxienez duela bost urtetik bizitzea eta han bizileku iraunkorrerako eskubidea izatea.

2.a Estatu betearazle horretako nazionala izatea baina han ohiko bizilekua ez izatea.

3. Ebazpenaren helarazpena kondena-epaia eman zuen epaile edo auzitegiari jakinaraziko zaio.

72. artikulua. *Espetxe-zaintzako epaileak kondenatuaren gaineko kautela-neurriak eskatzea, agintaritza betearazleak har ditzan.*

Baldin eta kondenatua estatu betearazlean badago, espetxe-zaintzako epaileak, Fiskaltzak eskatuta, kondenatuaren askatasun pertsonala murrizteko neurriren bat edo lurralde horretan geratzen dela bermatzeko beste edozein neurri hartzeko eskatu ahal izango dio estatu betearazleko agintaritza eskudunari. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena agintaritza betearazleak jaso aurretik ere egin ahal izango da eskaera hori edo berau betearaztea erabaki aurretik.

Agintaritza betearazleak kondenatua askatasunaz gabetzeko neurri bat hartuz gero, askatasunik gabe dagoen kondena gehituko da dagokion kondena-likidaziora.

73. artikulua. *Kondenatua estatu betearazlerra lekualdatzea.*

1. Agintaritza betearazleak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearaztea onartzen duela jakinarazten duenean, kondenatua, Espainian badago, estatu betearazlerra lekualdatuko dute.

2. Lekualdaketa hori gehienez hogeita hamar eguneko epearen barruan gauzatu beharko dute, estatu betearazleak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena aitortu eta betearazteaz ebazpen irmoa hartzen duenetik hasita.

Aurreikusi gabeko gorabeherengatik lekualdaketa epearen barruan egiterik ez badago, agintaritza judizial eskudunak horren berri berehala emango dio agintaritza betearazleari, eta lekualdaketarako beste egun bat erabakiko dute; gehienez hamar eguneko epearen barruan egin beharko dute lekualdaketa, erabakitako egun berri horretatik zenbatzen hasita.

74. artikulua. *Espetxe-zaintzako epaileak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena kentzea.*

1. Kondena betearazten hasi aurretik, espetxe-zaintzako epaileak, Fiskaltzari eta agertutako alderdiei bost egunez entzun ondoren, ziurtagiria kentzea erabaki ahal izango du auto arrazoitu bidez; aipatutako autoa emateko bost eguneko epea izango du, eta haren bidez betearazteko neurririk ez hartzeko eskatuko dio estatu betearazleari.

Ziurtagiria honako kasu hauetan kendu ahal izango da:

- a) Aurretzeko kontsultarik ez bada egon eta agintaritzaren betearazleak jakinarazten badiotzen kondena estatu betearazlean betetzea ez dela lagungarria izango kondena errazago gizartera dadin.
- b) Agintaritzaren betearazlearekin kondena betearazpen partzialari buruzko akordioak lortzen ez bada.
- c) Baldin eta, agintaritzaren betearazleari askatasun aurreratuaren edo baldintzapeko askatasunaren arloan aplikatu beharreko xedapenei buruzko informazioa eskatu ondoren, horien aplikazioari buruzko akordioak lortzen ez badute.

2. Estatu betearazleak eskatzen duenean, espetxe-zaintzako epaileak Espainiako zuzenbidean kondena askatasun aurreratuari edo baldintzapeko askatasunari dagokionez aplikatu beharreko xedapenak jakinarazi ahal izango dizkio agintaritzaren betearazleari, eta estatu betearazleko legeriaren arabera arlo horretan aplikatu beharreko xedapenei buruzko informazioa ere eskatu ahal izango dio. Espetxe-zaintzako epaileak, informazio hori jaso eta agertutako alderdiei bost egunetz entzun ondoren, auto arrazoitua emango du beste bost eguneko epearen barruan. Agintaritzaren betearazleak aplikatu beharreko xedapenak jasoko ditu auto horrek, edo ziurtagiria kentzea erabakiko du.

75. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena beste estatu kide batean betearazteak Espainiako prozesuan dituen ondorioak.*

Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearazten hasitakoan, espetxe-zaintzako epailea ez da eskuduna izango kondena ezarritako askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriari buruzko ebazpenak hartzeko, horren barruan askatasun aurreratuaren edo baldintzapeko askatasunaren arazoak hartuta, betiere aurreko artikulua 2. paragrafoan aurreikusitakoa baztertu gabe.

Egoera hori zein ondoren ziurtagiria kentzea edo betearazpena Espainiara itzultzea betearazteko helarazi, kendu edo itzuli den askatasunaz gabetzeko zigorra ezarri duten organo epai-emaitzei jakinaraziko zaie.

76. artikulua. *Kondena betearazpena Espainiara itzultzea.*

Kondena Espainian betearazten berriz hasi ahal izango da estatu betearazleko agintaritzaren eskudunak espetxe-zaintzako epaileari jakinarazten badiotzen kondena ez dutela betearazi behar kondena ihes egin duelako.

### III. KAPITULUA

#### **Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearaztea**

77. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena Espainian aitortzeko eta betearazteko baldintzak.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kide batzuek helarazitako askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak ezartzeko ebazpenak aitortuko ditu zigor-arloko epaile zentralak, baldin eta horrela kondena gizarteratzea errazten bada eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Kondena espainiarra izatea eta gure herrialdean bizitzea.
- b) Kondena espainiarra izatea eta kondena horren ondorioz Espainiara kanporatu behar izatea.
- c) Baldintza horiek bete ez arren, zigor-arloko epaile zentralak epaia Espainian betearaztea baimendu badu, Espainiako estatuak egindako adierazpenengatik baimen hori beharrezkoa ez bada izan ezik.

2. Estatu emaileak helarazitako askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena Espainian betearaztea ez da tipifikazio bikoitzaren kontrolpean egongo, baldin eta 20. artikulua 1. paragrafoan zerrendatutako delituetako baten modura tipifikatutako gertaerei badagokie, betiere estatu emailean horrelakoei gutxienez hiru urteko gehieneko iraupeneko askatasun-gabetzeko zigorrak edo neurriak ezartzen bazaizkie delitu horiei.

78. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren helarazpenari buruzko kontsultak.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak gehienez hogeiei eguneko epearen barruan erantzungo die, jasotzen dituenetik hasita, agintaritzaren emaileak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena gure herrialdera helarazteko egindako eskaerei.

2. Kontsultaren bidez kondenatuak Espainian gizarteratzeko zer aukera dituen jakin nahi dutenean, zigor-arloko epaile zentralak hari erantzungo dio Espainian badago, kondenatu horrek gure herrialdean duen errotzeari buruz bere ustez beharrezkoa den informazioa bilduko du, Fiskaltzari horri dagokionez entzungo dio, eta erantzuna kontsulta egin duen agintaritzari igorriko dio.

3. Kontsultarik egon ez den kasuetan eta epaia eta ziurtagiria helarazi ondoren, kondena Espainian betearazi ahal izateari eta kondenatua gizarteratzeko horrek izango zuen ekarpenari buruzko irizpena igorri ahal izango du zigor-arloko epaile zentralak.

79. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazteko eskaera.*

Zigor-arloko epaile zentralak, ofizioz edo kondenatuak eskatuta, estatu emaileko agintaritzaren eskudunari eskatu ahal izango dio, Fiskaltzari entzunaldia egin ondoren edo haren ekimenez, askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpen bat Espainian betearaz dadin helarazteko.

80. artikulua. *Kondena partzialki betearazteko akordioa.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak kondena-ebazpena aitortzeko eta partzialki betearazteko aukerari buruzko kontsulta egingo dio estatu emaileko agintaritzaren eskudunari ebazpena guztiz aitortu eta betearaztea ukatzen duela erabaki aurretik.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik eta kasu zehatzaren gorabehera kasu eginez, zigor-arloko epaile zentralak akordioa egin ahal izango du estatu emaileko agintaritzaren eskudunarekin kondena-ebazpena partzialki aitortzeko eta betearazteko. Akordiorik ezean, ziurtagiria itzuliko dute.

Ebazpena partzialki aitortzeari eta betearazteari buruzko akordioak ez du inola ere ekarriko kondenaren iraupena handitzea.

81. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena aitortzeko prozedura, Espainian bete dadin.*

1. Ziurtagiria jaso ondoko bost eguneko epearen barruan, Fiskaltzari helaraziko zaio, hamar eguneko epean erabaki dezan ebazpena aitortzea eta betearaztea bidezkoa den.

2. Zigor-arloko epaile zentralak aitortzea edo betearaztea ukatzeko kausaren bat dagoen egiaztatuko du, bai eta kondenatuak baimena eman duen ere, estatu emaileko legeriaren arabera hori beharrezkoa ez bada izan ezik. Nolanahi ere, kondenatuaren baimena ez da beharrezkoa izango honako egoera hauetan:

a) Espainiarra bada eta Espainian bizi bada.

b) Epaian edo epaiaren ondoriozko epaile- edo administrazio-ebazpen batean jasotako kanporatzeko edo lekualdatzeko agindu bat oinarri hartuta kondenatua estatu emailean aske utzitakoan Espainiara kanporatu behar badute.



c) Estatu emailean emandako zigorragatik edo hasitako zigor-arloko prozesuagatik ihes egin badu edo Espainiara itzuli bada.

3. Zigor-arloko epaile zentralak auto bidez ebatziko du beste hamar egun gehiagoko epean kondena-ebazpena aitortzeaz edo ukatzeaz.

Nolanahi ere, betearazpena aitortzen edo ukatzen duen auto arrazoitua irmoa izan behar da laurogeita hamar eguneko epean eta, hala badagokio, espetxe-zaintzako epaile zentralari igorriko diote askatasunaz gabetzeko zigor edo neurria betearazteko.

4. Auto horrek Espainian bete beharreko askatasunaz gabetzeko aldi osoa zehaztuko du, eta aldi horretatik estatu emailean jada betetakoa edo kondenatua behin-behineko espetxealdian egondako denboragatik dagokiona baino ez da kenduko, baita estatu emaileko agintaritzak hartu duen eta gehitu beharrekoa den askatasuna murrizteko beste edozein neurri dagokiona ere.

82. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren ziurtagiria kentzea.*

Baldin eta estatu emaileko agintaritza eskudunak ziurtagiria kentzea jakinarazten badu kondena betearazten hasi aurretik, zigor-arloko epaile zentralak prozedura artxibatuko du eta jarduketak igorriko dizkio.

Kondenatua kautela-neurriren bat betez Espainian askatasunik gabe egon den denbora jasoko dute ziurtagiria itzultzen dutenean, horrela gertatu bada.

83. artikulua. *Kondena egokitzea.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak kondena egokitu ahal izango du ebazpenean ezarritako kondenaren iraupena ez bada bateragarria ebazpena aitortzeko eskatzen duten unean indarrean dagoen Espainiako legeriarekin, delitu horretarako aurreikusitako gehieneko zigorraren muga gainditzen duelako. Aipatutako legeria horretan eragindako pertsona zigortu duten delituentzat aurreikusitako gehieneko iraupenera kondena mugatuz egokituko dute.

2. Baldin eta kondena, bere izaeragatik, Espainiako legeriarekin bateraezina bada, zigor-arloko epaile zentralak kondena egokitu ahal izango du gure legeriak pertsona hori kondenatu duten delituentzat aurreikusitako zigor edo neurriari. Egokitutako zigorra bat etorriko da atzerriko ebazpen judizialean ezarritako zigorrarekin eta, ondorioz, ezingo da bestelako zigor bilakatu (isunezko zigorra, esaterako).

3. Egokitzapenak ezin izango du inola ere estatu emailean ezarritako kondena larriagotu.

84. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren aitortpena geroratzea.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak kondena-ebazpena aitortzea atzeratuko du, baldin eta estatu emaileko agintaritza eskudunak igorri dion ziurtagiria osatugabea bada edo argi eta garbi ez badagokio betearazi beharreko ebazpenari.

2. Agintaritza emaileak ziurtagiria osatu edo zuzendu ahal izateko emandako epe berria gehienez hirurogei egunekoa izango da.

85. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren aitortpena eta betearazpena ukatzea.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena aitortzea eta betearaztea ukatuko du 32. eta 33. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta, gainera, baita honako hauetan ere:

a) Espainiako zigor-legeriaren arabera kondenatuak, bere adinagatik, eta kondena-ebazpena eragin duten gertaerei dagokienez, zigor-erantzukizuna duela jotzerik ez dagoenean.

b) Espainiako agintaritza judizial eskudunak, kondena-ebazpena jasotzen duenean, betetzeko gelditzen den kondenaren zatia sei hilabete baino gutxiagokoa dela egiaztatzen duenean.

c) 81. artikuluan aurreikusitakoaren kalterik gabe, helarazitako ebazpenak Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik betearazterik ez dagoen askatasunaz gabetzeko neurria ezartzen duenean.

d) Baldin eta, kondena-ebazpena aitortu eta betearazteaz erabaki aurretik, zigor-arloko epaile zentralak eskabide bat aurkezten badu dena delako pertsona hori Espainian auzipetu, kondenatu edo askatasunaz gabetu dezaten lekualdatu aurretik egindako eta hori eragin duena ez beste arau-hauste bategatik, eta estatu emaileko agintaritza eskudunak adostasuna ematen ez badu.

e) Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpen bat helarazteko eskatutako baldintzak betetzen ez direnean.

2. 32. artikulua 1 paragrafoaren a) eta c) idatz-zatietan edo 3. paragrafoan, 33. artikulua 1. paragrafoan edo aurreko paragrafoaren c) eta e) idatz-zatietan aitortzea eta betearaztea ukatzeko aurreikusitako arrazoirien bat egonez gero, ebazpena aitortzea eta betearaztea ukatu aurretik, zigor-arloko epaile zentralak estatu emaileko eskudun agintaritzari kontsulta egingo dio egoera argitu dezan eta, hala badagokio, dagoen okerra zuzen dezan.

86. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearaztean aplikatu beharreko legeria.*

1. Espetxe-zaintzako epaile zentralak kondena-ebazpena Espainiako antolamendu juridikoan ezarritakoarekin bat etorritik betearazi beharko du, eta, hala badagokio, kondena-ebazpen beragatik estatu emailean jada betetako askatasunaz gabetutako aldia kenduko da Espainian bete beharreko aldi osotik.

Nolanahi ere, 7/2014 Lege Organikoaren, azaroaren 12koaren, Europar Batasunean zigor-aurrekariaren informazioa trukatzeari eta zigor-arloko ebazpen judizialak aintzat hartzeari buruzkoaren, 14. artikuluan eta xedapen gehigarri bakarrean xedatutakoaren arabera zehaztuko dira helarazitako ebazpenak Espainiako auzitegiek emandako kondenetan izandako ondorioak, bai eta Prozedura Kriminalaren Legearen 988. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera kondena betetzeko mugak finkatzen dituzten ebazpenetan eragindako ondorioak ere.

2. Espetxe-zaintzako epaile zentrala agintaritza eskudun bakarra izango da betearazteko prozedura eta hartu beharreko lotutako neurriak erabakitzeko, baita baldintzapeko askatasuna emateko aukera ere. Agintaritza emaileak jakinarazten badu bere antolamendu juridikoaren arabera kondenatuak baldintzapeko askatasunerako eskubidea noiztik izango duen, espetxe-zaintzako epaile zentralak data hori kontuan hartu ahal izango du.

87. artikulua. *Kondenatuaren askatasuna Espainian dagoen bitartean mugatzeko kautela-neurriak.*

1. Kondenatua Espainian badago, agintaritza emaileak edo Fiskaltzak eskatuta, zigor-arloko epaile zentralak kondenatuaren askatasuna mugatzeko kautela-neurriak hartu ahal izango ditu kondena aitortu eta betearazi arte Espainian gelditzen dela bermatzeko.

2. Eskaera hori jasota, zigor-arloko epaile zentralak kondenatua atxilotzeko agindu ahal izango du eta, haren esku jarritakoan, agerraldia egingo du Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako moduan. Kondenatuaren askatasuna murrizteko bestelako kautela-neurriak ere agindu ahal izango du, betiere Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako arauarekin bat etorritik.

3. Agintaritza emaileak neurri horiek eskatu ahal izango ditu askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena helarazi aurretik.

4. Atxilotuta eta behin-behineko espetxealdian egondako denbora ere hartuko da kontuan neurri hori berme gisa hartzea eragin zuen ebazpena aitortu eta betearazteko Espainian betearazi beharreko kondenaren likidazioan.

88. artikulua. *Kondenatua Espainiara lekualdatzea askatasunaz gabetzea betetzeko.*

Kondenatua estatu emailean badago, Espainiara lekualdatuko dute agintaritza emailearen eta zigor-arloko epaile zentralaren artean erabakitako unean, betiere ebazpena aitortzeko eta betearazteko autoa irmo bihurtu ondoko hogeita hamar eguneko epearen barruan.

Aurreikusi gabeko gorabeherak direla eta kondenatua erabakitako unean lekualdatzerik ez badago, beste egun bat ezarriko dute, gorabehera horiek desagertu eta berehala, eta egun horretatik aurrera hamar eguneko epea izango dute lekualdaketa gauzatzeko.

89. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren betearazpena etetea.*

Zigor-arloko epaile zentralak ebazpena betearaztea etengo du estatu emaileko agintaritza eskudunak jakinarazten badio ebazpena indargabetzen edo ondorioz gabe uzten duen ebazpen edo neurriren bat hartu duela.

90. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena agintaritza emaileari itzultzea.*

Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearazten ari direnean kondenatuak ihes eginez gero, espetxe-zaintzako epaile zentralak horren berri berehala emango dio zigor-arloko epaile zentralari, eta horrek, agintaritza emaileari hori jakinarazteaz gain, kondenatuak izan litzakeen zigor-erantzukizunak ere aztertuko ditu.

Ziurtagiria itzuli behar izanez gero, kondenatua ebazpen hori betez Espainian askatasunik gabe egon den denbora jakinaraziko dute.

91. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten ondorioz kondenak betearaztea.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat ukatzen edo baldintzatzan badute kondenatuak Espainiako nazionalitatea duela argudiatuta, zigor-arloko epaile zentralak kapitulu honetako xedapenak aplikatuko ditu beste estatu kidean ezarritako kondena bete dezan, era horretan kondenatuaren zigorgabetasuna eragozteko.

## IV. KAPITULUA

### Beste xedapen batzuk

92. artikulua. *Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpenaren betearazteari espezialitate-printzipioa aplikatzea.*

1. Askatasunaz gabetzeko zigor edo neurria ezartzen duen ebazpena aitortu eta betearazteko prozesuaren barruan Espainiara lekualdatutako pertsona ezin izango dute Espainian auzipetu, kondenatu edo askatasunaz gabetu lekualdaketa hori eragin duena ez aurreko beste arau-hauste bategatik.

2. Aurreko paragrafoa ez da aplikatuko ondoko egoeraren bat gertatzen bada:

a) Kondenatuak Espainiatik irteteko aukera izan arren hala ez badu egin behin betiko aske jarri ondoko berrogeita bost eguneko epean, edota irten bai baina gerora itzuli bada.

b) Arau-haustea askatasunaz gabetzeko zigor batekin edo barneratze-auto batekin zehatzerik ez badago.

c) Zigor-arloko prozesua ez bada amaitzen norberaren askatasuna murrizten duen neurri bat aplikatuz.

d) Kondenatuak askatasunaz ez gabetzeko zehapen edo neurria izan badezake, gizabanakoaren askatasuna murriz badezakete ere.

e) Kondenatuak lekualdatzeko adostasuna eman badu.

f) Kondenatuak, lekualdatu ondoren, berariaz eta borondatez uko egin badio espezialitate-printzipioari heltzeari lekualdatu aurretiko arau-hauste jakin batzuei dagokienez.

Kondenatuak uko egin behar du, abokatuak lagunduta, eta zigor-arloko epaile zentralaren aurrean, zeinak horren akta egingo duen.

g) Estatu emaileak baimena ematen badu, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

3. Zigor-arloko epaile zentralak, agintaritza betearazle gisa, dagokion adostasun-eskaera igorriko dio estatu emaileko agintaritza eskudunari atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduekin batera.

4. Estatu emailea Espainia denean, agintaritza judicial eskudunek espezialitate-printzipioa ez aplikatzea onartuko dute, baldin eta estatu betearazleak adostasun-eskaera bat aurkezten badio atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduekin batera eta entregatzeko betebeharra badu Lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Horrela gertatuz gero, Espainiako agintaritza judicial eskudunak gehienez hogeita hamar eguneko epean emango du adostasuna, eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

## IV. TITULUA

### Zaintzapeko askatasun-ebazpena

#### I. KAPITULUA

#### Xedapen orokorrak

93. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpena.*

1. Estatu kide bateko agintaritza eskudunak emandako askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat edota 94. artikuluan aurreikusitako neurrietakoren bat pertsona fisiko bati ezartzen dioten ebazpen irmoak aitortzeko eta betearazteko erregimena arautzen du titulu honek, baldin eta, horrelakoak betetzeari dagokionez, hau erabakitzen bada:

a) Baldintzapeko askatasuna, epai hori oinarri hartuta edo zaintzapeko askatasuneko geroko ebazpen baten bidez.

b) Kondena etetea, zati batez edo guztiz, eta zaintzapeko askatasun-neurri bat edo gehiago ezartzea, epaian bertan jasota edo zaintzapeko askatasun-ebazpen bereiz batean zehaztuta.

c) Zigorra eskubide batez gabetzea, betebeharra edo debekua ezartzen duen beste batez ordeztea, betiere askatasunaz gabetzeko zigor edo neurria ez bada, ezta diruzko zehapena ere.

d) Estatu emaileko zuzenbidearekin bat etorritik, baldintzapeko kondena bat, zeinaren bidez zaintzapeko askatasun-neurri bat edo gehiago ezartzen den; horrek, hala badagokio, ezarritako askatasunaz gabetzeko zigorra baldintzekin atzera dezake.

2. Titulu honetako xedapenek zaintzapeko askatasun-ebazpena aitortzea eta betearaztea ere arautzen dituzte, baldin eta estatu emailean askatasunaz gabetzeko zigorra edo neurria betearazteko eskudun agintaritzak hartu badu ebazpena.

3. Titulu honetako xedapenak ez zaizkie aplikatuko Lege honetan aurreikusitako askatasunaz gabetzeko zigorrak, diruzko zehapenak edo konfiskatzeak ezartzen dituzten ebazpenak aitortzeko eta betearazteko kasuei.

94. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpenaren aplikazio-eremua.*

Helarazi eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazi ahal dira edo Espainiako agintaritza judizial eskudunek jaso ahal dituzte zaintzapeko askatasunaren honako neurri hauek:

- a) Kondenatuak agintaritza espezifiko bati bizilekuaren edo lantokiaren aldaketa oro jakinarazteko betebeharra.
- b) Estatu emaile edo betearazleko udalerrri, toki edo eremu jakin batzuetan sartzeko debekua.
- c) Estatu betearazleko lurraldetik irteteko mugak ezartzea.
- d) Jokabide, bizileku, hezkuntza eta prestakuntzari edo aisialdiko jardueri buruzko errekerimenduak, edota lanbide-jarduera bat egiteko mugak ezartzen edo modalitateak zehazten dituztenak.
- e) Egun jakin batzuetan agintaritza espezifiko baten aurrean agertzeko betebeharra.
- f) Pertsona jakin batzuekin harreman oro saihesteko betebeharra.
- g) Kondenatuak zigor arau-haustea egiteko erabili dituen edo erabil litzakeen objektu jakin batzuekin harreman oro saihesteko betebeharra.
- h) Arau-haustea eragindako kalteak diruz konpontzeko betebeharra edo hori bete duela erakusten duten frogak aurkeztekoa.
- i) Gizartearentzako lanak egiteko betebeharra.
- j) Zaintzapeko agente batekin edo kondenatuari dagokionez erantzukizunak dituen gizarte-zerbitzu bateko ordezkari batekin elkarlanean aritzeko betebeharra.
- k) Tratamendu terapeutikoa edo mendekotasuna gairatzeko tratamendua hartzeko betebeharra.

95. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat helarazteko eta betearazteko Espainiako agintari judizial eskudunak.*

1. Zaintzapeko askatasun-epaia edo -ebazpena betearazteaz arduratzen diren epaileak edo auzitegiak dira zaintzapeko askatasun-ebazpena emateko agintaritza.

2. Europar Batasuneko beste estatu kide bateko agintaritza eskudunak helarazitako zaintzapeko askatasun-ebazpen bat aitortzeko eta betearaztea erabakitzeko eskudun agintaritza zigor-arloko epaile zentrala da. Helarazitako zaintzapeko askatasun-ebazpena adingabe bati dagokionean, adingabeen epaile zentrala izango da eskuduna.

## II. KAPITULUA

### Zaintzapeko askatasun-ebazpen baten helarazpena

96. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat igortzeko betekizunak.*

1. Espainiako agintaritza judizial eskudunak zaintzapeko askatasun-ebazpen bat beste estatu kide batera igortzeko baldintzak hauek dira:

- a) Lege honetan agindutako moduan zaintzapeko askatasunaren ebazpen judizial irmoa ematea.
- b) Kondenatuak legezko eta ohiko bizilekua Espainian ez izatea.
- c) Legez eta ohiko bizilekua duen estatura itzultzea edota, gure herrialdean egonik ere, hara edo horrela baimentzen duen beste estatu kide batera itzultzeko borondatea agertzea.

2. Zaintzapeko askatasunaz gain oraindik ordaindu edo betearazi gabe dagoen diruzko zehapena edo konfiskatzeko ebazpena ezartzeak ez du eragotziko zaintzapeko askatasun-ebazpena igortzea. Epaile edo auzitegi epai-emaileak konfiskatzeko edo diruzko zehapenak jartzeko emandako ebazpenak transmititzea babestu ahal izango dute ondare-arloko kondena-ebazpenek.

97. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren Europako aginduaren dokumentazioa.*

Zaintzapeko askatasun-ebazpenarekin batera IV. eranskinean ageri den ziurtagiria ere emango da, eta berriaz aipatuko dira betearazteko transmititzen diren neurriak, neurri horiek orokorrak izan edo estatu betearazleak Europar Batasuneko Kontseiluko Idazkari Nagusian egindako adierazpenean onartutako neurri espezifikoak izan.

Ziurtagiriarekin batera epai eta, hala badagokio, ebazpen judizial irmoak ere igorriko dira.

98. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpen baten helarazpena.*

1. Espainiako agintaritza judizial eskudunak zaintzapeko askatasunaren ebazpena transmitituko dio kondenatuak legezko eta ohiko bizilekua duen estatu kideko agintaritza eskudunari eta itzuli den edo itzuli nahi duenari.

Kondenatuak legezko eta ohiko bizilekua duen estatua ez den beste bati ere helarazi ahal izango zaio, hark eskatuta, betiere kondenatuak bizilekua duen estatuko eskudun agintaritzak helarazpenari adostasuna ematen badio.

2. Zaintzapeko askatasunaren ebazpena helarazi aurretik, agintaritza judizialak kondenatuari galdetuko dio bizilekua duen estatua itzuli edo han gelditu nahi duen, eta horretarako hogeita hamar eguneko epea emango dio.

Kondenatuak neurria beste estatu batean bete nahi duela adieraziz gero, agintaritza judizialak ebazpena helarazteko adostasuna eskatuko dio horko eskudun agintaritzari.

3. Espainiako agintaritza judizial eskudunak zaintzapeko askatasunaren epaia eta, hala badagokio, ebazpena estatu betearazle bakar bati helaraziko dio aldi bakoitzean.

4. Espainiako agintaritza judizialak delituaren ondoriozko erantzukizun zibila eta diruzko gainerako erantzukizunak betetzeko kondenatuari ezarritako neurriak ere helaraziko dizkio, horrelakorik badago, estatu betearazleko agintaritza eskudunari; kondenatuak egiaztatu behar du horiek bete dituela, halaber.

99. artikulua. *Zaintzapeko askatasun-ebazpenaren ondorioak.*

1. Estatu betearazleko agintaritza eskudunak helarazi dioten zaintzapeko askatasunaren ebazpena aitortzen duela jakinarazitakoan, Espainiako agintaritza judizialak jada ez du eskumenik izango zaintzapeko askatasunaren neurriak zaintzeko edota horrekin lotuta geroago ebazpenak hartzeko, betiere estatu betearazleak ez badu kontrarik adierazi.

2. Epaille edo auzitegi emaileak, zaintzapeko askatasunaren ebazpena helarazitakoan, ofizioz edo Fiskaltzak edo agertutako alderdietako batek eskatuta, zaintzapeko askatasunaren ebazpenarekin betetzeko helarazitako neurriak bete ezean estatu betearazleko zuzenbide nazionalean aurreikusitako askatasunaz gabetzeko zigorraren gehieneko iraupena jakinarazteko eskatu ahal izango dio agintaritza betearazleari.

100. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpena itzultzea.*

1. Epaille edo auzitegi emaileak ziurtagiria kendu ahal izango dio, eta estatu betearazleari eskatu neurririk ez hartzeko, betiere zaintzapeko askatasunaren ebazpena betearazten oraindik hasi gabe badago eta hamar eguneko gehieneko epearen barruan:

a) Ebazpena ekarri zuen arau-haustearentzat estatu betearazleko antolamendu juridikoan aurreikusitako askatasunaz gabetzeko zigorraren gehieneko iraupenari dagokionez (zigor hori zaintzapeko askatasunaren neurria bete ezean ezar liteke) eskatutako informazioa jasotzen dutenetik hasita.

b) Edo ezarritako zaintzapeko askatasunaren neurriak estatu betearazleak bere antolamendu juridikoaren arabera arau-hauste baliokideentzat aplikatzen direnei egokitze hartutako erabaki arrazoituari buruzko informazioa jasotzen dutenetik hasita.

Epaile edo auzitegiak, estatu betearazlearen informazioa jaso ondoren, Fiskaltzari entzungo dio bost eguneko epean, eta autoa –arrazoitua izan beharko da– hurrengo bost eguneko epearen barruan emango du.

2. Epaile edo auzitegi emaileak beste estatu kide batean betearazten hasitako zaintzapeko askatasunaren ebazpena itzultzeko eskatu ahal izango du interesdunaren aurka Espainian zigor-arloko prozesu berriak bideratzen ari direnean.

3. Estatu betearazleko agintaritzak zaintzapeko askatasunaren neurriak zaintzeko eta geroko erabakiak hartzeko eskumena itzultzen duenean, epaile edo auzitegi eskudunak gauzatuko du hori berriro, eta horretarako, estatu betearazlean izandako betetze-aldia eta -maila hartuko du kontuan, baita jada hartutako geroko erabakiak ere.

### III. KAPITULUA

#### Zaintzapeko askatasun-ebazpen bat betearaztea

101. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpena Espainiari helarazteko betekizunak.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kide batek emandako zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat Espainian aitortzea ez da tipifikazio bikoitzaren kontrolari lotuta egongo, baldin eta 20. artikulua 1. paragrafoan zerrendatutako delituetako baten modura tipifikatutako gertaerei buruzkoa bada, betiere delitu horiek estatu emailean gutxienez hiru urteko gehieneko iraupeneko askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriekin zigortuta badaude.

2. Zaintzapeko askatasunaren ebazpenak egoera hauetan baino ezin izango dira aitortu:

a) Kondenatuak legezko eta ohiko bizilekua Espainian badu eta modu frogagarrian jasota badago gure herrialdera itzuli dela edo agintaritzaren emailearen aurrean horrela egiteko borondatea adierazi badu.

b) Baldin eta, kondenatuak legezko eta ohiko bizilekua Espainian eduki ez arren, gutxienez duela bost urtetik haren ondorengoek, arbasoek edo anai-arrebek, edo ezkontideak edo antzeko izaeragatik hari lotutako pertsonak, hala badute, betiere kondenatuak lan-kontratua lortu badu edo zaintzapeko askatasunaren ebazpena Espainian betetzea eskatu badu.

102. artikulua. *Espainiak zaintzapeko askatasunaren ebazpenaren helarazpena onartzeko eskaera.*

Kondenatuak ez badu legezko eta ohiko bizilekurik Espainian, zaintzapeko askatasunaren ebazpena helaraz diezaioten adostasuna agertzeko agintaritzaren emailearen eskaera jasotzen duen zigor-arloko epaile zentralak, aurreko artikulua 2. paragrafoaren b) idatz-zatian aurreikusitako baldintzak betetzen badira baino ezin izango du hori eman.

103. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpena aitortzeko prozedura.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak, ziurtagiria jasotzen denetik bost eguneko epean, Fiskaltzari entzungo dio zaintzapeko askatasunaren ebazpena aitortzea eta betearaztea bidezkoa den; izapide hori hamar eguneko epean egin beharko dute. Jarraian, zigor-arloko epaile zentralak beste hamar egun gehiagoko epean ebatziko du.

2. Zigor-arloko epaile zentralak aitortzea edo betearaztea ukatzeko kausarik dagoen egiaztatuko du, bai eta baldintzak betetzen diren ere kondenatuaren Espainiako bizilekuari edota Espainiara itzultzeari edo itzultzeko borondateari dagokionez.

3. Nolanahi ere, epaileak hirurogei eguneko epea izango du, Espainian zaintzapeko askatasunaren ebazpena jasotzen denetik, haren betearazpena aitortzen edo ukatzen duen auto arrazoitua emateko. Epe hori betetzerik ez dagoen salbuespeneko egoeretan, horren arrazoiak berri eman beharko diote agintaritzaren emaileari, eta aipatutako erabaki hori gutxi gorabehera noiz hartuko den ere jakinarazi.

104. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpena egokitzea.*

1. Zaintzapeko askatasunaren ebazpenean bildutako neurria, iraupenagatik, ez bada bateragarria Espainiako antolamendu juridikoarekin gure legerian aurreikusitako gehieneko muga gainditzen duelako, zigor-arloko epaile zentralak zigorra egokituko du. Horrela bada, zaintzapeko askatasunaren neurriaren iraupena estatu emailean emandakoekin bat datozen gure legeriako baliokideko arau-hausteentzat aurreikusitako gehienekora egokituko du.

2. Zaintzapeko askatasunaren neurria, izaeragatik, ez bada bateragarria Espainiako antolamendu juridikoarekin, zigor-arloko epaile zentralak gure legerian antzeko kasuentzat jasotako neurria egokituko du. Hartutako neurria, ahal den heinean, estatu kide emailearen epaian edo ebazpenean ezarritako neurriarekin bat etorriko da.

3. Bi kasu horietan egokitzapenak ezin izango du inola ere estatu emailean ezarritako kondena larriagotu edo luzatu.

105. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpen baten aitortzea eta betearazpena ukatzea.*

1. Zigor-arloko epaile zentralak zaintzapeko askatasunaren ebazpenak aitortzea eta betearaztea ukatuko du 32. eta 33. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta, gainera, baita honako hauetan ere:

a) Espainiako zigor-legeriaren arabera kondenatuak, bere adinagatik, eta ebazpena oinarritzen den gertaerei dagokienez, zigor-erantzukizuna duela jotzerik ez dagoenean.

b) Zaintzapeko askatasunaren neurriaren edo ordezko zigorraren iraupena sei hilabete baino txikiagoa denean.

c) Epaiak edo, hala badagokio, zaintzapeko askatasunaren ebazpenak Espainiako zuzenbidearen arabera zigor-arloko epaileak zaintzerik ez dituen neurri medikoak edo terapeutikoak barne hartzen dituen.

d) Zaintzapeko askatasunaren ebazpen bat helarazteko eskatutako baldintzak betetzen ez direnean.

2. 32. artikulua 1. paragrafoaren a) eta c) idatz-zatietan edo 3. paragrafoan, 33. artikulua 1 paragrafoan edo aurreko paragrafoaren b), c) eta d) idatz-zatietan aitortzea eta betearaztea ukatzeko aurreikusitako arrazoiren bat egonez gero, zaintzapeko askatasunaren epaia edo ebazpena aitortzea eta betearaztea ukatu aurretik, zigor-arloko epaile zentralak estatu emaileko eskudun agintaritzari kontsulta egingo dio egoera argitu dezan eta, hala badagokio, dagoen okerra zuzen dezan.

3. Zigor-arloko epaile zentralak 32. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan ukatzeko jasotako arrazoiren bat alegatzea erabaki badu, estatu emaileko agintaritzarekin ados jarri ahal izango da zaintzapeko askatasunaren neurrien edo ordezko zigorren zaintza egiteko, gero erabakirik hartzeko erantzukizuna bere gain hartu gabe.

Horrelakoetan, kondenatuak zaintzapeko askatasunaren neurria edo ordezko zigorra bete ezean, epaileak horren berri emango dio estatu emaileko agintaritzari eskudunari V. eranskinean ageri den ziurtagiriaren bitartez.

106. artikulua. *Zigor-arloko epaile zentralak zaintzapeko askatasunari buruzko ebazpenak geroago ematea.*

1. Zigor-arloko epaile zentrala eskuduna izango da zaintzapeko askatasunari buruzko gero ebazpenak hartzeko kondenatuak zaintzapeko askatasunaren neurria urratzen badu edo beste zigor arau-hauste bat egiten badu, betiere hori hartzea ez badagokio agintaritzari emaileari honako kasu hauetako bat delako:

a) Zaintzapeko askatasunaren neurriak barne hartzen dituen betebeharrak edo debekuak bete ezean aplikatu beharreko askatasunaz gabetzeko zigor edo neurririk ez ezartzea epaiak.



- b) Baldintzapeko kondenen kasuak.
- c) Epaia gure antolamendu juridikoan legezko arau-haustea ez dakarten gertaerei dagokien kasuak.

Horrelakoren bat gertatuz gero, estatu emaileari luzatu gabe jakinaraziko zaio, baita dagokion erabakia har dezan eskatu ere, eta bitartean kondenatua zaintzeko neurriei eutsiko zaie.

2. Espainiako agintaritza judizialak, Espainiako antolamendu juridikoarekin bat etorritik, geroagoko erabaki hauek hartuko ditu, besteak beste:

- a) Zaintzapeko askatasunaren neurrian jasotako betebeharrak edo debekuak, baita iraupena ere, aldatzea.
- b) Baldintzapeko askatasunean jartzeko epaia edo ebazpena betearaztea eten dadin ezeztatzea.
- c) Askatasunaz gabetzeko zigor bat edo neurriak ezartzea agintaritza emaileak zehaztu ondoren.

3. Geroagoko ebazpen horiekin bat etorritik betearazi beharreko askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak Espainiako legeriarekin bat etorritik gauzatu dira.

4. Zigor-arloko epaile zentralak estatu emaileko agintaritzako eskudunari jakinaraziko dio artikulu honetan adierazitako erabakietakoren bat hartu izana, baita horrelakoen betearazpena eta zaintzapeko askatasunaren neurriak edo ordezeko neurriak iraungitzeari buruzkoak ere.

5. Zigor-arloko epaile zentralak jakinarazi egingo du, halaber, agintaritza emaileak eskatu ondoren, kondena ekarri zuen arau-haustearentzat Zigor Kodean aurreikusitako askatasunaz gabetzeko zigorraren gehieneko iraupena, kondena urratuz gero kondenatuari ezar litzaiokeena, alegia.

Baldin eta, zaintzapeko askatasunaren ebazpena jasotakoan, ebazpena ekarri zuen arau-haustearentzat aurreikusitako askatasunaz gabetzeko zigorraren gehieneko zigorrari, kondenatuak zaintzapeko askatasunaren neurriak bete ezean ezar zitekeenari, buruzko informazioa eskatzen badu agintaritza emaileak, zigor-arloko epaile zentralak horren gaineko informazioa helaraziko dio.

107. artikulua. *Agintari emaileak zaintzapeko askatasunaren ebazpena kentzea.*

Agintaritza emaileak zaintzapeko askatasunaren ebazpena kenduz gero, zigor-arloko epaile zentralak agindua itzuliko du eta jarduketa guztiak agintaritza emaileari itzuliko dizkio.

108. artikulua. *Zaintzapeko askatasunaren ebazpena agintaritza emaileari itzultzea.*

Zigor-arloko epaile zentralak eskumena itzuliko dio estatu emaileko agintaritza eskudunari zaintzapeko askatasunaren neurriak eta ordezeko zigorrak zaintzeari eta epaiarekin zerikusia duen geroagoko erabaki orori dagokienez, honelakoren bat gertatuz gero:

- a) Kondenatuak ihes egiten badu.
- b) Kondenatuak ohiko bizilekua Espainian izateari uzten badio.
- c) Estatu emaileak eskatuta, interesdunaren aurka zigor-arloko prozesu berriak ireki badituzte estatu horretan.

## V. TITULUA

**Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenak**

## I. KAPITULUA

**Xedapen orokorrak**

109. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena.*

1. Estatu kide bateko agintaritza eskudunak zigor-arloko prozesu batean hartutako ebazpenak aitortzeko eta betearazteko araubidea arautzen du titulu honek; horien bitartez pertsona fisiko bati zaintza-neurri bat edo gehiago ezartzen zaio behin-behineko espetxeratzearen ordezk.

2. Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpena helaraziz justiziaren behar bezalako jarduna bermatu behar da eta, bereziki, dena delako pertsona epaiketara ager dadin.

Halaber, biktimen babesa zein herritarren segurtasuna ere hobetu behar ditu, eta behin-behineko askatasunaren ebazpenak hartzea sustatu behar du zigor-arloko prozesua jarraitzen duten estatu kideko egoiliarrek ez diren inputatuei dagokienez.

110. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenaren aplikazio-eremua.*

1. Helarazi eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazi ahal dira edo Espainiako agintaritza judizial eskudunek jaso ahal dituzte honako zaintza-neurri hauek:

a) Pertsonak estatu betearazleko agintaritza eskudunari edozein egoitza-aldaketa jakinarazteko duen betebeharra, bereziki jarduketa penalen barruan frogaga-eginbideetan edo ikustaldietan agertzeko zitazioak jaso ahal izateko.

b) Estatu emaile edo betearazleko udalerrri, toki edo eremu jakin batzuetan sartzeko debekua.

c) Adierazitako aldian toki jakin batean egoteko betebeharra.

d) Estatu betearazleko lurraldetik irteteari dagokionez ezarritako mugak errespetatzeko betebeharra.

e) Egun jakin batzuetan agintaritza espezifiko baten aurrean agertzeko betebeharra.

f) Ustez egindako delituarekin zerikusia duten pertsona jakin batzuetan hurbiltzeko debekua.

g) Ustez egindako delituari lotutako lanbide edo jarduerak jakin batzuk egiteko inhabilitazioa.

h) Motordun ibilgailuak ez gidatzeko betebeharra.

i) Fidantza bat jartzeko edo beste berme bat emateko betebeharra, dela epe jakin batzuetan edo ordainketa bakar batez.

j) Desintoxicazio-tratamendua edo mendekotasuna gainditzeko tratamendua hartzeko betebeharra.

k) Armak edo epaitutako delituarekin zerikusia duten bestelako objektu zehatzak edukitzeko eta eramateko debekua.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ikuskapena Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari jakinaraziz beren gain hartzen duten Europar Batasuneko estatu kideei bakarrik helarazi ahal izango dira haren g) eta k) arteko idatz-zatietan aurreikusitako neurriak.

3. Atzerriko agintaritza batek emandako behin-behineko espetxeratzearen ordezeko neurriei buruzko ebazpenak neurri horiek edo haren antolamendu juridikoan aurreikusitako bestelako batzuk, Espainiak aitortzen dituela jakinarazitakoak, hartu ahal izango ditu barnean.

111. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena emateko eta betearazteko Espainiako agintari eskudunak.*

1. Zigor-arloko prozeduran inputatuaren behin-behineko askatasunaren ebazpena eman duten epaileak edo auzitegiak dira behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena eman dezaketen agintariak.

2. Inputatuak bizilekua duen tokiko Instrukzioko epaileak edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak dira agintari eskudunak behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena aitortzeko eta betearazteko haien eskumena diren delituei dagokienez.

## II. KAPITULUA

### **Behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena helaraztea**

112. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena helarazteko betekizunak.*

1. Epaile edo auzitegi eskudunak behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena helaraziko dio honako egoeraren bat gertatzen den estatu kideko agintaritza eskudunari:

a) Inputatuak estatu betearazlean legezko eta ohiko bizilekua izatea eta estatu horretara itzultzea onartzea.

b) Inputatuak bizilekuarena ez den beste estatu batera lekualdatzea eskatzea eta estatu horretako agintaritza eskudunak horrela onartzea.

2. Behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena estatu betearazle bakar bati helaraziko zaio aldi bakoitzean.

113. artikulua. *Agintari eskudunen arteko kontsultak eta informazio-trukeak behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpenari dagokionez.*

Espainiako epailea Europar Batasuneko beste estatu kidego agintaritza eskudunarekin harremanetan egongo da, eta egokiak diren kontsultak elkarri egingo dizkiote, bai ebazpena eta ziurtagiria transmititu aurretik, bai betearazteko orduan, zaintza-neurriak egoki ikuskatzea erraztearren. Halaber, inputatuaren arriskugarritasunari buruz ere jardungo dute, baita ebazpenean ezarritako zaintza-neurrietakoren baten ez-betetze larria gertatuz gero ere.

Kontsulta horiei esker estatu betearazleko agintaritza eskudunak interesdunaren nortasuna eta bizilekua egiaztatu ahal izango ditu, eta zigor-aurrekariaren erregistroan jasotako informazio guztia ezagutu ahal izango du.

114. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena helarazteko prozedura.*

1. Behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena ematea artikulua honetan jasotako prozedurarekin bat etorri erabaki behar da, ofizios edo Fiskaltzak edo inputatuak eskatuta, baina eskaera horiek ez dira lotesleak.

2. Inputatu horri dagokionez eta auzi ezberdinetan behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko bestelako ebazpenik eman duten egiaztatuko du epaileak edo auzitegiak behin-behineko espetxeratzearen ordezko neurriei buruzko ebazpena eman aurretik.

Inputatuaren behin-behineko espetxeratzearen ordezkari bestelako neurriak ezarri dituzten hainbat auzi badaude, artikulua honetan aurreikusitako izapidea jarraitu beharko dute horietako bakoitzaz arduratzen den agintaritza judizial bakoitzean. Behin-behineko

espetxeratzea erabakitzeak inputatua bilatu eta atzemateko agindua eman duen agintaritzak judizialean ere jarraitu beharko du.

Baldin eta epaile edo auzitegiren batek erabakitzen badu behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurri buruzko ebazpena ez ematea eta Espainian betearazteko erabakitako zaintza-neurri eustea edota behin-behineko espetxeratze eskatutako neurri eustea, ahalik eta lasterren jakinaraziko die behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurri buruzko ebazpena emateko izapideak egiten ari diren gainontzeko agintaritzak judizialei, izapideak eten ditzaten edo jada emandako ebazpena ondorioz gabe utz dezaten, hori guztia ondoren berrekiteari edo helarazteari kalterik egin gabe.

3. Ebazpena helarazi aurretik, agintaritzak judizialak inputatuari galdetuko dio bizilekua duen estatua itzuli edo han gelditu nahi duen, eta horretarako hogeita hamar eguneko epea emango dio gehienez.

Inputatuak neurria beste estatu batean bete nahi duela adieraziz gero, agintaritzak judizialak ebazpena helarazteko baimena eskatuko dio horko eskudun agintaritzari.

Behin-behineko askatasuna hainbat organok agindu dutelako izapidea organo judizial batean baino gehiagotan jarraituz gero, inputatuak auzi batean emandako adostasunak gainontzeko guztietarako ere balio izango du.

4. Izapideak pertsona hori atxilotzeko eta atxiloa dagokionaren esku uzteko eginez gero, Fiskaltzari eta agertutako alderdiei Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako moduan agerraldia egitearekin batera helaraziko zaie, eta inputatuak estatu betearazlerra itzultzeko adostasuna eman beharko du agerraldi horretan. Epaile edo auzitegiak atxiloaren egoera pertsonala erregularizatzeko aurreikusitako epean ebatzi beharko du emateaz.

Inputatuak adostasuna eman ahal izango du prozeduraren barruan egiten den beste edozein entzunaldi edo ikustaldirekin batera.

115. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurri buruzko ebazpenaren dokumentazioa.*

1. Beste estatu kide batera helarazten den behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurri buruzko ebazpenarekin batera VI. eranskinean ageri den ereduaren ziurtagiria ere aurkeztuko da.

2. Agintaritzak betearazleak horrela eskatzen badu, jatorrizko ziurtagiria eta jatorrizko ebazpena edo haren kopia ziurtatua helaraziko dizkiote.

116. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurriak estatu betearazlean ikuskatzeko epea, eta epe horren luzapena.*

1. Behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurri buruzko ebazpenak neurriak ikuskatzeko epea zehaztuko du; Espainiako legeriarekin bat etorritik behin-behineko askatasunaren ebazpena eragin duen delitua preskribatzeak, eta hura berritu ahal izateak, zehaztuko du haren gehieneko iraupena.

2. Zaintza-neurriak ikuskatzeko epea amaitzen denean horiek oraindik beharrezkoak badira, Espainiako epaile edo auzitegi emaileak berriro entzungo die, bost eguneko, Fiskaltzari, inputatuari eta agertutako alderdiei; horren ostean, auto arrazoitu bidez, eta beste bost eguneko epean, auziaren egoera zehatzak ikusita agintaritzak betearazleari behin-behineko askatasunaren ikuskapena handitzeko eskatzea bidezkoa den ebatziko du. Luzatzea beharrezkotzat jotzen duen gehieneko epea berariaz jaso beharko du eskaeran.

3. Agintaritzak betearazleak neurriak ikuskatzeko beharra aldi behin baieztatzeko eskatzen badu, epaile edo auzitegi emaileak horren gaineko informazioa eman beharko dio baieztatzeko eskaera jaso ondoko bost eguneko epean.

117. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkko neurriei buruzko ebazpena kentzea.*

1. Epaile edo auzitegi emaileak ziurtagiria kendu ahal izango du, artikuluan honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, estatu betearazlean behin-behineko espetxeratzearen ordezkko neurriei buruzko ebazpena betearazten hasten diren arte.

2. Agintaritza betearazleak bere zuzenbidean neurriak ikuskatzeko aurreikusitako gehieneko epeari, horiek egokitzeko beharri edo, behin-behineko askatasunaren ebazpenean ezarritako zaintza-neurria bete ezean, atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren bitartez inputatua entregatu ezinari buruz emandako informazioa ezagututa hartuko dute erabakia.

3. Epaile edo auzitegi emaileak informazio hori jasota, Fiskaltzari hiru eguneko epean entzungo zaio. Jarraian, epaileak edo auzitegiak autoa emango du beste hiru egun gehiagoko epean; horren bitartez ziurtagiria kentzea erabaki ahal izango du, estatu betearazleari neurririk ez hartzeko edo ikuskatzeko eskatuta.

4. Edozelan ere, agintaritza betearazleari autoa gehienez hamar eguneko epean jakinarazi behar zaio, ikuskatzeko gehieneko epeari, neurriak egokitzeari edo, bete ezean, atxilotzeko Europako aginduaren tresna erabili ezinari buruzko informazioa Espainian jasotzen denetik zenbatzen hasita.

118. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkko neurriei buruzko ebazpena eman duen Espainiako agintaritza judizialaren ikuskatze-eskumenak.*

Espainiako agintaritza judizial emaileak ezarritako zaintza-neurriak ikuskatzeko eskumena izango du, harik eta estatu betearazleko agintaritza eskudunak helarazi dioten behin-behineko espetxeratzearen ordezkko neurriei buruzko ebazpena aitortzen duela jakinarazten duen arte. Jakinarazpen hori jasotakoan, epaileak edo epaitegiak ez du eskumenik izango ezarritako zaintza-neurriak ikuskatzeko.

119. artikulua. *Zaintza-neurriak ikuskatzeko eskumena berreskuratzea.*

1. Zaintza-neurriak ikuskatzeko eskumena eskudun epaile edo auzitegira itzuliko da honako egoera hauetan:

a) Ziurtagiria kentzen badu eta horrela jakinarazten badio estatu betearazleko agintaritza eskudunari.

b) Inputatuak legezko eta ohiko bizilekua estatu betearazlea ez den beste estatu batera aldatu badu.

c) Epaile edo auzitegiak zaintza-neurriak aldatu baditu eta estatu betearazleko agintaritza eskudunak neurri horiek ikuskatzeari uko egin badio.

d) Estatu betearazleak zaintza-neurriak ikuskatzeko zehaztutako gehieneko epea amaitu bada.

e) Estatu betearazleko agintaritza eskudunak zaintza-neurriak ikuskatzeari uztea erabaki badu eta horren berri eman badio epaile edo auzitegi eskudunari.

2. Nolanahi ere, epailea edo auzitegia estatu betearazleko agintaritza eskudunarekin harremanetan egongo da uneoro zaintza-neurrien ikuskapenean etenik egon ez dadin.

120. artikulua. *Espainiako agintaritza judizial emaileak behin-behineko espetxeratzearen ordezkko neurriei buruzko ebazpenari dagokionez geroago erabakiak hartzeko dituen eskumenak.*

1. Espainiako epaile edo auzitegi emailea eskuduna izango da geroago behin-behineko espetxeratzearen ordezkko neurriei buruzko erabakiak hartzeko, ofizios edo inputatuak zaintza-neurri bat ez duela bete ohartarazten duen agintaritza betearazlearen jakinarazpenaren ondorioz edota behin-behineko askatasunaren ondorengo erabaki bat hartzea eragin dezakeen beste informazio baten ondorioz.

Zehazki, epailea edo auzitegia eskuduna izango da hauei buruz erabakitzeko:

- a) Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena berritu, berrikusi edo ezeztatzeaz.
- b) Erabakitako zaintza-neurriak aldatzeaz.
- c) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat edo ondorio berak dituen beste edozein ebazpen judizial emateaz.

2. Halaber, Espainiako agintaritzak judizial emaileak geroko horrelako erabakiak hartu dituela berehala jakinaraziko dio agintaritzak betearazleari, bai eta erabakitako zaintza-neurrien aurka errekurtsioa aurkeztu dutela ere.

### III. KAPITULUA

#### **Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena betearaztea**

121. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena Espainian betearaztea.*

1. Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpenak aitortzea ez da tipifikazio bikoitzaren kontrolari lotuta egongo, baldin eta ebazpen horiek 20. artikuluan 1. paragrafoan zerrendatutako delituetakoren bat gisa tipifikatutako gertaerei badagozkie, betiere estatu emailean gutxienez hiru urteko gehieneko iraupena duten askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriekin zigortzen badituzte.

2. Espainiara igorritako behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena aitortu ahal izango da, baldin eta, hori emateko eskatutako xedeak beteta, honako egoeraren bat gertatzen bada soilik:

- a) Inputatuak legezko eta ohiko bizilekua Espainian izatea, betiere itzultzea onartzen badu neurrien berri eman ondoren.
- b) Espainiako agintaritzak eskudunak behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena Espainian betearazteko helaraz diezaioten onartzea inputatuak estatu emailean horrela eskatu duenean.

122. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena aitortzeaz erabakitzeko prozedura.*

1. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaile eskudunak ahalik eta lasterren erabakiko du eta estatu emaileko agintaritzari jakinaraziko dio ebazpena aitortzen duen eta zaintza-neurriak ikuskatzeko ardura bere gain hartzen duen.

Erabaki hori emateko hogeitun egun balioduneko epea egongo da gehienez, ebazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita, betiere salbuespenez Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaile eskudunak estatu emaileko agintaritzari jakinarazten ez badio gehieneko epe hori ezin duela bete; hala, horrela gertatuz gero, atzerapenaren zergatiak eta beharrezkotzat jotzen duen epe berria adieraziko dizkio.

2. Zaintza-neurriak ezartzen dituen ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkeztuz gero, ebazpena aitortzeko epea beste hogeitun egun baliodun gehiagoruz luzatuko da.

3. Estatu emailearen ebazpena aitortu ondoren, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak zaintza-neurriak ikuskatuko ditu inputatua Espainian dagoen unetik aurrera.

123. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriei buruzko ebazpena egokitzea.*

Ezarritako zaintza-neurriak ez badira bateragarriak Espainiako antolamendu juridikoarekin, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak, Fiskaltzari entzun ondoren, egokitu egingo ditu Prozedura Kriminalaren Legean

aurreikusitakoaren arabera, edota arau-hauste baliokideentzat aplikatu beharreko zigor-arluko bestelako prozesu-arau batzuen arabera; horrelakoak, ahal den neurrian, estatu emailean emandakoekin bat etorriko dira.

Egokitutako zaintza-neurria ez da inola ere hasieran ezarritakoa baino zorrotzagoa izango.

124. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurriei buruzko ebazpenaren aitortzea eta betearazpena ukatzea.*

1. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurriak ezartzen dituzten ebazpenak aitortzea eta betearaztea ukatuko du 32. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako kasuetan eta, gainera, baita honako hauetan ere:

a) Espainiako zigor-legeriaren arabera inputatuak, bere adinagatik, eta ebazpena oinarritzen den gertaerei dagokienez, zigor-erantzukizuna duela jotzerik ez dagoenean.

b) Behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurriei buruzko ebazpen bat helarazteko baldintzak betetzen ez direnean.

c) Inputatuak zaintza-neurriak bete ezean, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak hori entregatzeari uko behar badio atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduari buruzko Lege honetan xedatutakoarekin bat etorri.

2. 32. artikulua 1. paragrafoaren a) eta d) idatz-zatietan edo aurreko paragrafoaren b) idatz-zatian aitortzea eta betearaztea ukatzeko aurreikusitako arrazoiren bat egonez gero, ebazpena aitortzea eta betearaztea ukatu aurretik, Instrukzioko epaileak egoera argitzeko eta, hala badagokio, egindako okerra zuzen dezan eskatuko dio estatu emaileko agintaritzari.

3. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak baderitza artikulua honen 1. paragrafoaren c) idatz-zatian jasotako ukatzeko arrazoia aplikatu beharra dagoela baina, halere, ebazpena aitortzeko eta zaintza-neurriak ikuskatzeko prest badago, horren berri emango dio estatu emaileko agintaritzari eskudunari, eta eskatuko dio ziurtagiria kentzeko edo aitortzea onartzeko; horrez gain, ohartaraziko dio balitekeela inputatua ez entregatzea atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat oinarri hartuta.

125. artikulua. *Behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurriei buruzko ebazpenari dagokionez geroago erabakiak hartzeko eskumenak.*

1. Estatu emaileko agintaritzari eskudunak ebazpena berritzea, berrikustea edo kentzea erabakitzen badu, edota atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat ematea erabakitzen badu, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak geroko neurri horiek aitortuko ditu Espainian betearazteko. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua emanez gero, epaile eskudunak betearazten ari den neurriak jakinaraziko dizkio Auzitegi Nazionalako Instrukzioko epaile zentralari.

2. Estatu emaileko agintaritzari eskudunak zaintza-neurriak aldatzen baditu, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak bi hauek izango ditu aukeran:

a) Aldatutako neurriak egokitzea Espainiako antolamendu juridikoarekin bateraezinez direnean.

b) Aldatutako zaintza-neurriak ikuskatzeari uko egitea, baldin eta neurri horiek ez badaude Espainiak ikuskatzea hitzemandako neurrien artean.

126. artikulua. *Zaintza-neurrien ikuskapena areagotzea.*

Baldin eta estatu emaileko agintaritzari eskudunak zaintza-neurriak ikuskatzeko aurretik finkatutako gehieneko epea luzatzeko eskatzen badu, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak auziaren gorabeheren eta Espainiako antolamendu

juridikoan ezarritakoaren arabera erabakiko du eta, hala dagokionean, ikuskatzeko gehieneko epe berria adieraziko du.

127. artikulua. *Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epailearen betebeharrak zaintza-neurrien ikuskapen-aldian.*

1. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak zaintza-neurri baten ez-betetze oro eta geroko erabaki bat hartzea eragin lezakeen beste edozein informazio jakinaraziko dio estatu emaileko agintaritzak eskudunari VII. eranskinean ageri den ziurtagiriaren bidez.

2. Estatu emaileko agintaritzak ziurtagiria kentzen badu, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak bertan behar utziko du zaintza-neurrien ikuskapena dagokion jakinarazpena jaso bezain laster.

3. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak berehala jakinaraziko dio estatu emaileko agintaritzak eskudunari inputatuaren bizilekuaren aldaketa oro edota neurriak ezin dituela betearazi Espainian aurkitzerik ez duelako izan.

Halaber, Espainiako antolamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera zaintza-neurriak gehienez ikuska daitezkeen aldia ere jakinaraziko du, bai eta ezarritako zaintza-neurriak egokitze hartutako edozein erabaki ere.

4. Zaintza-neurriak ikuskatzean, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak, kasuaren inguruabarrak direla eta, neurriek jarraitu behar diren gaineko informazioa eskatu ahal izango dio estatu betearazleko agintaritzak eskudunari.

128. artikulua. *Zaintza-neurriak bete behar dituen pertsona entregatzea.*

Estatu emaileko agintaritzak eskudunak atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua bat eman badu, II. tituluan aurreikusitakoarekin bat etorri entregatuko dute inputatua.

129. artikulua. *Erantzunik gabeko jakinarazpenak.*

1. Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak pertsona berari buruzko hainbat jakinarazpen egin badizkio estatu emaileko agintaritzak eskudunari eta horiek geroko erabaki bat hartzea behar badute, betiere hori hartu ez badute, agintaritzak horri aipatutako erabakia gehienez hirurogei eguneko epean hartzeko errekerimendua egingo dio.

Estatu emaileko agintaritzak ez badu erabakirik hartzen adierazitako epean, Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak zaintza-neurriak ikuskatzeari uztea erabaki eta hartarako eskumena itzuli ahal izango du.

## VI. TITULUA

### Babesteko Europako agindua

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

130. artikulua. *Babesteko Europako agindua.*

1. Babesteko Europako agindua estatu kide bateko agintaritzak judicial edo baliokide batek babes-neurri batekin lotuta emandako zigor-arloko ebazpena da; ebazpen horrek beste estatu kide bateko agintaritzak eskudunari ahalmena ematen dio delituen biktimen edo biktima izan litezkeen aldeko neurriak hartzeko horiek bere lurraldean daudenean, baldin eta aipatutako delitu horiek haien osotasun fisikoa edo psikologikoa, duintasuna, askatasun indibiduala edo osotasun sexuala arriskuan jar badezakete.



2. Babesteko agindua zigor-arlo batean kautelaz ezarritako neurriei zein eskubideez gabetzeko zigorrei dagokienez eman daiteke, betiere honelakoak badira:

- a) Babestutako pertsona bizi den edo maiz egoten den udalerrri, toki edo eremu jakinetan sartzeko edo horietara gerturatzeko debekua.
- b) Babestutako pertsonarekin harremanik izateko debekua edo arautzea, baita telefonoz, posta elektronikoz edo posta arruntez, faxez edo beste edozein bidez izandakoei dagokienez ere.
- c) Babestutako pertsonarengana neurrian adierazitakoa baino tarte txikiagora hurbiltzeko debekua edo arautzea.

131. artikulua. *Babesteko Europako agindu bat emateko eta jasotzeko Espainiako agintari eskudunak.*

1. Babes-neurria hartzen duen ebazpena eman duten zigor-arloko prozeduraz arduratzen diren epaileak edo auzitegiak dira babesteko Europako agindu bat emateko eta helarazteko agintaritza eskudunak.

2. Biktima bizi den edo hala egin nahi duen tokiko Instrukzioko edo Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak dira babesteko Europako agindua aitortzeko eta betearazteko agintaritza eskudunak, betiere hurrengo artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, zaintzapeko askatasunaren edo behin-behineko espetxeratzearen ordezkotzat neurrien ebazpenak eman dituztenean, horrelakoak jada aitortu eta betearazi dituen epaile edo auzitegia izango da babesteko Europako agindua aitortzeko eta betearazteko eskuduna.

132. artikulua. *Babesteko Europako aginduaren eta elkarri aitortzeko beste ebazpen batzuen arteko erlazioa.*

Lege honetan aurreikusitako behin-behineko espetxeratzearen ordezkotzat neurriei edo zaintzapeko askatasunaren neurriei buruzko ebazpena aldeztu aurretik beste estatu kide bati helarazten bazaio, edo ondoren egiten bada, ebazpen horiek arautzen dituzten arauekin bat etorritik hartuko ditu biktima edo balizko biktima babesteko neurriak ebazpen horiek hartzeko agintaritza eskudunak, betiere babesteko Europako agindu bat beste estatu kide bati helarazi ahal izatearen kalterik gabe.

## II. KAPITULUA

### **Babesteko Europako agindu bat ematea eta helaraztea**

133. artikulua. *Babesteko Europako agindu bat emateko eta helarazteko betekizunak.*

Espainiako epaile edo auzitegi eskudunak babesteko Europako agindu bat hartu ahal izango du, baina horretarako, beste irizpide batzuekin batera, babestutako pertsonak estatu betearazlean egon behar duen aldiaren edo aldien iraupena kontuan hartuta, bai eta babesteko beharraren garrantzia ere, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- a) Babes-neurria hartzen duen ebazpena judizial penala ematea, ezarritako kautelazko neurriak edo eskubideez gabetzeko zigorrak izan, eta horrelakoek, antzeko edukia dutelako, biktima babesteko helburu bera izatea.
- b) Biktima Europar Batasuneko beste estatu kide batean bizitzea, egotea edota hori egiteko asmoa izatea.
- c) Biktimak babesteko agindua hartzeko eskatzea, bere kabuz edo bere tutore edo legezko ordezkariaren bitartez.

134. artikulua. *Babesteko Europako agindua emateko prozedura.*

1. Kapitulu honetan aurreikusitako babes-neurrietako bat hartzen duen Espainiako agintaritzak judizialak babestutako pertsonari edo haren legezko ordezkariari jakinaraziko dio babesteko Europako agindua eskatzeko aukera dagoela beste estatu kide batera joatea erabakitzen badu, aipatutako eskaera aurkezteko oinarritzko baldintzak ere zehaztuko dizkio. Agintaritzak babestutako pertsonari aholkatuko dio eskaera estatu emaileko lurraldetik irten aurretik aurkezteko.

2. Biktimak estatu betearazlean egin ahal izango du eskaera.

3. Babesteko Europako agindua eman aurretik, arriskuaren eragileari entzunaldia emango zaio, baina babestutako pertsonaren helbide edo bestelako daturik ez zaio emango, betiere hori beharrezkoa ez bada hartutako neurria betearazteko.

Inputatuari edo kondenatuari ez bazaio prozesuaren barruan aurretik entzun babesteko neurriak agintzen zituen ebazpena hartzearekin lotuta, deitu egingo zaie hari, abokatuak lagunduta, Fiskaltzari eta agertutako gainerako alderdiei agerraldi batera; agerraldi hori gehienez 72 orduko epean egin beharko da eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita. Epaille edo auzitegiak auto arrazoitu bidez ebatziko du.

135. artikulua. *Babesteko Europako aginduaren dokumentazioa.*

Babesteko Europako agindua VIII. eranskinean aurreikusitako ziurtagirian dokumentatuko da, eta adieraziko du behin-behineko espetxeratzearen ordezkotako neurri edo zaintzapeko askatasunaren neurri buruzko ebazpenik helarazi zaion betearazlea ez beste estatu bati; halaber, dagozkion ziurtagiriak estatu horretako zer agintaritzari igorri zitzaizkion ere adieraziko du.

136. artikulua. *Babesteko Europako agindu bat hainbat estatu betearazleri helaraztea.*

Babesteko Europako agindua hainbat estatu betearazleri aldi berean helarazi ahal izango zaio biktimak adierazten badu hainbat estatutan egongo dela.

137. artikulua. *Espainiako epaille edo auzitegiaren eskumenak babesteko Europako agindua helarazi ostean.*

1. Babesteko Europako agindua eman duen Espainiako agintaritzak judizialak eskumen eskusiboa izango du, Espainiako antolamendu juridikoan xedatutakoarekin bat etorritik, hauei buruzko ebazpenak emateko:

a) Babes-neurria eta babesteko Europako agindua luzatu, berrikusi, aldatu, ezeztatu eta indargabetzea.

b) Babes-neurria ezeztatzearen ondorioz askatasunaz gabetzeko neurri bat ezartzea, betiere babes-neurria hartu bada behin-behineko askatasun-neurriak edo zaintzapeko askatasunaren neurriak hartzeko ebazpen baten ondorioz, Lege honekin bat etorritik betiere.

2. Espainiako agintaritzak judizialak berehala jakinaraziko dio estatu betearazleko agintaritzak eskudunari babesteko Europako agindua aldatzeko edozein ebazpen. Halaber, dena delako kasuaren zirkunstantzietan babesteko Europako aginduak emandako babesari eusteko beharri buruz horrek egin lezakeen informazio-eskaerari ere erantzun dio.

3. Babes-neurria zaintzapeko askatasunaren epai edo ebazpen batean jasotzen denean, agintaritzak emaileak babesteko Europako agindua berehala luzatu, berrikusi, aldatu, ezeztatu edo indargabetuko du, eta betearazteko agintaritzak eskudunari horren berri emango dio.

### III. KAPITULUA

#### Babesteko Europako agindua betearaztea

138. artikulua. *Babesteko Europako agindu bat betearaztea.*

1. Babesteko Europako agindu bat betearazteko jasotzen duen epaile edo auzitegi eskudunak, Fiskaltzari hiru egunez entzunaldia eman ondoren, hori luzatu gabe aitortuko du eta Espainiako zuzenbidean antzeko kasu batentzat aurreikusitako neurrietako bat ezartzen duen ebazpena emango du babestutako pertsona babestea bermatzeko.

Babesteko Europako agindua Espainiako zuzenbidean neurri horiei dagokien lehenetasun beraz aitortuko da, kasuaren zirkunstantzia bereziak kontuan harturik, haren premia, babestutako pertsona estatu betearazleko lurraldera iristeko aurreikusitako eguna eta, ahal den neurrian, babestutako pertsonak duen arriskuaren larritasuna barne hartuta.

2. Epaileak edo auzitegiak betearazteko agintaritzak eskudun gisa hartzen duen babes-neurria zein hori bete ezean ondoren hartzen dena, ahal den neurrian, estatu emaileak agindutako babes-neurrira egokituko dira.

3. Epaileak edo auzitegiak hartutako neurriak eta horiek ez betetzeak ekarritako ondorio juridikoak jakinaraziko dizkio arriskuaren eragileari, estatu emaileko agintaritzak eskudunari eta babestutako pertsonari, betiere Espainiako zuzenbidean eta kapitulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik. Arriskuaren eragileari ez diote jakinaraziko babestutako pertsonaren helbidea edo harremanetarako bestelako daturik, betiere hori beharrezkoa ez bada hartutako neurria betearazteko.

4. Babesteko aginduan bildutako neurriak betetzen direla zaintzeko, baita dagozkion erregistroetan inskribatzeko ere, jarraibide egokiak emango dizkiete Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoei aitortzea erabakitzen duen autoan.

5. Epaile edo auzitegi betearazleak uste badu babesteko Europako aginduarekin igorritako informazioa osatugabea dela, berehala jakinaraziko dio estatu emaileko agintaritzak eskudunari, eta arrazoizko epe bat finkatuko du agintaritzak emaileak falta den informazioa aurkez dezan.

6. Betearazteko neurriak hartzeko Espainian aitortzeko eta betearazteko eskuduna den epaile edo auzitegiaren aurrean eskatzen badu biktimak, horrelakoek berehala helaraziko diote eskaera hori estatu emaileko agintaritzak eskudunari.

139. artikulua. *Babes-neurri bat ez betetzea.*

1. Hartutako babes-neurriren bat bete ezean, Espainiako agintaritzak judizialak eskumena izango du honelakoak egiteko:

a) Zigor-zehapenak ezartzeko eta beste edozein neurri hartzeko neurri hori ez betetzearen ondorioz, baldin eta ez-betetze hori zigor arau-haustea bada Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik.

b) Ez-betetzearekin lotutako beste edozein ebazpen hartzeko.

c) Ez-betetzea amaiarazteko premiazko behin-behineko neurriak hartzeko, estatu emailearen geroko ebazpen baten zain, hala badagokio.

2. Espainiako agintaritzak judizialak babesteko Europako agindua dela eta hartutako neurriren baten ez-betetze oro jakinaraziko dio estatu emaileko agintaritzak eskudunari. IX. eranskin gisa ageri den ziurtagiriaren bitartez egingo da jakinarazpen hori.

140. artikulua. *Babesteko Europako aginduaren aitorpena eta betearazpena ukatzea.*

1. Espainiako agintaritzak judizialak babesteko Europako agindu bat aitortzeari uko egingo dio, baldin eta, 32. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gain, egoera hauetakoren bat ere gertatzen bada:

a) Ebazpena titulu honetan aurreikusitako neurrietako bati buruzkoa ez izatea.

b) Babes-neurria Espainian zigor arau-hausterik ez dakarren gertaera bati buruzkoa izatea.

c) Espainiako zuzenbidearen arabera indultua jaso duen eta eskumena duen gertaera edo jokabide bati dagokion zigorra edo neurria betearaztearen ondorio izatea babesa.

d) Espainiako zuzenbidearen arabera, arriskua eragiten duen pertsonak, adinagatik, babes-neurria hartzea eragin duen gertaera edo jokabideari dagokionez, zigor-erantzukizuna duela jotzerik ez egotea.

2. Babesteko Europako agindu bat aitortzeari uko egiten dion Espainiako agintaritza judizialak erabakia eta horren arrazoiak estatu emaileko agintaritza eskudunari ez ezik, babestutako pertsonari ere jakinaraziko dizkio, eta azken horri, hala badagokio, duen estatuko zuzenbidearekin bat etorritik babes-neurri bat hartzeko eskatzeko aukera eta dauden errekurtsio-bideak ere jakinaraziko dizkio.

141. artikulua. *Babesteko Europako agindua aldatzea.*

Estatu emaileko agintaritza eskudunak babesteko Europako agindua aldatzen duenean, Espainiako agintaritza judizialak, Fiskaltzari entzun ondoren, hartutako neurriak aldatuko ditu; horrelakorik ez du egingo, dena den, aldaketak kapitulu honetan aurreikusitako debeku edo murrizketa motekin bat ez badatoz edo babesteko Europako aginduekin helarazitako informazioa osoa ez bada eta ezarritako epearen barruan osatu ez badute.

142. artikulua. *Babesteko Europako agindua baten bidez hartutako neurrien amaiera.*

1. Espainiako agintaritza judizialak, Fiskaltzari entzun ondoren, babesteko Europako agindu bat betearazteko hartutako neurriak eten ahal izango ditu:

a) Estatu emaileko agintaritza eskudunak babesteko Europako agindua ezeztatu edo indargabetu badu, dagokion jakinarazpena jaso bezain laster.

b) Babestutako pertsona Espainian ez dela bizi edo ez dagoela edo Espainiako lurraldetik behin betiko atera dela adierazten duten zantzu argiak badaude.

c) Espainiako antolamendu juridikoarekin bat etorritik, hartutako neurrien gehieneko indarraldia amaitu bada.

d) Aurreko artikuluan aurreikusitako kausengatik babes-neurria aldatu ezean.

e) Baldin eta, babesteko Europako agindua aitortu ondoren, estatu betearazleari behin-behineko espetxeratzearen ordezkotzat neurriei buruzko ebazpena edo zaintzapeko askatasunaren ebazpena helarazi bazaio.

2. Espainiako agintaritza judizialak ebazpen horren berri berehala emango die estatu emaileko agintaritza eskudunari eta, ahal denean, babesteko pertsonari.

3. Babes-neurriei amaiera eman aurretik, Espainiako agintaritza judizialak estatu emaileko agintaritza eskudunari eskatu ahal izango dio dena delako kasuaren egoera aintzat hartuta babesteko Europako aginduak emandako babesari eutsi beharra dagoen, eta horretarako hilabeteko epea emango dio gehienez.

## VII. TITULUA

### Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

143. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena.*

1. Konfiskatu edo frogabide gisa erabil litezkeen ondasunak suntsitzea, eraldatzea, lekualdatzea, eskualdatzea edo besterentzea behin-behineko eragozteko ebazpenak aitortzeko eta betearazteko araubidea arautzen da titulu honen bidez.

2. Enbargatzeko ebazpenak era guztietako ondasunei dagokienez hartu ahal izango dira, horrelakoak materialak edo immaterialak, higigarriak edo higiezinak izan, bai eta ondasun horren titulu edo eskubidearen egiaztagiriei dagokienez ere, betiere estatu emaileak arau-hauste baten emaitza edo arau-hauste horren tresnak edo objektuak direla jotzen badu.

3. Zigor-arloko prozedura batean frogabide gisa ondoren erabil daitezkeen objektu, agiri edo datuei dagokienez hartu ahal izango dira frogak segurtatzeko ebazpenak.

144. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena emateko eta betearazteko eskumena duten Espainiako agintari judizialak.*

1. Neurria hartu behar duten prozesuaz arduratzen diren epaileak edo auzitegiak dira ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen baten agintaritza emaileak; hala ere badira oinarrizko eskubideak mugatzen ez dituen frogak segurtatzeko neurria hartu behar duten ikerketa-eginbideak zuzentzen dituzten fiskalak.

2. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen bat betearazteko agintaritza eskudun dira Espainian segurtatu beharreko ondasunak edo agiriak edota frogak dauden tokiko Instrukzioko epaileak, bai eta fiskalak ere, beren eskumenen barruan oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten neurriak hartu gabe, frogak segurtatzeko har ditzaketen neurriak betearazteko.

Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenaren xedearen kokalekua ondoren aldatzeak ez du ekarriko Espainiara helarazitako ebazpena aitortzea eta betearaztea erabaki duen Instrukzioko epailearen edo fiskalaren eskumena ondoren galtzea.

Ziurtagiria barruti ezberdinetan kokatutako ondasunei dagokienez eman bada, lehenik jasotzen duen Instrukzioko epailea, betiere bere barrutian gutxienez ondasunetako bat badago, eskuduna izango da gainerako guztiak enbargatzeaz edo segurtatzeaz arduratzeko.

Agindu bakarrean ondasun baten prebentziozko enbargoa edo segurtatzea egiteko eskatzen bada, ondasun hori enbargatzea edo segurtatzea Instrukzioko epailearen eskumena izanik, eta gauza bera Fiskaltzaren eskumena izan litekeen beste ondasun bati dagokionez, lehena ebazpen horretaz osoki arduratuko da, eta bi ebazpen ezberdinetan ezin izango da bereizi.

#### II. KAPITULUA

### Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena ematea eta helaraztea

145. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena helaraztea.*

1. Baldin eta Espainiako agintaritza judizialak beharrezkotzat jotzen badu Europar Batasuneko beste estatu kide bateko lurraldean dauden ondasunak prebentzioz

enbargatzeko edo frogak segurtatzeko neurri bat, ebazpena agintaritza judizial eskudunari igorriko dio betearaz dezan.

2. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena emateko eskakizunak, hauek dira:

a) Ebazpen hori epaile edo auzitegi batek zigor-arloko prozesu batean ematea ondoren ondasunak konfiskatzeko edo froga gisa ondorioak izateko asmoz, edota Fiskaltzak ikerketa-eginbide batzuetan frogak segurtatzeko neurri bat, oinarritzko eskubideak mugatzen ez dituen, hartzea.

b) Prebentzioz enbargatu edo segurtatu beharreko efektuak beste estatu kide batean egotearen zantzuak agertzea zigor-arloko prozesuan edo ikerketa-eginbideetan.

3. Ebazpenean argi eta garbi adieraziko da behar den lankidetzatza judiziala enbargatu beharreko ondasunak edo frogak Espainiako agintaritza judizialari eskualdatzea den, edo horrekin batera konfiskatzeko eskaera bat ere dagoen, edota estatu horretan egoteko eskatzen duten aurreko neurrietako batzuk hartu zain.

146. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena emateko prozedura.*

1. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen bat eman aurretik, estatu betearazleko agintaritza eskudunari behar den informazioa eskatu izango zaio segurtatu beharreko ondasuna estatu horretan benetan dagoela egiaztatzeko. Informatika-erregistroen edo eman dezaketela jotzen diren organismoen bitartez ere eskuratu ahal izango da aipatutako informazioa.

2. Ofizios edo alderdi batek eskatuta erabaki ahal izango da ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpena.

3. Zigor-arloko prozesuan alderdiek ebazpena emateko eskatzen badute, ondasuna izan badela eta estatu betearazleko lurraldean dagoela adierazten duten frogagiriak edo bestelako frogak aurkezteko eskatuko zaie.

147. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenaren dokumentazioa.*

1. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena X. eranskinean aurreikusitako ziurtagirian dokumentatuko da, eta kautela-neurria erabakitzen duen ebazpen judizialarekin batera igorriko da.

2. Frogabideen balioa bermatzeko beharrezkoa denean, erabakitako neurriak betearazteko orduan Espainiako zuzenbideko aurreikusitako formalitateak eta prozedurak, ziurtagirian berariaz adierazitakoak, bete beharko direla zehaztuko da.

148. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena zenbait estatu betearazleri helaraztea.*

Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena batera helarazi ahal izango zaie estatu betearazle bati baino gehiagori, betiere ebazpenaren xede diren ondasunak estatu betearazle ezberdinetan daudela uste izateko arrazoi sendoak baditu Espainiako agintaritza judizial eskudunak.

149. artikulua. *Espainiako agintari emailearen eskumenak, ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen bat helarazi ostean.*

1. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena helarazita, baldin eta agintaritza betearazleak segurtatzearen iraupena mugatu badu eta neurria, denbora igaro delako, altxatzeko alegazioak biltzen baditu, epaile edo auzitegiak Fiskaltzari eta agertutako gainontzeko alderdiei bost egunez entzungo die. Horren ostean,

epaile edo auzitegiak jakinarazpena helaraziko dio agintaritza betearazleari, neurriari eusteko arrazoiak jakinarazteko edota jada ez dela beharrezkoa azaltzeko.

Jakinarazpen hori egingo du, halaber, ikerketa-eginbideen barruan agintaritza betearazleak eskatutako alegazioentzat helarazpena jasotzen duen Fiskaltzak.

2. Estatu betearazlean emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsio baten izapideetan agintaritza betearazleak alegazioak eskatzen badizkio Espainiako agintaritza emaileari, epaile edo auzitegiak, agertutako alderdiei eta Fiskaltzari entzunda, hamar eguneko epea izango du alegazio horiek emateko.

Fiskaltzak alegazio horiek igorriko ditu ebazpenaren helarazpena ikerketa-eginbide batzuen barruan egin badu.

3. Baldin eta ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpenean zehaztu badute eskatutako lankidetzak judiziala horrelako ondasun edo frogak estatu betearazlean gelditzea dela harik eta ondasunak konfiskatzeko edo frogak Espainiara helarazteko agindu arte, Espainiako agintaritza emaileak konfiskazio- edo eskualdatze-eskaera igorri ahal izango du.

### III. KAPITULUA

#### **Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena betearaztea**

150. artikulua. *Tipifikazio bikoitzaren kontrol eza.*

Baldin eta ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena 20. artikulua 1. paragrafoan zerrendatutako delitu-kategorietako delitu bategatik eman bada eta aipatutako delituari estatu emailean askatasunaz gabetzeko zigor bat ezartzen bazaio, betiere horren gehieneko iraupena, gutxienez, hiru urtekoa bada, Espainiako agintaritza judizial eskudunak neurri hori gertaeren tipifikazio bikoitzaren kontrolik gabe egitea erabakiko du.

151. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena aitortzeko prozedura.*

1. Ebazpena betearazteko erabakia berehala hartuko da eta luzatu gabe jakinaraziko zaie agintaritza judizial emaileari eta Fiskaltzari, idatziz jasota uzten duen edozein bitartekoren bidez. Espainiako agintaritza judizialek dagokiona ebatzi eta ebazpena jaso osteko 24 orduen barruan jakinaraziko dute.

2. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena jasotzen duen agintaritza eskudunak, jaso ondoko bost eguneko epean, beharrezko neurriak hartuko ditu prebentzioz enbargatu beharreko ondasunaren kokalekuaren berri jasotzeko.

Halaber, segurtatzeko neurria betearazteko garrantzitsua izan daitekeen edozer informazio gehigarri eman dezan eskatu ahal izango dio agintaritza emaileari.

152. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpena betetzeko neurriak.*

1. Ondasunen prebentziozko enbargatzea edo frogen segurtatzea aitortzea eta betearaztea erabakitzen duen ebazpenak hori gauzatzeko zehazki zer kautela-neurri hartu behar den zehaztuko du. Neurri hori honelakoa izan daiteke: ondasuna gordetzea; prebentzioz enbargatzea; bankuko kontuak, gordailuak, baloreak edo bestelako titulu, balore edo aktibo finantzarioak blokeatzea, edota zigor-arloko prozesuan erabaki daitekeen beste edozein kautela-neurri, eta beti egin beharko da Espainiako antolamendu juridikoaren aurreikuspenekin bat etorriz.

2. Agintaritza eskudunak berehala jakinaraziko dio agintaritza emaileari segurtatzea gauzatzeko hartutako neurrien eduki zehatza.

3. Hartutako neurriak autoan zehaztutako iraupena bete baino hiru hilabete lehenago, estatu emaileko agintaritza eskudunari horren berri emango zaio neurriari eustea edo hori altxatzea egokia den alegatu dezan.

4. Segurtatzearen xedea froga-elementu bat izan edo delituaren emaitza, tresna edo ondorio bat izan, Instrukzioko epaile edo fiskal eskudunak errespetatu egingo ditu agintaritza emaileak adierazitako formalitateak eta prozedurak, betiere horiek ez badira gure antolamendu juridikoaren oinarrizko printzipioen aurkakoak.

153. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko neurriaren iraupena.*

1. Agintaritza judizial emaileak eginiko eskualdatze- edo konfiskazio-eskaeraz behin betiko ebatzi arte eutsiko zaio neurriari, har litezkeen neurri hertsigarri osagarriak eragotzi gabe.

2. Hala ere, agintaritza emaileari kontsulta egin ostean, Espainiako agintaritza eskudunak, prozesu-arau nazionalekin bat etorritik, baldintzak ezarri ahal izango ditu, betiere kasuaren egoerari kasu eginez, iraupena mugatzeko edo dena delako neurria aldatzeko, efektu judizialak suntsitzea eta aldez aurretik egitea barne. Baldin eta, baldintza horiekin bat etorritik, neurria ondoriorik gabe uztea edo aldatzea proposatzen badu, agintaritza emaileari berehala jakinaraziko dio, egoki deritzona adieraz dezan.

3. Agintaritza emaileak eskatutako neurria ondoriorik gabe utzi dela jakinarazten duenean, berehala kenduko da neurri hori.

154. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen baten aitortpena eta betearaztea ukatzea.*

Espainiako eskudun agintaritzak ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpen bat aitortzeari uko egingo dio 32. artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren bat gertatuz gero.

155. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpen bat betearazteko ezintasuna.*

Agintaritza emaileari berehala jakinaraziko zaio neurria praktikan ez dagoela gauzatzerik ondasunak edo frogak desagertu direlako, suntsitu dituztelako, ziurtagirian adierazitako tokian aurkitu ez dituztelako edo ondasuna edo froga-elementua non dagoen, hari kontsulta eginda ere, beharrezko zehaztasunez adierazi ez dutelako.

156. artikulua. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko neurri baten betearazpena etetea.*

1. Ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko Europar Batasuneko beste estatu kide bateko agintaritza judizialak helarazitako ebazpen bat betearaztea eten ahal izango da honako kasu hauetan:

a) Betearazteak Espainian abian dagoen ikerketa penal bat behar bezala garatzea eragotz badezake, beharrezkoa den denboran.

b) Dena delako ondasunen edo frogan gainean aurretik neurri bat eman badute prozedura judizial edo administratibo batean, harik eta hori ondoriorik gabe uzten duten arte, betiere neurri horrek lehentasuna badu zuzenbide nazionalarekin bat etorritik kausa penaletan emandako efektuak eta instrumentuak kentzeko geroko ebazpenekiko.

2. Espainiako agintaritza eskudunak agintaritza emaileari jakinaraziko dio dena delako ondasunari dagokionez emandako beste edozein neurri hertsigarri.



## VIII. TITULUA

**Konfiskazio-ebazpenak**

## I. KAPITULUA

**Xedapen orokorrak**157. artikulua. *Konfiskatze-ebazpenak.*

1. Titulu honetan aitortzeko eta betearazteko araubidea araututako ebazpenen bitartez jurisdikzio-organo batek zehapen edo neurri irmo bat ezartzen du arau-hauste penal batekin edo hainbatekin lotutako prozedura baten ondorioz, eta horrek ondasunez behin betiko gabetzea dakar.

2. Konfiskazio-ebazpenak era guztietako ondasunei eragin diezaieke –materialak edo immaterialak, higigarriak edo higiezinak izan–, bai eta ondasun horien gaineko titulu edo eskubide baten egiaztagiriei edo indar juridikoa duten agiriei ere, baldin eta estatu emaileko jurisdikzio-organoak horiei dagokienez hau erabaki badu:

a) Zigor arau-hauste baten emaitza direla edo guztiz edo zati batez emaitza horren baliokide direla.

b) Arau-hauste horren instrumentuak direla.

c) Estatu emailean konfiskatzeko ahalmen handituaren egoeretako bat aplikatzeagatik konfiskatu ahal direla (kasu horiek delituarekin lotutako emaitzen, instrumentuen eta ondasunen konfiskazioari buruzko Kontseiluaren 2005eko otsailaren 24ko 2005/212/JAI Esparru Erabakiaren 3. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan zehaztuta daude).

d) Edota estatu emaileko zuzenbidearekin bat etorritik handitutako konfiskazio-ahalmen batekin lotutako beste edozein xedapen betez konfiskatu ahal direla.

158. artikulua. *Espanian konfiskatze-ebazpen bat helarazteko eta betearazteko agintari judizial eskudunak.*

1. Konfiskatzeko ebazpena emateko agintariak dira ondasun bat konfiskatzea ondorio osagarri gisa ezartzen duen epaia betearazteaz arduratzen diren epaileak edo auzitegi penalak.

2. Konfiskatzeko ebazpena aitortzeko eta betearazteko agintaritza eskuduna konfiskatu beharreko ondasunak dauden tokiko zigor-arloko epailea da.

Ondasunaren kokalekua ondoren aldatzeak ez du ekarriko Espainiara helarazitako konfiskazio-ebazpena aitortzea eta betearaztea erabaki duen zigor-arloko epaileak eskumena galtzea.

Baldin eta ziurtagiria barruti ezberdinetan kokatutako ondasunei dagokienez eman bada, lehenik jasotzen duen zigor-arloko epailea, betiere bere barrutian gutxienez ondasun horietako bat badago, eskuduna izango da gainerako guztiak konfiskatzeaz arduratzeko.

Agintaritza emaileak ez badaki konfiskatu beharreko ondasuna non dagoen eta ziurtagirian ebazpena zuzenduta dagoen pertsonaren bizilekua edo helbide soziala adierazi badu, udalerrri horretako zigor-arloko epailea izango da eskuduna, nahiz eta ondoren egiaztatzen den ondasuna beste barruti batean kokatuta dagoela edo pertsona horrek bizilekua lekuz aldatu duela.

Baldin eta ziurtagiria Espainiako lurraldeko toki ezberdinetan bizilekua duten hainbat pertsonari dagokienez eman bada, lehenik jasotzen duen zigor-arloko epailea, betiere bere barrutian gutxienez bizileku horietako bat badago, eskuduna izango da ziurtagirian aipatutako gainerako pertsonen aurka agindutako konfiskazioaz arduratzeko.

## II. KAPITULUA

### Konfiskatze-ebazpen baten helarazpena

159. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen baten helarazpena.*

1. Konfiskatzeko ebazpena helaraziko zaio konfiskatu beharreko ondasunak daudela pentsatzeko oinarri sendoak dauden Europar Batasuneko estatu kideko agintaritzak eskudunari.

2. Ondasun horiei dagokienez zigor-arloko prozeduretan ondasunak enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpenik aurretik eman eta betearazi badute, zigor-arloko epaileak aurrekariak eskatuko dizkio Instrukzioko epaileari horiek izapidetzen jarraitzeko.

3. Baldin eta diru kopuru bati dagokion konfiskatze-ebazpena bada, ebazpenaren xede den pertsona natural edo juridikoak ondasunak edo diru-sarrerak dituela pentsatzeko arrazoi sendoak dauden Europar Batasuneko estatu kideko agintaritzak eskudunari helaraziko zaio.

4. Baldin eta Espainiako agintaritzak judizial penalak ez badu arrazoi sendorik konfiskatze-ebazpena zer estatura igor dezakeen zehazteko, ebazpena zuzenduta dagoen pertsona natural edo juridikoak ohiko bizilekua edo helbide soziala duen estatu kideko agintaritzak eskudunari helaraziko dio.

160. artikulua. *Konfiskatze-ebazpenaren dokumentazioa.*

Konfiskatzeko ebazpena XI. eranskinean aurreikusitako ziurtagirian dokumentatuko da, eta ondasunaz behin betiko gabetzea erabakitzen duen ebazpen judizialarekin batera igorriko da.

Ziurtagirian berariaz adieraziko dute ezin dela askatasunaz edo bestelako eskubideez gabetzeko zigorrak ezarri konfiskatzeko ebazpenaren alternatiba gisa.

Halaber, konfiskatu beharreko ondasunei dagokienez aurretik ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpenik betearazi badute, hori berariaz zehaztu beharko dute.

161. artikulua. *Konfiskatze-ebazpena helarazteko prozedura.*

1. Eman aurretik, estatu betearazleko agintaritzak eskudunari edo bestelako erakundeei neurriak eragindako ondasunen edo diru-sarreraren gaineko informazioa emateko eskatu ahal izango diete, bai eta konfiskazioak eragingo dion pertsonaren ohiko bizilekuari edo helbide sozialari buruzko informazioa emateko ere.

2. Konfiskatzeko ebazpena ofizios edo alderdi batek eskatuta eman ahal izango da. Azken kasu horretan, ondasun jakin hori dagoela eta estatu betearazleko lurraldean dagoela, estatu horretan diru-sarrerak daudela edo ebazpena zuzendu zaion pertsonak ohiko bizilekua edo egoitza soziala estatu horretan duela erakusten duten egiaztagiriak edo bestelako zantzu sinetsgarriak aurkezteko eskatuko zaio alderdiari.

3. Izapide horiek egin bitartean ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpenak eman edo ohiko laguntza judizialeko bestelako eskaerak egin ahal izango dituzte konfiskatzea, agindutakoan, betearaz dadin bermatzeko.

162. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen bat estatu kide bati baino gehiagori helaraztea.*

1. Ondasun zehatz batzuei dagokien konfiskatze-ebazpen bat batera helarazi ahal izango zaie estatu betearazle bati baino gehiagori, baldin eta honako egoera hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Espainiako agintaritzak judizial eskudunak konfiskatzeko ebazpenaren xede diren ondasunak estatu betearazle ezberdinetan daudela pentsatzeko arrazoi sendoak izatea.

b) Konfiskatzeko ebazpenean jasotako ondasun zehatz bat konfiskatzeko estatu betearazle batean baino gehiagotan esku hartu beharra izatea.

c) Espainiako agintaritza judizial eskudunak konfiskatzeko ebazpenaren barruko ondasun jakin bat zehaztutako bi estatu betearazleetako edo gehiagoko batean dagoela pentsatzeko arrazoi sendoak izatea.

2. Diru kopuru bati buruzko konfiskatze-ebazpen bat batera helarazi ahal izango zaie estatu betearazle bati baino gehiagori, betiere Espainiako agintaritza judizial eskudunak uste badu hori egiteko arrazoi espezifikoak daudela. Besteak beste, horrelako arrazoiak daudela joko da honako egoera hauetan:

a) Baldin eta hori enbargatzea ez bada prebentzioz agindu, Lege honekin bat etorriz.  
b) Baldin eta estatu emailean eta edozein estatu betearazletan konfiskatu ahal diren ondasunen balioa seguruenik ez bada aski konfiskatzeko ebazpenaren xede den zenbateko osoari erantzuteko.

3. Betiere konfiskatzeko ebazpena osorik bete ez bada, ondoz ondo igorriko zaie kondenatuaren ondasunak ustez dauden estatuei.

163. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen baten helarazpenaren ondorioak.*

1. Konfiskatzeko ebazpen bat helarazteak ez du Espainiako agintaritza judizial penalak betearazi ahal izatea eragotziko.

2. Diru kopuru bati buruzko konfiskatzeko ebazpen bat gutxienez estatu betearazle bati helaraziz gero, Espainiako agintaritza judizialak bermatuko du ebazpena betearaztearen ondoriozko balio osoa ez dela horretan zehaztutako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa izango.

3. Espainiako agintaritza judizial penalak eragindako estatu betearazle guztietako agintaritza eskudunari berehala jakinaraziko dio, idatziz jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein modu erabilia, honako kasu hauetan:

a) Betearazpenak zehaztutako gehieneko zenbatekoa gainditzeko arriskua dagoela uste badu. Aipatutako arriskurik jada ez dagoela uste duenean ere jakinaraziko du, halaber.

b) Konfiskatzeko ebazpena osoki edo zati batez Espainian edo beste estatu betearazle batean betearazi bada. Horrelakoetan, oraindik betearazi gabe dagoen konfiskatze-ebazpenaren zenbatekoa zehaztuko da jakinarazpenean.

c) Baldin eta, konfiskatze-ebazpen bat helarazi ondoren, hori betez kondenatuak bere borondatez ordaindutako diru kopuru bat jaso badu Espainiako agintaritza batek. Horrelakoetan, ebazpenaren zati bat betearazi gabe gelditzen den eta horren zenbatekoa adieraziko dute.

164. artikulua. *Konfiskatzearen bihurketa.*

1. Konfiskatze-ebazpen batek ondasun zehatz bati eragiten badio eta hori konfiskatzerik ez badago, Espainiako agintaritza judizialak estatu betearazleko agintaritza eskudunari eskatuko dio konfiskazioa dena delako ondasunaren pareko balioa duen diru kopuru bat ordaintzeko betebeharrak bihur dadin.

2. Bihurketa horretarako, dena delako ondasun zehatza ezin dela konfiskatu jakin ondoren, ondasunaren tasazio judiziala egitea erabakiko da bost eguneko epean. Horren emaitzaren berri emango zaie bost eguneko Fiskaltzari eta agertutako alderdi guztiei, tasazioaren aurka egin dezaten edo zuzenbidearen arabera dagokiena adieraz dezaten. Intzidentea amaituko da epaile edo auzitegiak auto bat emanaz ordaintzeko betebeharraren zenbatekoa zehazteko, eta irmo denean, horren berri emango zaio agintaritza betearazleari.

165. artikulua. *Konfiskatutako ondasunak xedatzeari buruzko agintarien arteko akordioa.*

1. Konfiskatzeko ebazpena eman duen epaile edo auzitegi eskudunak konfiskatutako ondasunen xedapenari buruzko akordioa egin ahal izango du agintaritza betearazleak horrela eskatzen duenean. Kasu horretan, konfiskazioaren gauzapena horri buruz erabakitzen denaren arabera izango da.

2. Espainiako agintaritza judizialak konfiskatze-ebazpena betearazteak ekarri dituen gastu bereziei buruzko jakinarazpena jasotzen badu estatu betearazleko agintaritzaren aldetik, horren berri emango dio Justizia Ministerioari kostuak estatu betearazlearekin banatzeari buruzko akordio bat egiteko.

### III. KAPITULUA

#### Konfiskatze-ebazpen baten betearazpena

166. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen bat aitortzea.*

1. Zigor-arloko epaile eskudunak konfiskatze-ebazpen bat aitortu eta betearaziko du dagokion ondasuna edo eragindako pertsonaren helbidea edo, hala dagokionean, helbide soziala Espainian dagoenean.

2. Baldin eta konfiskatzeko ebazpena 20. artikuluaaren 1. paragrafoan zerrendatutako delitu-kategorietako delitu bategatik eman bada eta aipatutako delituari estatu emailean askatasunaz gabetzeko zigor bat ezartzen bazaio, betiere horren gehieneko iraupena, gutxienez, hiru urtekoa bada, zigor-arloko epaileak neurri hori gertaeren tipifikazio bikoitzaren kontrolik gabe gitea erabakiko du.

3. Pertsona juridiko bati Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik haren erantzukizunik aurreikusten ez den arau-hauste bategatik estatu emailean ezarritako konfiskatze-ebazpena ere betearaziko da.

167. artikulua. *Konfiskatze-ebazpena aitortzeari buruzko prozedura.*

1. Konfiskatzeko ebazpena jasotzen duen zigor-arloko epaileak konfiskatu beharreko ondasuna non dagoen aztertuko du.

Halaber, konfiskazioa betearazteko garrantzitsua izan daitekeen edozer informazio gehigarri eman dezan eskatu ahal izango dio zigor-arloko epaileak agintaritza judizial emaileari.

2. Zigor-arloko epaileak, Fiskaltzak eta agertutako gainontzeko alderdiek bost eguneko epean egindako txostenaren ostean, auto bidez erabakiko du behar bezala helarazitako konfiskatze-ebazpenaren betearazpena abiaraztea, gehienez hamar eguneko epean txostena jasotzen duenetik hasita. Dena delako konfiskatze-ebazpena hartuko da, hala badagokio, ondasun horien beraien gainean prebentziozko enbargoa aplikatuz erabakitako neurrien ostean.

168. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen bat betearaztea.*

1. Konfiskatze-ebazpen batek ondasun zehatz bati eragiten badio eta hori konfiskatzerik ez badago, zigor-arloko epaile eskudunak konfiskazioa dena delako ondasunaren pareko balioa duen diru kopuru bat ordaintzeko betebeharrak bihurtu erabakiko du.

2. Konfiskatze-ebazpen bat diru kopuru bati buruzkoa bada, zigor-arloko epaile eskudunak, ordainketa lortzerik ez badu, horretarako dagoen edozein ondasunen gainean betearaziko du konfiskatze-ebazpena.

3. Konfiskatze-ebazpen bat diru kopuru bati buruzkoa bada, zigor-arloko epaile eskudunak, beharrezkoa denean, konfiskatu beharreko zenbatekoa estatu betearazleko monetara bihurtuko du, konfiskatzeko ebazpena eman duten unean indarrean zegoen truke-tasa aplikatuta.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kasu guztietan Fiskaltzari eta agertutako gainontzeko alderdiei entzungo zaie bost eguneko epe batez.

169. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen anizkunak betearaztea.*

1. Baldin eta zigor-arloko epaile eskuduna pertsona baten kontra diru kopuru bati dagokionez emandako konfiskatze-ebazpen bi edo gehiago izapidetzen ari bada eta

pertsona horrek Espainian ez badu baliabide nahikorik guztiak betearazteko, edo ebazpenak ondasun berari badagozkie, ebazpen horietatik zein betearazi behar den edo diren erabakiko du inguruabar horiek guztiak behar bezala aztertu ondoren. Erabaki hori hartzeko gehienbat hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: prebentziozko enbargoa dagoen, garrantzi erlatiboa eta arau-haustearen tokia, dagozkien ebazpenen datak eta helarazpen-datak. Zigor-arloko epaile eskudunak berehala jakinaraziko die erabakia estatu emaileko edo emailetako agintari eskudunei.

2. Kondenatuak beste estatu batean egindako konfiskatzearen frogara, oso edo partzialarena, aurkezterik badu, zigor-arloko epaile eskudunak estatu emaileko agintaritzari eskudunari kontsulta egingo dio. Delitu baten emaitzen konfiskazioari dagokionez, beste estatu bateko konfiskatze-ebazpenaren bidez berreskuratzen den erasandako ondasunen balioaren zati oro Espainian konfiskatu beharreko ondasunen balioetik kenduko da.

170. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen baten aitortzea eta betearazpena ukatzea.*

1. Zigor-arloko epaile eskudunak konfiskatze-ebazpenak aitortzea eta betearaztea ukatuko du 32. eta 33. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta, gainera, baita honako hauetan ere:

a) Alderdi interesdunen eskubideek, Espainiako legeriaren arabera oneko hirugarrenen eskubideek barne, konfiskatzeko ebazpena betearaztea eragozten dutenean.

b) Baldin eta 157. artikuluen 2. paragrafoaren d) idatz-zatiak aipatutako konfiskatzeko ahalmen handituaren gaineko xedapenak aplikatuta hartutako ebazpena, epailearen iritziz, ez bada bateragarria Konstituzioan aitortutako eskubide eta askatasunekin.

c) Ebazpena estatu emailetik kanpo eginiko gertaerei buruzkoa bada eta Espainiako zuzenbideak ez badu baimentzen horrelako arau-hausteak jazartzea bere lurraldetik kanpo egin badituzte.

2. 32. artikuluen 1. paragrafoaren a), c) eta d) idatz-zatietan, 33. artikuluen 1. paragrafoan edo aurreko paragrafoaren b) eta c) idatz-zatietan aitortzea eta betearaztea ukatzeko aurreikusitako arrazoren bat egonez gero, ebazpena aitortzea eta betearaztea zati batez edo osoki ukatu aurretik, zigor-arloko epaileak estatu emaileko eskudun agintaritzari kontsulta egingo dio egoera argitu dezan eta, hala badagokio, dagoen okerra zuzen dezan. Aurreikuspen hori aurreko paragrafoaren a) idatz-zatiaren kasuan ere aplikatu behar da Espainian errekurso bat aurkeztu dutela jakinarazi ez dutenean.

171. artikulua. *Konfiskatze-ebazpen baten betearazpena etetea.*

1. Zigor-arloko epaile eskudunak helarazitako konfiskatze-ebazpen baten betearazpena eten ahal izango du honako kasu hauetan:

a) Baldin eta, diru kopuru bati dagokion konfiskatze-ebazpen baten kasuan, hori betearaztearen ondoriozko balio osoak, estatu kide batean baino gehiagotan batera betearazteagatik, ebazpenean zehaztutako zenbatekoa gainditzeko arriskua dagoela jotzen badu.

b) Konfiskatzeko ebazpena betearazteak abian dagoen ikerketa edo jarduketa penal bat behar bezala garatzea eragotz badezake, arrazoizko deritzon denboran.

c) Konfiskatzeko ebazpena edo haren zati batzuk itzultzea beharrezkoa dela jotzen badu, horren kostua estatu emaileari jasanarazi gabe, itzulpena eskuratzeko beharrezko denboran.

d) Ondasunak Espainian konfiskatzeko prozedura bat jaso badu jada.

2. Zigor-arloko epaile eskudunak, etenaldian, konfiskatze-ebazpenaren betearazpena bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

3. Artikulu honen 1. paragrafoaren a) idatz-zatiarekin bat etorritik etenez gero, zigor-arloko epaile eskudunak horren berri lehenbailehen emango dio estatu emaileko eskudun agintaritzari idatziz jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliz.

4. Artikulu honen 1. paragrafoaren b), c) eta d) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, zigor-arloko epaileak konfiskatzeko ebazpenaren betearazpena etetea, haren arrazoiak eta, ahal bada, aurreikusitako iraupena lehenbailehen jakinaraziko dizkio estatu emaileko agintaritzari idatziz jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bide erabiliz.

5. Eteteko arrazoiak desagertu eta berehala, zigor-arloko eskudun epaileak neurri egokiak hartuko ditu berehala konfiskatzeko ebazpena betearazteko, eta horren berri emango dio estatu emaileko agintaritzari idatziz jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bide erabiliz.

172. artikulua. *Konfiskatutako ondasunak xedatzea.*

1. Zigor-arloko epaile eskudunak konfiskatzeko ebazpena betearateagatik lortutako dirua honako arau hauekin bat etorritik xedatuko du:

a) Konfiskatzeko ebazpena betearazteagatik lortutako zenbatekoa 10.000 euro edo zenbateko horren baliokidea baino txikiagoa bada, zenbateko hori gordailu eta kontsignazio judizialen kontuan sartuko da.

b) Gainerako kasu guztietan, estatu emaileari konfiskatzeko ebazpena betearazteagatik lortutako zenbatekoaren 100eko 50 transferituko zaio. Gainerako 100eko 50 gordailu eta kontsignazio judizialen kontuan sartuko da.

Aurretik xedatutakoa betez Espainiari dagozkion zenbatekoak idazkari judizialak transferituko ditu Altxor Publikora; hartarako, hala badagokio, arau berezietan ezarritakoa aplikatuko da eta, bereziki, Zigor Kodearen 374. artikulua eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak, drogen legez kanpoko trafikoa eta zerikusia duten bestelako delituengatik konfiskatutako ondasunen funtsa arautzen duenak, eta garatzeko araudiak aurreikusitakoa.

2. Konfiskatzeko ebazpena betearaztearen ondorioz lortutako dirua edo eramaileari ordaintzeko bestelako instrumentuak ez beste ondasunak aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan besterentzea eta aplikatzea erabakiko du zigor-arloko epaile eskudunak.

Espainiako legeriarekin bat etorritik besterenduko dira ondasunak eta, hala dagokionean, Kontrabandoa zigortzeko abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoak eta garatzeko araudiak aurreikusitakoa beteko da.

3. Konfiskatzeko ebazpena betearaztearen ondorioz Espainiako ondare historikoko ondasunak eraginda gertatzen direnean, zigor-arloko epaileak ez dizkio estatu emaileari inola ere besterendu edo itzuliko. Horrelakoetan, Espainiako eskudun agintarier jakinaraziko die eta Espainiako Ondare Historikolari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen xedapenak eta garatzeko araudia aplikagarri izango dira.

4. Espainiako estatuak ez dio estatu emaileari eskatuko konfiskatzeko ebazpena betearazteak eragindako gastuak ordaintzeko. Nolanahi ere, ebazpena betearazteak funtsezko edo ezohiko gastuak ekarri dituela iritziz gero, zigor-arloko epaileak Justizia Ministerioari jakinaraziko dio estatu emaileko agintari eskudunekin kostuak banatzeari buruzko hitzarmena egin dezan.

## IX. TITULUA

**Diruzko zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak**

## I. KAPITULUA

**Xedapen orokorrak**

173. artikulua. *Diruzko zehapena.*

1. Diruzko zehapena, zera da: pertsona fisiko edo juridiko batek zigor edo administrazio arau-haustea egiteagatik ezarritako isunaren kontzeptuan ebazpen irmo batek eskatutako diru kopurua, betiere, azken horiekin lotuta, administrazio-zehapenak jurisdikzio-organo penal baten aurrean errekurritzeko modukoak badira.

2. Lege honen ondorioetarako, dagozkien ebazpenetan ageri direnak ere sartuko dira diruzko zehapenen barruan, betiere kontzeptu hauei buruzkoak badira:

a) Prozeduran sortutako kostu judizialen edo administrazio-gastuen kontzeptuan ezarritako diru kopurua.

b) Biktimen aldeko ordaina, betiere biktimak ezin badu prozeduran alderdi zibil giza parte hartu eta jurisdikzio-organoak zigor-arloko eskumena erabiliz jarduten badu.

c) Funts publiko bat edo biktimei laguntzeko erakunde bati zuzendutako kopurua.

3. Lege honen ondorioetarako diruzko zehapenak ezingo ditu barne hartu delituaren instrumentuak edo emaitzak konfiskatzeko aginduak, horientzat titulu honen III. kapituluan aurreikusitako arauak aplikatuko baitira.

Diruzko zehapenak ezin izango ditu, orobat, itzultzeko edota kaltea konpontzeko edo kalte materialen edo moralen ordaina emateko ebazpenak, zigor-arloko prozedura batean emandakoak, barne hartu, aurreko paragrafoaren b) idatz-zatian aurreikusitakoaren kalterik gabe.

Espanian emandako epai batek biktimen edo kaltetunen aldeko kalte materialen eta moralen ordaina emateko edo kaltea konpontzeko kondena bat barne hartzen duenean, Espainiako agintaritza judizial penalak Europar Batasuneko lankidetzak judizial zibilaren arauetan aurreikusitako mekanismoen bitartez betearazteko eskatuko du.

174. artikulua. *Diruzko zehapenaren ordainketa eskatzen duen ebazpena helarazi eta betearazteko Espainiako agintari judizial eskudunak.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kide batean jabetzak dituen edo diru-sarrerak eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridiko bati ezarritako diruzko zehapen bat ordaintzeko eskatzen duen ebazpena helarazteko agintaritza eskuduna Espainian betearazteko eskumena duen jurisdikzio-organo penala da.

2. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena aitortzeko eta betearazteko agintaritza eskuduna, hauxe da:

a) Nagusiki, kondenatua bizi den tokiko edo, pertsona juridikoa bada, egoitza soziala duen tokiko, zigor-arloko epailea.

b) Subsidiarioki, isuna ordaintzera kondenatutako pertsona fisikoaren edo juridikoaren jabetzako edozein ondasun higiezin dagoen tokiko zigor-arloko epailea.

c) Azkenik, Espainian kondenatuaren edozein sarrera-iturri dagoen tokiko zigor-arloko epailea.

Zirkunstantzia horietakoren bat aldatzen bada kondenatuak bizilekua edo egoitza soziala beste toki batera eramateagatik, ondasun higiezina saltzeagatik edo haren sarrera-iturriak aldatzeagatik, horrek ez du ekarriko Espainiari helarazi dioten diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena aitortzea eta betearaztea erabaki duen zigor-arloko epaileak gerora eskumena galtzea.

Ziurtagiri bera pertsona bati baino gehiagori badagokie eta horietako batek paragrafo honetan ezarritako eskakizunak betetzen baditu, zigor-arloko epaile eskudunak betearazpena kondenatu guztiei dagokienez hartu ahal izango du bere gain, eta diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen bakar bat ez da hainbatetan zatitu beharko.

175. artikulua. *Kobratutako zenbatekoen xedea.*

1. Espainian ebazpena betearaztearen kontzeptuan jasotako zenbatekoak gordailu eta kontsignazio judizialen kontuan sartuko dituzte, betiere estatu emailearekin besterik ez badute adostu 173. artikulua 2. paragrafoaren b) idatz-zatiak aipatutako biktimen aldeko ordaina diren zenbatekoei dagokienez.

Kasu horretan, estatu emaileak zenbateko horiek eskatuz gero, zigor-arloko epaileak Fiskaltzari irizpena eskatuko dio, hartarako hamar eguneko epea emanda, eta biktimei eta kaltedunei ordaina emateko zenbatekoen xedeari buruz bidezkoa dena ebartziko du. Idazkari judizialak irizpen horrek hitzez hitz adierazitakoarekin bat etorritz transferituko ditu zenbatekoak.

2. Biktimen aldeko ordainaren kasutik kanpo, ez da onartuko aurreko paragrafoan adierazitako araua alda dezakeen beste akordiorik.

## II. KAPITULUA

### **Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena helaraztea**

176. artikulua. *Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten helarazpena.*

1. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena helaraziko zaio kondenatutako pertsona fisiko edo juridikoak jabetzak dituen, diru-sarrerak lortzen dituen edo ohiko bizilekua edo egoitza soziala duen Europar Batasuneko estatu kideko agintaritza eskudunari, hori betearaz dezan.

2. Espainiako agintaritza judizial eskudunak ebazpena estatu betearazle bakar bati helaraziko dio aldi bakoitzean.

177. artikulua. *Diruzko-zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpenaren dokumentazioa.*

1. Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena XII. eranskinean aurreikusitako ziurtagirian dokumentatuko da, eta isunaren kondena ezartzen duen epai edo ebazpen irmoarekin batera igorriko dute.

2. Ziurtagirian, hala badagokio, Zigor Kodean aurreikusitako egun-isun sistemaren arabera ordaindu beharreko diru kopuru likidoa zehaztuko dute.

3. Ordaindu ezean, isun-zigorra askatasunaz gabetzeko zigor edo gizartearentzako lan bihurtzeko aurreikuspena jasoko du ziurtagiriak, Zigor Kodean ezarritakoarekin bat etorritz, eta horren iraupena ere zehaztuko du.

178. artikulua. *Diruzko zehapen baten ordainketa eskatzen duen ebazpena helarazteko prozedura.*

1. Epaile edo auzitegiak Fiskaltzari bost eguneko epean entzungo dio eta hurrengo bost egunetan emandako auto arrazoitu bidez ebartziko du.

2. Hori eman aurretik, estatu betearazleko agintaritza eskudunari edo eman dezaketen erakundeei beharrezko informazioa eskatu ahal izango diete kondenatuak estatu horretan ondasunak edo diru-sarrerak dituen edo bizilekua duen jakiteko.



179. artikulua. *Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten helarazpenaren ondorioak.*

1. Ebazpena helarazitakoan, Espainiako agintaritza judizial penalak ezingo du hori betearazi, itzultzen duten kasuetan izan ezik.

Etete horrek isun-zigorra ezartzeari eta kostuei dagozkien adierazpenak baino ez ditu barne hartuko.

2. Baldin eta, ebazpena helarazi ondoren, kondenatuak diruzko zehapena borondatez ordaindu badu edo aurreko jarduera judizialen ondorioz hori betearazi badute, Espainiako agintaritza judizial penalak legez aurreikusitako moduan aplikatuko du jasotako ordainketa eta horren berri berehala emango dio estatu betearazleko agintaritza eskudunari, bai eta, horrez gain, betearazi beharreko diruzko zehapenaren zenbatekoak eta kontzeptuek izandako murrizketaren berri ere.

### III. KAPITULUA

#### **Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpenaren betearazpena**

180. artikulua. *Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena Espainian aitortzea eta betearaztea.*

1. Zigor-arloko epaile eskudunak aitortu eta betearazi beharko du beste estatu kide batek igorritako diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena, tipifikazio bikoitzaren kontrolari lotu gabe, halaber, 20. artikulua 1 eta 2 paragrafoetan zerrendatutako delitu bati buruzkoa denean.

2. Pertsona juridiko bati Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik haren erantzukizunik aurreikusten ez den arau-hauste bategatik estatu emailean ezarritako diruzko zehapena ere betearaziko da.

181. artikulua. *Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpena aitortzeko eta betearazteko prozedura.*

1. Ebazpena jasotzen duen zigor-arloko epaileak ondoko hauek aztertuko ditu:

- a) Kondenatuak bizilekua edo egoitza soziala Espainian duen.
- b) Kondenatuak Espainian helbide edo egoitza sozialik duela jasota ez badago bakarrik, hark bere izenean Jabetza Erregistroan inskribatutako ondasunik duen.
- c) Aurreko bi egoerarik ezean, kondenatuak Espainian sarrera-iturririk duen.

2. Zigor-arloko epaileak, Fiskaltzak bost eguneko epean egindako txostenaren ostean, auto bidez erabakiko du behar bezala helarazitako diruzko zehapenen ebazpenaren betearazpena abiaraztea, gehienez bost eguneko epean jasotzen duenetik hasita.

3. Zehapenaren zenbatekoa ziurtagirian atzerriko dibisa batean adierazita badago, idazkari judizialak zenbatekoa eurotara bihurtuko du, zehapena ezarri zutenean indarrean zegoen truke-tasa aplikatuta.

182. artikulua. *Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpenaren aitortzea eta betearazpena ukatzea.*

1. Zigor-arloko epaile eskudunak diruzko zehapena eskatzen duten ebazpenak aitortzea eta betearaztea ukatuko du 32. eta 33. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta, gainera, baita honako hauetan ere:

a) Baldin eta ebazpenak Espainiako legerian aurreikusitakoarekin bat etorritik, adinagatik, zigor-erantzukizuna duela jotzerik ez dagoen pertsona fisiko bat zigortzen badu.

b) Baldin eta, ziurtagiriaren arabera, prozedura idatziaren kasuan, ebazpena aurkaratzeko eskubidea eta aipatutako errekurtsua aurkezteko epeak jakinarazi ez badizkiote.

c) Baldin eta, ziurtagiriaren arabera, inputatuari, zuzenean edo ordezkari baten bitartez, ebazpena aurkaratzeko eskubidea eta aipatutako errekurtsua aurkezteko epeak jakinarazi ez badizkiote.

d) Diruzko zehapena hirurogeita hamar euro edo, beste dibisa batean, zenbateko baliokide bat, baino txikiagoa bada.

e) Baldin eta, ziurtagiritik eta betearazteko jakinarazitako ebazpenetik, ondorioztatzen bada urratu egin direla Europar Batasunaren Itunaren 6. artikuluan ezarritako oinarritzko eskubideak eta printzipio juridikoak, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunean islatutakoak.

f) Ebazpena estatu emailetik kanpo eginiko gertaerei buruzkoa bada eta Espainiako zuzenbideak ez badu baimentzen horrelako arau-hausteak jazartzea bere lurraldetik kanpo egin badituzte.

2. 32. artikulua. 1. paragrafoaren d) idatz-zatian edo 3. paragrafoan, 33. artikulua. 1. paragrafoan edo aurreko paragrafoaren b) eta c) idatz-zatietan aitortzea eta betearaztea ukatzeko aurreikusitako arrazoiren bat egonez gero, ebazpena aitortzea eta betearaztea zati batez edo osoki ukatu aurretik, zigor-arloko epaileak estatu emaileko eskudun agintaritzari kontsulta egingo dio egoera argitu dezan eta, hala badagokio, eginiko okerra zuzen dezan.

183. artikulua. *Zehapenaren zenbatekoa berrikustea.*

1. Zigortutako pertsonak ordainketa oso edo partzialaren froga bat aurkezten badu edozein estatutan, zigor-arloko epaileak estatu emaileko agintaritzari eskudunari kontsultatu beharko dio, eta beste estatu batean benetan kobratu duten zehapenaren zatia kendu beharko du Espainian betearazi beharreko diru kopurutik.

2. Frogatzen bada ebazpena estatu emaileko lurraldearen barruan egin ez ziren gertaerei dagokiela eta Espainiako judizio-agintari penalek horien gaineko eskumena dutela, zigor-arloko epaileak erabaki ahal izango du betearazi beharreko isunaren zenbatekoa murriztea Espainiako antolamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera era horretako gertaerentzat aurreikusitako gehieneko zenbatekora.

3. Horrelakoetan, zigor-arloko epaile eskudunak ebazpenaren betearazpen partziala jakinaraziko dio estatu emaileko agintaritzari eskudunari idatzita jasota uzten duen edozein bitarteko erabiliz.

4. Baldin eta zehapena beste dibisa bat duen estatu batean ezarri badute, zigor-arloko epaileak eurotara bihurtuko du zehapenaren zenbatekoa, hura ezarri zutenean indarrean zegoen truke-tasa aplikatuta.

184. artikulua. *Diruzko zehapena ordaindu ezean ezarri beharreko ordezkio zehapenak.*

1. Ebazpena ezin bada erabat nahiz zati batez betearazi, zigor-arloko epaile eskudunak zehapen alternatiboak, askatasunaz gabetzea barne, aplikatu ahal izango ditu, Espainiako antolamendu juridikoan aurreikusitakoarekin bat etorritik, estatu emaileak aurkeztutako ziurtagirian zehapen alternatibo horiek aplikatzea onartu duen kasuetan eta, edozelan ere, horretan aurreikusitako zehapenaren gehieneko maila gainditu gabe.

Askatasun-gabetea ez da inola ere zehapen alternatibo gisa aplikatuko, baldin eta betearazteko eskatzen duten diruzko zehapena administrazio arau-hauste bat egiteagatik ezarri badute, nahiz eta estatu emailearen jurisdikzio-organo penal baten aurrean errekurritu duten.

2. Zigor-arloko epaile eskudunak aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera zehapen alternatibo baten aplikazioa berehala jakinaraziko du.

185. artikulua. *Diruzko zehapena ordaintzeko eskatzen duen ebazpen baten betearazpena etetea.*

Zigor-arloko epaileak ebazpena betearaztea berehala eten beharko du, baldin eta estatu emaileko agintaritzak eskudunak jakinarazten badiu ebazpena eteten edo ondorioz gabe uzten duen ebazpen edo neurriren bat, amnistia edo indultua ematea barne, hartu duela.

Kasu horietan, zigor-arloko epaileak ebazpena estatu emaileko agintaritzak eskudunari itzuliko dio.

## X. TITULUA

### Frogak lortzeko Europako exhortoa

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

186. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoa.*

1. Frogak lortzeko Europako exhortoa estatu kide bateko agintaritzak eskudunak beste estatu batetik, zigor-arloko prozesu batean erabiltzeko, objektuak, agiriak eta datuak eskuratzeko emandako ebazpena judiziala da.

2. Frogak lortzeko Europako exhortoa Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintari eskudunek beren antolamenduan administrazio arau-hauste gisa tipifikatutako gertaerak egiteagatik hasitako prozedurei buruzkoa izan ahalko da, baldin eta erabaki horrek zigor-arloan jurisdikzio-organoaren aurreko prozesu bat eragin badezake.

187. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoaren eremua.*

1. Frogak lortzeko Europako exhortoa eman ahal izango da estatu betearazlean Espainiako zigor-arloko prozesu baterako behar diren objektuak, agiriak edo datuak, behar bezala identifikatuak, eskuratzeko.

Exhortoak agintaritzak betearazlearen eskuetan jada dauden objektuak, agiriak edo datuak hartu ahal izango ditu barne, bai eta agintaritzak betearazleak betearazpenean zehar aurkitzen duen beste edozein objektu, agiri edo datu ere, baldin eta, bestelako ikerketa osagarriak egon gabe, horiek garrantzitsutzat jotzen baditu eman zuen prozedurarako eta horrela adierazten badu.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, dena delako objektua, agiria edo datua eman aurretik agintaritzak betearazlearen eskuetan jada dagoelako, eskaera egin daitekeen kasuetan izan ezik, frogak lortzeko Europako exhortoa ezin izango da eman agintaritzak betearazleari hau eskatzeko:

a) Elkarrizketak izateko, deklarazioak hartzeko edo galdeketei ekiteko susmagarri, lekuko, aditu edo beste edozein pertsonarekin. Nolanahi ere, Espainiako agintaritzak judizialak exhortoaren betearazpenean dauden eta dagokion gaiarekin zuzeneko lotura duten pertsonen deklarazioak hartzeko eskatu ahal izango du, estatu betearazleko zuzenbidearekin bat etorritik betiere.

b) Pertsona baten gorputza miatzeko edo haren gorputzetik gai organikoak edo datu biometrikoak, ADN laginak edo hatz-markak kasu, zuzenean eskuratzeko.

c) Komunikazioetan esku sartuz, zainduz edo banku-kontuak kontrolatuz informazioa denbora errealean eskuratzeko.

d) Dauden objektuak, agiriak edo datuak aztertzeko.

e) Jendeak eskuratzeko moduko komunikazio elektronikoen zerbitzu baten edo komunikazio-sare publiko baten hornitzaileek atxikitako komunikazioetatik datuak eskuratzeko.

3. Zigor-aurrekariek helarazpen-araubide berezia izango dute; frogak lortzeko Europako exhortoaren esparrutik kanpo geldituko dira.

188. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhorto bat emateko eta betearazteko Espainiako agintari eskudunak.*

1. Espainian, frogak lortzeko Europako exhorto bat emateko agintariak hauek dira: agiria, objektua edo datua eskuratu beharreko prozesuez arduratzen diren epaileak edo auzitegiak, bai eta exhortoa hartu behar duten ikerketa-eginbideak zuzentzen dituzten fiskalak ere.

2. Frogak lortzeko Europako exhortoa aitortzeko eta betearazteko agintaritza eskuduna Fiskaltza da, betiere objektuak, agiriak edo datuak oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten neurriak hartu gabe eskuratu ahal badira.

Bestela, bai eta Fiskaltzak exhortoa aitortzea edo betearaztea ukatu behar dela jotzen duenean ere, exhortoaren bitartez eskuratu nahi diren objektuak, agiriak edo datuak dauden tokiko Instrukzioko epailea izango da agintaritza eskuduna.

Objektu, agiri edo datuen kokalekua ondoren aldatzeak ez du ekarriko Espainiara helarazitako frogak lortzeko Europako exhortoa aitortzea eta betearaztea erabaki duen Fiskaltzak edo Instrukzioko epaileak gerora eskumena galtzea.

Baldin eta ziurtagiria barruti ezberdinetan kokatutako objektu, agiri edo datuei dagokienez eman badute, Fiskala edo, hala badagokio, lehenik jasotzen duen Instrukzioko epailea, betiere bere barrutian gutxienez objektu, agiri edo datu horietako bat badago, eskuduna izango da gainerako guztiak eskuratzeaz arduratzeko.

## II. KAPITULUA

### **Frogak lortzeko Europako exhorto bat ematea eta helaraztea**

189. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoa ematea eta helaraztea.*

1. Espainiako agintaritza judizial eskudunak exhorto bat honako baldintza hauek betetzen direnean bakarrik bidaliko du:

- a) Objektuak, agiriak edo datuak behar bezala identifikatuta egotea.
- b) Zigor-arloko prozeduran edo ikerketa-eginbideetan jasotako zantzuen arabera eskuratu nahi den objektua, agiria edo datua beste estatu kide batean dagoela edo, datu elektronikoei dagokienez, horiek, estatu horretako legeriaren arabera, han zuzenean eskura daitezkeela ondorioztatzea.
- c) Objektuak, agiriak edo datuak prozedurarako beharrezkoak izatea.
- d) Objektu, agiri edo datu horiek prozedurarako biltzea egokia izatea.
- e) Espainiako legeriarekin bat etorritik, bertako antzeko kasu batean, epaileak, auzitegiak edo, hala badagokio, fiskalak, exhortoa hark eman badu, objektua, agiria edo datua, Espainian eskuragarri izanez gero, eskuratzea erabaki ahal izatea.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen direnean eta Espainiako agintaritza judizialak arrazoi sendoak baditu objektuak, agiriak edo datuak Europar Batasuneko beste estatu kide batean daudela uste izateko edota, datu elektronikoei dagokienez, horiek zuzenean eskura daitezkeela hango legeriaren arabera, exhortoa lehenbailehen helaraziko dio agintaritza eskudunari.

3. Estatu betearazleko prozesu-araudiarekin bat etorritik egindako exhorto baten bitartez eta, hala badagokio, Espainiako agintaritzak berriaz adierazitako formalitateekin bat etorritik, lortutako frogak erabateko ondorioak izango dituzte; halaber, horien aurka ezingo dute errekurtsorik aurkeztu frogak lortzeko orduan izandako inpartzialtasun-bermeak edo forman egindako egintzen balioa kontrolatzeko.

190. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoaren dokumentazioa.*

Frogak lortzeko Europako exhortoa XIII. eranskinean aurreikusitako ziurtagirian dokumentatuko da; hori da agintaritza betearazleari bidali beharko zaion agiri bakarra.

Ziurtagirian berariaz jasoko da exhortoak aurreko beste bat osatzen duen edo ondasunak prebentzios enbargatzeko edo frogak segurtatzeko ebazpen baten ondoriozkoa den.

Halaber, prozesu-epeengatik edo bereziki premiazkoak diren bestelako gorabeherengatik exhortoa legez aurreikusitako gehieneko epea baino laburrago beste batean betearaztea beharrezkoa bada, horrela adieraziko da ziurtagirian.

191. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoa helarazteko prozedura.*

1. Ofizios edo alderdi batek eskatuta erabaki ahal izango da frogak lortzeko Europako exhortoa.

Zigor-arloko prozesuan alderdiak ebazpena emateko eskatzen badu, objektu, agiri edo datu hori izan badela eta estatu betearazleko lurraldean dagoela agiri bidez edo bestelako aztarna bidez justifikatzeko eskatuko zaio.

2. Hori eman aurretik, estatu betearazleko agintaritza eskudunari edo eman dezaketen erakundeei beharrezko informazioa eskatu ahal izango diete objektua, agiria edo datua benetan estatu horretan dagoen jakiteko.

3. Objektu, agiri edo datuak Espainian froga-iturri gisa balio izan dezan hori lortzeko formalitate edo prozedura espezifikoren bat bete behar izanez gero, horren berri jasoko da agintaritza emaileak emandako ziurtagirian. Formalitate edo prozedura espezifikotzat jo ahal izango dira, baldin eta, oinarritzko eskubideei dagozkielako, horrelakoak urratzeak prozeduraren oinarritzko bermeei eragiten badie.

4. Espainiako prozesurako agintaritza betearazleak garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein objektu, agiri edo datu eskuratzeko ere eskatu ahal izango dio Espainiako agintaritzak betearazleari, betiere horrelakoak prozesuan erabiltzeko ikerketa osagarririk egin behar ez bada.

192. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoaren helarazpena.*

1. Frogak lortzeko Europako exhortoa eskuratu beharreko objektua, agiria edo datua han dagoen zantzu sendorik duten estatu guztiei batera helarazi ahal izango zaie.

2. Baldin eta Espainiako agintaritza eskudunak estatu kidean exhortoa betearazten parte hartzen badu, aurrekoa estatu horretan dagoen bitartean osatzen duen exhorto bat zuzenean helarazi ahal izango dio agintaritza betearazleari.

193. artikulua. *Errekurtsoak estatu betearazlean.*

Baldin eta estatu betearazlean emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsu baten izapideetan agintaritza betearazleak alegazioak eskatzen badizkio Espainiako agintaritza judizial emaileari, Espainiako agintaritzak, agertutako alderdiei bost egunez entzun ondoren, alegazio horiek bost eguneko epean helaraziko ditu, eskaera jasotzen duenetik hasita.

194. artikulua. *Beste estatu kide batean exhortoa betearaztean eskuratutako datu pertsonalak Espainian erabiltzea.*

1. Exhorto bat betearaztean lortutako datu pertsonalak ebazpen hori erabakitzen den prozesuetan, harekin zuzenean lotutako beste batzuetan edo, salbuespenez, segurtasun publikoaren aurkako berehalako mehatxu larri bat prebenitzeko baino ezin izango dira erabili.

Espainiako agintaritza judizial eskudunak estatu betearazleko agintaritza eskudunaren edo zuzenean interesdunaren baimena eskuratu beharko du lortutako datu pertsonalak beste helburu batzuekin erabiltzeko.

2. Kasu jakin batean estatu emaileko agintaritza eskudunak horrela eskatzen duenean, Espainiako agintaritza judizial eskudunak exhortoaren bitartez igorritako datu pertsonen gaineko erabileraren berri emango dio, alde batera utzita, halere, Espainian betearaztean lortutako datuak.

### III. KAPITULUA

#### Frogak lortzeko Europako exhorto bat betearaztea

195. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhorto bat Espainian betearaztea.*

1. Frogak lortzeko Europako exhorto bat aitortzea eta betearaztea ez dira tipifikazio bikoitzaren egiaztatzeari lotuta egongo, betiere Espainiako legeriarekin bat etorri ez bada miaketa edo konfiskatze bat egin behar zigor-arloko prozesuaren barruan beharrezkotzat jotzen diren objektu, agiri edo datu horiek lortzeko.

2. Exhortoa betearazteko miaketa edo konfiskatze bat egin behar denean, ez dira tipifikazio bikoitzaren kontrolari lotuta egongo 20. artikulua 1. paragrafoan zerrendatutako delituak, betiere estatu emailean horrelakoak gutxienez hiru urteko gehieneko iraupena duten askatasunaz gabetzeko zigorrekin zigortzen badituzte.

3. Exhortoa egiteko hainbat bide badaude, gizabanakoaren askatasuna gutxien murrizten duena aukeratuko da.

196. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoa aitortzeko eta betearazteko prozedura.*

1. Frogak lortzeko Europako exhortoa jasotzen duen fiskalak edo Instrukzioko epaileak horren bitartez eskuratu beharreko objektua, agiria edo datua non dagoen aztertzea erabakiko du bost eguneko epean, hori jasotzen duenetik hasita.

Halaber, behar bezala lortzeko garrantzitsua izan daitekeen edozer informazio gehigarri (kokapenari edo ezaugarri buruzko xehetasun zehatzagoak, adibidez) eman dezan eskatu ahal izango dio agintaritza judizial emaileari.

2. Frogak lortzeko Europako exhortoaren espedientea izapidetzeaz arduratzen den fiskalak edo Instrukzioko epaileak dekretua edo autoa emango du, hurrenez hurren, legez eskatutako baldintza guztiak betetzen direla eta ukatzeko kausarik ez duela ikusten adierazteko. Dekretua edo autoa gehienez hamar eguneko epean eman beharko du, agindua Espainian jasotzen denetik hasita, eta horren barruan Estatuko Seguratasuneko Indar eta Kidegoei, bestelako administrazio-organoei edo pertsona pribatuei objektuak, agiriak edo datuak biltzeko eman beharreko jarraibideak jasoko ditu.

3. Exhortoa betearazteko orduan, eskatu ez dituzten beste ikerketa-neurri batzuei ekiteko aukera aztertu ahal izango du fiskalak edo Instrukzioko epaileak hori egokia dela iritzi gero.

Baldin eta estatu emaileak Espainiako betearazpenean parte hartzen badu, agintaritza emaileak gure herrialdean dagoen bitartean eta aurrekoa osatzeko zuzenean transmititu ahal dion exhortoa jasoko du fiskalak edo Instrukzioko epaileak.

4. Agintaritza emailea ez bada fiskal, epaile edo auzitegi bat eta exhortoa ez bada estatu emaileko aipatutako agintarrietako batek ere balidatu, fiskal edo Instrukzioko epaile eskudunak beharrezko miatze- eta konfiskatze-neurriak gauzatuko ditu, betiere Espainiak ez bada Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusian aipatutako balidazioa eskatzeko deklaraziorik aurkezten exhortoa betearaztearen ondorioetarako.

5. Baldin eta, ziurtagiria jaso ondoren, frogak lortzeko Europako exhortoa aitortu edo betearaz dadin ukatzea eragin dezakeen kausaren bat hautematen badu fiskalak, edo hori betearazteko oinarritzko eskubideak mugatzen dituzten neurriak hartu beharko balira, objektua, agiria edo datua kokatuta dagoen tokiko Instrukzioko epaile eskudunari ziurtagiria igorriko dio hamar eguneko gehieneko epean, Espainian jasotzen denetik hasita, eta horrekin batera baita horren zergatiak azaltzen duen txostena ere, betiere aurretik azaldutako irizpideekin bat etorri bat baino gehiago izanez gero.

Epaileak auto arrazoitua emango du bost eguneko epean exhortoaren betearazpena aitortzeko edo ukatzeko.

Europako exhortoa aitortu eta betearazteko edo ukatzeko erabakia lehenbailehen hartu beharko da, eta beranduenez hogeita hamar eguneko epean, exhortoa Espainian jasotzen denetik hasita.

197. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoaren bidez eskuratutako objektu, dokumentu edo datuak lortzea eta helaraztea.*

1. Agintaritza betearazle eskuduna exhortoan eskatutako objektu, agiri edo datuez gehienez hirurogei eguneko epean jabetuko da, hori jasotzen duenetik zenbatuta, betiere eteteko aurreikusitako arrazoirik ez badago. Baldin eta agintaritza emaileak, presazko arrazoiengatik, epe txikiagoan betearazteko eskatzen badu, agintaritza betearazleak hori lehenbailehen beteko du.

Hori ezinezkoa bada, atzerapenaren zergatiak eta exhortoaren xede diren ondasunak eskuratzeko aurreikusitako epe berria jakinaraziko dizkiote estatu emaileko agintaritza eskudunari.

2. Exhortoarekin bat etorriz lortutako objektuak, agiriak edo datuak berehala helaraziko dituzte, exhortoa aitortu eta betearaztearen aurkako errekurtsioa aurkeztu duten edo hori atzeratzeko bidezko arrazoirik dagoen kasuetan izan ezik; halaber, estatu emaileko agintaritza eskudunak behar ez dituen bezain laster Espainiara itzuli behar dituen ere adieraziko dute.

198. artikulua. *Frogak lortzeko Europako exhortoaren aitortzea eta betearazpena ukatzea.*

1. Instrukzioko epaile eskudunak exhortoa aitortzea eta betearaztea ukatuko du 32. artikulua 1. paragrafoaren kasuetan eta, gainera, baita honako hauetan ere:

- a) Espainiako legerian aurreikusitako neurrien bidez betearazi ezin denean.
- b) 196. artikulua 4. paragrafoan aurreikusitako kasuan aurreikusi bezala, agintaritza judizial emaileak exhortoa balidatu ez duenean.
- c) Baldin eta betearazteak segurtasun nazionalerako funtsezko interesak kalte badituzke, informazio-iturria arriskarazi badezake edo inteligentziaren jarduera jakin batzuekin lotutako informazio sailkatua erabiltzea ekar badezake.
- d) Ebazpena estatu emailetik kanpo eginiko gertaerei buruzkoa bada eta Espainiako zuzenbideak ez badu baimentzen horrelako arau-hausteak jazartzea bere lurraldetik kanpo egin badituzte.

2. Instrukzioko epaile eskudunak exhortoa aitortzea eta betearaztea ukatuko du baldin eta, 20. artikulua 1. paragrafoan aurreikusita ez dagoen arau-hauste bat izateaz gain, hori betearazteko miaketa edo konfiskatze bat egitea beharrezkoa bada.

3. Instrukzioko epaileak exhortoa aitortzea eta betearaztea ukatzeko ebazpena hogeita hamar egun naturaleko epean emango du, jasotzen denetik zenbatuta. Epe hori betetzerik ez badago, Instrukzioko epaileak atzerapenaren zergatiak eta aurreikusitako epe berria jakinaraziko dizkio estatu emaileko agintaritza eskudunari.

4. Instrukzioko epailea exhorto baten aitortzea eta betearaztea ukatzeko aukera aztertzen ari bada Espainiako zuzenbideak horri dagozkion delituak Espainiako lurraldean guztiz edo zati batez eginda daudela jotzen duelako, Eurojust erakundeari kontsulta egingo dio ebazpena eman aurretik, eta kasu jakin horretan hauek hartuko ditu kontuan: delituaren zati bat estatu emailean egin duten, gertaera horiek Espainiako zuzenbidearen arabera delitu ez diren, bai eta exhortoa betearazteko miatze- eta konfiskatze-eragiketara bat egin behar den ere. Eurojust erakundearekin desadostasuna edukiz gero, horren arrazoiak adieraziko ditu Instrukzioko epaileak.

5. 32. artikulua 1. paragrafoaren a) eta c) idatz-zatietan aitortzea eta betearaztea ukatzeko aurreikusitako arrazoiaren bat egonez gero, exhortoa aitortzea eta betearaztea zati batez edo osoki ukatu aurretik, Instrukzioko epaileak estatu emaileko eskudun

agintaritzari kontsulta egingo dio beharrezko informazio osagarria berehala eman dezan eta, hala badagokio, egindako okerra zuzen dezan.

199. artikulua. *Exhortoa betearazteko prozesuari buruzko berariazko informazioa.*

Betearazteaz arduratzen den fiskalak edo Instrukzioko epaileak agintaritzaren emaileari berehala jakinaraziko dio honelakorik gertatzen bada:

- a) Baldin eta, exhortoa betearazteko garaian eta bestelako azterketak egin gabe, uste badu exhortoan aurreikusita ez dauden edo eman zutenean ezagutu ezin ziren ikerketa-neurriak har litezkeela agintaritzaren emaileak dagokiona erabaki dezan.
- b) Exhortoa Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik betearazi ez badute; horren arrazoiak eta arau-haustearen nondik-norakoak zehaztuko dizkio, halaber.
- c) Exhortoa ezin bada betearazi agintaritzaren emaileak berariaz adierazitako formalitate eta prozedurekin bat etorritik.
- d) Exhortoa ez bada betearazi objektu, agiri edo datuak desagertu edo suntsitu direlako, adierazitako tokian aurkitzerik ez dagoelako edo kokapenari buruzko behar besteko xehetasunik ez dagoelako, agintaritzaren emaileari kontsulta egin arren.

200. artikulua. *Exhortoaren betearazpena etetea.*

1. Fiskalak edo Instrukzioko epaileak frogak lortzeko Europako exhorto baten betearazpena bertan behera utziko du, baldin eta:

- a) Eranskinean aurreikusitako ziurtagiria osatu gabe badago edo nabarmen okerra bada, harik eta osatzen edo zuzentzen duten arte.
- b) 196. artikuluan 4. paragrafoan aurreikusitako kasuan exhortoa ez bada balidatu, harik eta balidatzen duten arte.
- c) Betearazpenak bidean dauden zigor-ikerketa edo jarduketa judizialei kalte egin badieziaieke, harik eta beharrezkotzat jotzen den arte.
- d) Kasuan kasuko objektuak, dokumentuak edo datuak beste prozedura batzuetan erabiltzen ari badira, harik eta xede horretarako jada behar ez dituzten arte.

2. Etetea eragin zuten kausak desagertutakoan, fiskalak edo Instrukzioko epaileak exhortoa betearazteko beharrezko neurriak hartuko ditu, eta estatu emaileko agintaritzaren judizialari horren berri berehala emango dio.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Gibraltarretik etorritako edo hara bidali beharreko atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduek igortzea eta betearaztea.*

Kontseiluaren 2000ko apirilaren 19ko 7998/00 JAI 45 MI 73 agirian jasotako «Europar Batasunaren eta Europako Erkidegoaren instrumentuen eta Lotutako Itunen testuinguruan Gibraltarreko agintariei buruz hitzartutako araubidea»n xedatutakoa beteko dute Gibraltarreko kolonia britainiarretik datozen edo hara bidalitako atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduek.

Bigarren xedapen gehigarria. *Ondasunak prebentzioz enbargatzeko, eta frogak eta diruzko zehapenak segurtatzeko neurrien helarazpena Erresuma Batuekiko eta Irlandako Errepublikarekiko harremanetan.*

Erresuma Batuekin eta Irlandako Errepublikarekiko harremanetan prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko eta diruzko zehapenei buruzko ebazpenen helarazpena Lege honetan xedatutakoaren arabera egingo da, betiere estatu horiek ez badute adierazten, Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiaren aurrean aurkeztu eta Batzordeari jakinarazitako deklarazioaren bidez, ebazpenen eta dagokien ziurtagirien helarazpena deklarazioan zehaztutako agintaritzaren zentralaren edo agintarien bidez egitea aukeratzen dutela.



Hirugarren xedapen gehigarria. *Europar Batasuneko Kontseiluko Idazkaritza Nagusiaren aurrean egindako adierazpenei buruzko informazioa.*

Justizia Ministerioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Estatuko Fiskaltza Nagusia koordinaturik arituko dira Espainiak eta gainontzeko estatu kideek Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiaren aurrean elkarri aitortzeko tresnak aitortzeari eta betearazteari buruzko jarduketa jakin batzuetarako adostasuna eskatzeari uko eginez egindako adierazpenak beren webguneen bitartez ezagutu ahal izateko.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Araubide iragankorra.*

1. Indarrean jarri ondoren Espainiako agintari eskudunek helarazitako edo agintari horiek jasotzen dituzten ebazpenei aplikatuko zaie Lege hau, horrelakoak horren aurretik eman duten edo horren aurretiko gertaerei buruzkoak diren kontuan hartu gabe.

2. Espainiako agintari judizialek ebazpen bati dagokionez aitortzeko eta betearazteko eskaera helarazi badute edota agintari horiek horrelako eskaera bat jaso badute Lege hau indarrean jartzeko unean, une hartan indarrean zeuden arauen arabera izapidetuko dituzte aurrerantzean ere eskaera horiek, amaitu arte.

3. Lege honen 83.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako soilik, 2011ko abenduaren 5etik aurrera eta lege hau indarrean jarri aurretik aurkeztu dituzten aitortzeko eta betearazteko eskaerak direnean, eskaera egin zenean indarrean zegoen legeria aplikatu beharko da, betiere hori bada onuragarriena kondenatuarentzat.

Bigarren xedapen iragankorra. *Kondena-ebazpenak Poloniara igortzea eta betearaztea.*

67. artikulua 2. paragrafoaren a) idatz-zatian xedatutakoa ez da Poloniari aplikatzekoa izango, ez estatu emailea denean ezta estatu betearazlea denean, baldin eta kondenatzeko ebazpena bost urteko aldia baino lehenago eman badute, 2011ko abenduaren 5etik aurrera zenbatzen hasita, betiere salbuespen honi ez badio uko egiten Europar Batasuneko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiari jakinarazpena eginez.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Schengengo informazio-sistemako deskribapenaren baliokidetasuna.*

Behin-behineko, harik eta Schengengo informazio-sistemak 36. artikuluan ageri den informazio guztia helarazteko gaitasuna izaten duen arte, deskribapena atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu baten baliokide izango da, harik eta agintaritza judizial betearazleak jatorrizkoa behar bezala jasotzen duen arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabetuta gelditzen dira honako Lege hauek: 3/2003 Legea, martxoaren 14koa, atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduari buruzkoa; 18/2006 Legea, ekainaren 5ekoa, prozedura penaletan enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenak Europar Batasunean eraginkorrak izatekoa; 1/2008 Legea, abenduaren 4koa, diruzko zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak Europar Batasunean betearaztekoa, eta 4/2010 Legea, martxoaren 10ekoa, Europar Batasunean konfiskatze-ebazpen judizialak betearaztekoa.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eranskinak eguneratzea.*

Baimena ematen zaio Ministroen Kontseiluari, Justiziako ministroaren ekimenez, Lege honetan ageri diren ziurtagirien ereduak eguneratu ditzan, baldin eta Europar Batasuneko arauak horiek aldatu badituzte.

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan xedatutakoaren babesean eman da; artikulua horrek prozesuei buruzko legeriaren alorreko eskumena esleitzen dio Estatuari.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bitartez, honako hauek txertatzen dira Espainiako Zuzenbidean:

- a) 2002/584/JAI Esparru Erabakia, 2002ko ekainaren 13koa, atxilotzeko Europako aginduari eta estatuen arteko entrega-prozedurei buruzkoa.
- b) 2003/577/JAI Esparru Erabakia, 2003ko uztailaren 22koa, ondasunak prebentzioz enbargatzeko eta frogak segurtatzeko ebazpenak Europar Batasunean betearazteari buruzkoa.
- c) 2005/214/JAI Esparru Erabakia, 2005eko otsailaren 24koa, diruzko zehapenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- d) 2006/783/JAI Esparru Erabakia, 2006ko urriaren 6koa, konfiskatze-ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- e) 2008/909/JAI Esparru Erabakia, 2008ko azaroaren 27koa, askatasunaz gabetzeko zigorrak edo bestelako neurriak ezartzen dituzten zigor-arloko ebazpenak, Europar Batasunean betearazteko, elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- f) 2008/947/JAI Esparru Erabakia, 2008ko azaroaren 27koa, zaintzapeko askatasunaren epaiak eta ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa, zaintzapeko askatasunaren neurriak eta ordezkio zigorrak zaintzeko xedez, aplikatzeari buruzkoa.
- g) 2008/978/JAI Esparru Erabakia, 2008ko abenduaren 18koa, zigor-arloko prozeduretan erabili beharreko objektu, agiri eta datuak eskuratu eta, era horretan, frogak lortzeko Europako exhortoari buruzkoa.
- h) 2009/299/JAI Esparru Erabakia, 2009ko otsailaren 26koa, 2002/584/JAI, 2005/214/JAI, 2006/783/JAI, 2008/909/JAI eta 2008/947/JAI Esparru Erabakiak aldatzen dituena, pertsonen prozesu-eskubideak indartzeko eta inputatua agertu gabe egindako epaiketen ondorioz emandako ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzen laguntzekoa.
- i) 2009/829/JAI Esparru Erabakia, 2009ko urriaren 23koa, behin-behineko espetxeratzearen ordezkio zaintza-neurriei buruzko ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa Europar Batasuneko estatu kideen artean aplikatzeari buruzkoa.
- j) Eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/99/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, babesteko Europako aginduari buruzkoa.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikularrei zein agintariei.

Madrilan, 2014ko azaroaren 20an

FELIPE E.

Gobernuko presidentea  
MARIANO RAJOY BREY

- I. eranskina. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua.
- II. eranskina. Askatasunaz gabetzeko zigorrak edo beste neurri batzuk ezartzen dituzten ebazpenak Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazteko ziurtagiria.
- III. eranskina. Askatasunaz gabetzeko zigorrak edo beste neurri batzuk ezartzen dituen ebazpena Europar Batasuneko beste estatu kide bati helarazi zaiola kondenatuari jakinarazteko ziurtagiria.
- IV. eranskina. Zaintzapeko askatasunaren epaiak eta ebazpenak Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazteko ziurtagiria.
- V. eranskina. Zaintzapeko askatasunaren neurri bat edo horren ordezkoko zigor bat ez betetzeari buruzko ziurtagiria.
- VI. eranskina. Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko neurriak ezartzen dituzten ebazpenak Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazteko ziurtagiria.
- VII. eranskina. Behin-behineko espetxeratzearen ordezkoko zaintza-neurri bat ez betetzeari buruzko ziurtagiria.
- VIII. eranskina. Babesteko Europako agindua.
- IX. eranskina. Babesteko Europako agindu berri baten bidez hartutako neurria ez betetzeari buruzko ziurtagiria.
- X. eranskina. Europar Batasuneko beste estatu kide batean ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo frogak segurtatzeko neurriak betearazteko ziurtagiria.
- XI. eranskina. Konfiskatzeko ebazpenak Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazteko ziurtagiria.
- XII. eranskina. Diruzko zehapenak ordaintzea eskatzen duten ebazpenak Europar Batasuneko beste estatu kide batean betearazteko ziurtagiria.
- XIII. eranskina. Frogak lortzeko Europako exhortoa betearazteko ziurtagiria.

## I. ERANSKINA

### ATXILOTZEKO ETA ENTREGATZEKO EUROPAKO AGINDUA <sup>(1)</sup>

Agintaritza judizial eskudun batek eman du agindu hau. Ondoren aipatutako pertsona atxilotzeko eta agintari judizialei entregatzeko eskatzen dut, zigor-arloan epai dezaten edo askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat betearaz dezaten.

---

<sup>(1)</sup> Agindu hau estatu kide betearazleko hizkuntza ofizial batean idatzi edo horretara itzuli beharko da, estatu hori ezaguna bada, edo horrek onartzen duen beste edozein hizkuntzatan.

## a) Bilatutako pertsonaren nortasunari buruzko informazioa:

Abizena(k): .....

Izena(k): .....

Ezkondutako abizena(k) (hala bada): .....

Izengoitiak (hala bada): .....

Sexua: .....

Nazionalitatea: .....

Jaioteguna: .....

Jaioterria: .....

Bizileku eta/edo helbide ezaguna: .....

Jakinez gero: bilatutako pertsonak ulertzen d(it)uen hizkuntza(k): .....

Bilatutako pertsonaren ezaugarri fisiko bereziak/deskribapena: .....

Bilatutako pertsonaren argazkia eta hatz-markak, eskuragarri badaude eta helaraz baditzakete, edo horiek lortzeko edo ADNren karakterizazio bat eskuratzeko harremanetan jarri beharreko pertsonaren helbidea (informazio hori gehitu gabe badago eta helarazteko moduan badute).

## b) Atxilotzeko agindua oinarri hartzen duen erabakia:

1. Atxilotzeko agindua edo indar bereko ebazpen judizial betearazlea: .....

Mota: .....

2. Epai betearazlea: .....

Erreferentzia: .....

## c) Zigorren iraupenari buruzko oharrak:

1. Arau-hausteagatik edo arau-hausteengatik eman daitekeen askatasunaz gabetzeko zigorren edo segurtasun-neurriaren gehieneko iraupena:

.....  
.....

2. Ezarritako askatasunaz gabetzeko zigorren edo segurtasun-neurriaren iraupena:

.....  
.....

Zigorretik betetzeko gelditzen dena: .....

.....  
.....

d) Adierazi inputatua ebazpena eragin duen epaiketan agertu den:

1.  Bai, inputatua ebazpena eragin duen epaiketan agertu zen.
2.  Ez, inputatua ez zen agertu ebazpena eragin duen epaiketan.
3. Baldin eta 2 puntuko laukia markatu baduzu, baieztatu hauetako gertaeretako bat izan den:
  - 3.1a. Inputatua zuzenean deitu zuten ... (urtea/hila/eguna)(e)an eta ebazpena eragin duen epaiketa egiteko aurreikusitako tokia eta eguna jakinarazi zizkioten; halaber, epaiketan agertu ezean ebazpena eman zezaketela ere azaldu zioten.

Edo

- 3.1b. Inputatua ez zuten zuzenean deitu, baina beste bide batzuetatik horren berri eman zioten; horrela bada, zalantzarik gabe egiaztatu da bazekiela epaiketa egitea aurreikusita zegoela, eta horretarako aurreikusitako egunaren eta tokiaren informazio ofiziala zuela; horrez gain, epaiketan agertu ezean ebazpena eman zezaketela ere azaldu zioten.

Edo

- 3.2. Epaiketa egitea aurreikusita zegoela jakinda, inputatuak abokatu bati, hark berak edo estatuak izendatutako bati, epaiketan defenda zezan agindu zion, eta aipatutako abokatu horrek, hain zuzen ere, defendatu zuen epaiketan.

Edo

- 3.3. Inputatuari ebazpena ... (urtea/hila/eguna)(e)an jakinarazi zioten eta berriaz azaldu zioten epaiketa berri baterako edo errekurtsua jartzeko eskubidea zuela, bai eta horretan agertzeko eskubidea izango zuela ere, eta epaiketan, halaber, aurkeztutako argudioak edo izan zitezkeen frogabide berriak ere berriro aztertuko zituztela adierazi zioten, eta epaiketak hasieran emandakoaren aurkako ebazpena ekar zezakeela.
  - Inputatuak berriaz adierazi zuen ebazpena ez zuela aurkaratu behar.

Edo

- Ez zuen epaiketa berririk eskatu, ezta errekurtsorik ezarritako epean jarri ere.

Edo

- 3.4. Inputatuari ez diote ebazpena zuzenean jakinarazi, baina:
  - Ebazpena berehala jakinaraziko diote entregaren ostean.
  - Jakinarazten diotenean, inputatuari berriaz adieraziko diote epaiketa berri baterako edo errekurtsua jartzeko eskubidea duela, bai eta horretan agertzeko eskubidea izango zuela ere, eta epaiketan, halaber, aurkeztutako argudioak edo izan zitezkeen frogabide berriak ere berriro aztertuko zituztela adierazi zioten, eta epaiketak hasieran emandakoaren aurkako ebazpena ekar zezakeela.
  - Epaiketa berria eskatu edo errekurtsua jarri behar duen epearen berri emango diote, zehazki ... egunekoa izango da epe hori.

4. 3.1b, 3.2 edo 3.3 puntuen aukera hartuz gero, azal ezazue, mesedez, beharrezko baldintza nola bete zen:

.....  
.....  
.....

e) Arau-haustea(k):

Agindu hau hauei dagokie guztira: ..... arau-hauste.

Arau-haustea edo arau-hausteak egin z(it)uen inguruabarren azalpena, baita unearen (eguna eta ordua), tokiaren eta horretan edo horietan bilatutako pertsonak izan zuen parte-hartze mailarena ere:

.....  
.....

Arau-haustearen edo arau-hausteen izaera eta legezko tipifikazioa eta legezko xedapena edo aplikatu beharreko kodea:

.....  
.....  
.....

I. Hautatu dagozkion aukerak estatu kide emaitzen, hango zuzenbidean zehaztutakoaren arabera, gutxienez hiru urteko gehieneko askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri batekin zigortuta dauden ondoko arau-hauste hauei bat edo batzuk izanez gero:

- Delitu-antolakundeko kidea izatea.
- Terrorismoa.
- Gizakien salerosketa.
- Adingabeen sexu-esplotazioa eta haur-pornografia.
- Drogen eta substantzia psikotropikoen legez kontrako trafikoa.
- Armen, munizioen eta lehergailuen legez kontrako trafikoa.
- Ustelkeria.
- Iruzurra, Europako Erkidegoetako interes finantzarioei eragiten diena barne hartuta, Europako Erkidegoetako interes finantzarioak babesteari buruzko 1995eko uztailaren 26ko Hitzarmenarekin bat etorritik.
- Delituaren emaitzen zuriketa.
- Moneta faltsifikatzea, euroa faltsifikatzea barne.
- Goi-teknologiako delituak, bereziki delitu informatikoa.
- Ingurumenaren aurkako delituak, babestutako animalien eta babestutako landare-espezien eta -barietateen legez kontrako trafikoa barne.
- Legez kanpoko sarrera eta egonaldia laguntzea.
- Borondatezko giza hilketa eta lesio larriak eragiten dituen erasoak.
- Giza organoen eta ehunen legez kontrako trafikoa.
- Bahiketa, legez kontrako atxiloketa eta bahituak hartzea.
- Arrazakeria eta xenofobia.
- Antolatutako lapurreta edo armak erabiliz egindakoak.
- Kultur ondasunen legez kontrako trafikoa, antzinako gauzen eta artelanena barne.

- Maula.
- Xantaia eta funts-estortsioa.
- Jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzea eta salgaiak faltsutzea.
- Administrazio-dokumentuak faltsutzea eta dokumentu faltsuen trafikoa.
- Ordainbideak faltsutzea.
- Substantzia hormonalen eta bestelako hazkuntza-faktoreen legez kontrako trafikoa.
- Gai erradiaktiboen edo substantzia nuklearren legez kontrako trafikoa.
- Lapurtutako ibilgailuen trafikoa.
- Bortxaketa.
- Nahita egindako sutea.
- Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikzioan jasotako delituak.
- Aireontzien eta ontzien bahiketa.
- Sabotajea.

II. I. puntuan zerrendatuak ez beste arau hauste baten edo batzuen deskribapen zehatza:

.....  
.....

f) Kasuarekin lotutako bestelako zirkunstantziak (aukerazko informazioa):

(NB: *Hauei buruzko oharra jaso daitezke: lurraldez kanpokotasunari, denbora-muga preskribatzeko epeak eteteari eta arau-haustearen bestelako ondorioei buruzkoak*)

.....  
.....

g) Agindu hau froga gisa balio dezaketen objektuak atzeman eta entregatzeari buruzkoa ere bada.

Bilatutako pertsonaren esku arau-haustearen ondorioz dauden objektuak atzeman eta entregatzeari buruzkoa ere bada agindu hau:

Objektuen deskribapena eta kokapena ( ezaguna izanez gero):

.....  
.....  
.....

h) Agindu hau ematea eragin du(t)en arau-haustea(k) zigortzekoa(k) da(dira) / askatasunaz betiko gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat ekarri du(dute).

- Estatu kide emaileko ordenamendu juridikoak ezarritako zigorra berrikustea xedatzen du, eskatu ondoren edo gutxienez 20 urte igaro eta gero, zigorra edo neurria ez betearazteko.
- Estatu kide emaileko ordenamendu juridikoak dena delako pertsona horren eskubide diren barkaberatasun-neurriak aplikatzea xedatzen du, estatu kide emailearen zuzenbide edo praktikarekin bat etorritik, zigorra edo neurria ez betearazteko.



i) Agindu honen agintaritza judizial emaila:

Izen ofiziala: .....

.....

Ordez kariaren izena (1): .....

.....

Eginkizuna (kargua/maila): .....

.....

Espedientearen erreferentzia: .....

Helbidea: .....

.....

Telefono-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia) (...) .....

Fax-zk.: (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia) (...) .....

Helbide elektronikoa: .....

Harremanetarako pertsonaren helbidea entregaren alderdi praktikoetarako: .....

.....

(1) Hizkuntza guztietako bertsioan agintaritza judizialaren «-titularra-» ren erreferentzia jasoko da.

Atxilotzeko Europako aginduak administratiboki helarazi eta jasotzeko agintaritza zentralik izendatuz gero:

Agintaritza zentralaren izena: .....

.....

Harremanetarako pertsona, hala badagokio (kargua/maila eta izena): .....

.....

Helbidea: .....

.....

Telefono-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia) (...) .....

Fax-zk.: (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia) (...) .....

Helbide elektronikoa: .....

Agintaritza      judicial      emailearen,      haren      ordezkariaren      edo      bien

sinadura:.....

Izena:.....

Abizenak:.....

Eginkizuna (kargua eta maila): .....

Data:.....

Zigilu ofiziala (horrelakorik badago)

## II. ERANSKINA

ASKATASUNAZ GABETZEKO ZIGORRAK EDO BESTE NEURRI BATZUK EZARTZEN DITUZTEN  
EBAZPENAK EUROPAR BATASUNEKO BESTE ESTATU KIDE BATEAN BETEARAZTEKO  
ZIURTAGIRIA

2008/909/JAI Esparru Erabakiaren, 2008ko azaroaren 27koaren, askatasunaz gabetzeko zigorrak edo bestelako neurriak ezartzen dituzten zigor-arloko ebazpenak, Europar Batasunean betearazteko, elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoaren, 5. artikulua aipatzen duena<sup>1</sup>

a) \* Estatu emailea: .....

\* Estatu betearazlea: .....

b) Kondena ezartzen duen epai irmoa eman duen organo jurisdikzionala:

Izen ofiziala: .....

Epaia eman zuten eguna: (uuuu/hh/ee): .....

Epaia irmo bihurtu zen eguna: (uuuu/hh/ee): .....

Epaia erreferentzia-zenbakia (halakorik badu): .....

c) Ziurtagiriarekin lotutako kontu guztietarako harremanetan jarri beharreko agintaritzari buruzko informazioa:

1. Agintaritza mota: Dagokion laukitxo marka ezazu, mesedez:

- Agintaritza zentrala .....
- Organo jurisdikzionala .....
- Bestelako agintaritzarik .....

2. c) 1 puntuan adierazitako agintaritzarekiko harremanetarako informazioa:

Izen ofiziala: .....

Helbidea: .....

Telefonoa: (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko edo eskualdeko aurrezenbakia): .....

Fax-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko edo eskualdeko aurrezenbakia): .....

Helbide elektronikoa (halakorik badu). .....

3. Agintaritzarekin komunikatzeko hizkuntzak:

4. Epaia betearazteko edo lekualdatzeko modalitateak hitzartzeko informazio osagarria eskuratzeko harremanetan jarri beharreko pertsonaren edo pertsonen datuak (izena, kargua eta maila, telefono-zenbakia, fax-zenbakia, helbide elektronikoa), betiere 2. puntuan ageri direnak ez badira:

.....

.....

<sup>1</sup> Ziurtagiri hau estatu betearazteko hizkuntza ofizialetako batean, edo estatu horretan onartutako beste edozein hizkuntzatan, idatzi behar da, edo hizkuntza horretara itzuli beharra dago.

d) Kondena ezarritako pertsonari buruzko informazioa:

Izenak:.....  
Abizenak:.....  
Ezkondu aurreko abizenak (hala badagokio):.....  
Izengoitiak (hala badagokio): .....

Sexua: .....

Nazionalitatea: .....

Nortasun-zenbakia edo gizarte-segurantza zenbakia (halakorik badu): .....

Jaioteguna: .....

Jaioterria: .....

Ezagututako azken helbide edo bizilekuak: .....

Ulertzen dituen hizkuntzak (jakinez gero): .....

.....

Kondenatua non dagoen:

- Estatu emailean, eta estatu betearazlerra lekualdatu beharko dute.
- Estatu betearazlean, eta kondena estatu horretan betearazi beharko dute.

Aurkeztu beharko duten informazio osagarria, horrelakorik badago eta egokia bada:

1. Pertsonaren argazkia eta hatz-markak, eta/edo informazio hori eskuratzeko harremanetan jarri beharreko pertsonaren datuak:  
.....
2. Kondenatuaren nortasun-agiriaren edo pasaportearen erreferentzia-zenbakia eta mota:  
.....
3. Kondenatuaren bizileku-baimenaren mota eta zenbakia:  
.....
4. Kondenatuak estatu betearazlearekin dituen familia-, gizarte- edo lanbide-loturei buruzko bestelako informazio egokiak:  
.....  
.....

e) Estatu emaileak prebentzios atxilotzeko egindako eskaera (kondenatua estatu betearazlean badago):

- Estatu emaileak estatu betearazleari eskatzen dio kondena atxilo dezan edo beste edozein neurri har dezan, epaia aitortzeaz eta kondena betearazteaz ebazten duen arte lurralde horretan geratzen dela bermatzeko.
- Estatu emaileak estatu betearazleari jada eskatu dio kondena atxilo dezan edo beste edozein neurri har dezan, epaia aitortzeaz eta kondena betearazteaz ebazten duen arte lurralde horretan geratzen dela bermatzeko. Adierazi, mesedez, kondena atxilotzeko eskaeraz ebatzi duen estatu betearazleko agintaritzaren izena (egokia bada eta jakinez gero):  
.....  
.....

f) Aurretik izan zitezkeen atxilotzeko Europako aginduei dagokienez:

- Atxilotzeko Europako agindu bat eman dute askatasunaz gabetzeko kondena bat edo atxilotzeko agindu bat betearazteko, eta estatu kide betearazleak kondena edo atxilotzeko agindua betearaztea hitzematen du (Atxilotzeko Europako Aginduari buruzko Esparru Erabakiaren 4. artikulua 6. paragrafoa).

Atxilotzeko Europako agindua eman duten eguna eta horren erreferentzia-zenbakia, jakinez gero:

.....

Atxilotzeko Europako agindua eman zuen agintaritzaren izena: .....

Betearazteko erabakiaren eguna eta horren erreferentzia-zenbakia, jakinez gero:

.....

Kondena betearaztea bere gain hartzeko erabakia eman zuen agintaritzaren izena:

.....

- Atxilotzeko Europako agindu bat eman dute estatu betearazleko nazionalitatea edo bizilekua duen pertsona baten kontrako ekintza penala hasteko eta estatu betearazleak pertsona hori entregatu du baina, baldintza gisa, pertsona hori estatu betearazlari itzul dezaten jarri du estatu kide emaitan haren kontra jarritako askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurria han betetzeko (Atxilotzeko Europako Aginduari buruzko Esparru Erabakiaren 5. artikulua 3. paragrafoa).

Pertsona entregatzeko erabakiaren eguna: .....

Entregatzeko erabakia hartu zuen agintaritzaren izena: .....

Ebazpenaren erreferentzia-zenbakia (halakorik badu): .....

Pertsonaren entregaren eguna, jakinez gero: .....

g) Epaia eta ziurtagiria helarazteko arazoak (baldin eta f) laukia bete bada ez da beharrezkoa izango lauki hau betetzea).

Epaia eta ziurtagiria estatu betearazleari helarazten zaizkio agintaritzaren emaileak uste baitu kondena estatu betearazlean betearazteak kondenatua gizarteratzen laguntzeko helburua beteko duela; gainera:

- a) Estatu betearazlea kondenatuaren nazionalitateko estatua da, eta han bizi da.
- b) Estatu betearazlea kondenatuaren nazionalitateko estatua da, eta horretara kanporatuko dute kondena betetzetik askatu ondoren epaian edo erabaki judizial edo administratibo batean jasotako kanporatzeko edo lekualdatzeko agindu baten bidez edo epaiaren ondoriozko beste edozein neurriren bidez. Epaiak ez badu kanporatzeko edo lekualdatzeko agindua jasotzen, adierazi, mesedez, agindu hori eman zuen agintaritzaren izena, eman zuen eguna eta haren erreferentzia-zenbakia (halakorik badu): .....
- c) Estatu betearazlea a) eta b) letretan aipatutakoak ez beste estatu bat da, eta hango agintaritzaren eskudunak epaia eta ziurtagiria helaraz diezaioten onartzen du.
- d) Estatu betearazleak jakinarazpen bat aurkeztu du Esparru Erabakiaren 4. artikulua 7. paragrafoarekin bat etorritik, eta:
  - baieztatzen da, estatu emaileko agintaritzaren eskudunak ziur dakienaren arabera, kondenatua estatu betearazlean bizi dela eta horretan gutxienez bost urtez jarraian legeko bizilekua izan duela eta estatu horretan bizileku-eskubideari eutsi behar diola; edota
  - baieztatzen da kondenatuak estatu betearazleko nazionalitatea duela.

## h) Kondena-epaia:

## 1. Epaia hauei dagokie guztira: ..... arau-hauste.

Gertaeren laburpena eta arau-haustea edo arau-haustek egindako zirkunstantzien deskribapena, tokia eta denbora barne; kondenatuak izandako parte-hartze mota:

.....  
Arau-haustearen edo arau-hausteen izaera eta legezko tipifikazioa eta emandako epaia oinarritzen den legezko xedapena edo aplikatu beharreko kodea:

## 2. Baldin eta h) 1 puntuan adierazitako arau-haustea edo arau-haustek bat baldin badator edo badatoz ondorengo arau-hauste hauetako batekin edo gehiagorekin, estatu emaileko legeriaren arabera zehaztutakoekin, eta horretan gehienez hiru urteko gutxieneko askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri batekin zigortzen badituzte, adierazi dagokion laukia edo laukiak:

- Delitu-antolakundeko kidea izatea.
- Terrorismoa.
- Gizakien salerosketa.
- Adingabeen sexu-esplotazioa eta haur-pornografia.
- Drogen eta substantzia psikotropikoen legez kontrako trafikoa.
- Armen, munizioen eta lehergailuen legez kontrako trafikoa.
- Ustelkeria.
- Iruzurra, Europako Erkidegoetako interes finantzarioei eragiten diena barne hartuta, Europako Erkidegoetako interes finantzarioak babesteari buruzko 1995eko uztailaren 26ko Hitzarmenarekin bat etorritz.
- Delituaren emaitzaren zuriketa.
- Moneta faltsifikatzea, euroa faltsifikatzea barne.
- Informatika-delitua.
- Ingurumenaren aurkako delituak, babestutako animalien eta babestutako landare-espezieen eta -barietateen legez kontrako trafikoa barne.
- Legez kanpoko sarrera eta egonaldia laguntzea.
- Borondatezko giza hilketak eta lesio larriak eragiten dituen erasoak.
- Giza organoen eta ehunen legez kontrako trafikoa.
- Bahiketa, legez kontrako atxiloketa eta bahituak hartzea.
- Arrazakeria eta xenofobia.
- Antolatutako lapurretak edo armak erabiliz egindakoak.
- Kultur ondasunen legez kontrako trafikoa, antzinako gauzen eta artelanena barne.
- Maula.
- Xantaia eta funts-estortsioa.
- Jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzea eta salgaiak faltsutzea.
- Administrazio-dokumentuak faltsutzea eta dokumentu faltsuen trafikoa.
- Ordainbideak faltsutzea.
- Substantzia hormonalen eta bestelako hazkuntza-faktoreen legez kontrako trafikoa.
- Material nuklearren edo erradiaktiboaren legez kontrako trafikoa.

- Lapurtutako ibilgailuen trafikoa.
- Bortxaketa.
- Nahita egindako sutea.
- Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikzioan jasotako delituak.
- Aireontzien eta ontzien bahiketa.
- Sabotajea.

3. Baldin eta 1. puntuan adierazitako arau-haustea edo arau-haustek 2. puntuan jasota ez badaude, edota epaia eta ziurtagiria tipifikazio bikoitza egiaztatuko duela adierazi duen estatu kideari helarazten bazaizkio (Esparru Erabakiaren 7. artikulua 4. paragrafoa), azaldu zehatz-mehatz arau-haustea edo arau-haustek:

.....  
.....  
.....

i) Kondena-epaiari buruzko informazioa:

1. Adierazi epaia auzi-ihesean eman den:

- Ez.
- Bai. Zera baieztatu da:
  - Kondenatuari zuzenean edo estatu emaileko legeriarekin bat etorritik eskuduna den ordezkari baten bitartez auzi-ihesean epaia ematea ekarri duen prozeduraren ordua eta tokia jakinarazi zaizkio.
  - Interesdunak ebazpena ez duela aurkaratuko adierazi du.

2. Kondenaren iraupenari buruzko datuak:

- 2.1. Kondenaren iraupen osoa (zenbat egun): .....
- 2.2. Epaia dagokion kondenarekin lotuta askatasunik gabe jada emandako aldi osoa (zenbat egun):  
....., egun honetan (aipatu kalkulu hori noiz egin den; uuu-hh-ee):  
.....
- 2.3. Kondenaren iraupen osotik 2.2 puntuan aipatutakoak ez beste arrazoi batzuegatik kendu beharko diren egunak (adibidez, kondenarekin lotuta jada emandako amnistiak, indultuak, barkaberatasun-neurriak...): ....., egun honetan (aipatu kalkulu hori noiz egin den; uuu-hh-ee): .....

2.4. Estatu emailean kondena amaituko den eguna:

- Ez da egokia, pertsona ez baitago espetxean gaur egun.
- Pertsona espetxean dago gaur egun eta kondena, estatu emaileko legeriarekin bat etorritik, osoki beteko litzateke egun honetan (adierazi eguna: uuuu-hh-ee)<sup>1</sup>: .....

3. Kondena mota:

- Askatasunaz gabetzeko zigorra.
- Askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurria (zehaztu):  
.....

<sup>1</sup> Adierazi epaia osoki beteko zen eguna (aurretik edo baldintzapean askatzeko aukera oro kontuan hartu gabe) pertsona estatu emailean badago.

j) Aurreratutako edo baldintzapeko askatasunarekin lotutako informazioa:

1. Estatu emaileko legeriarekin bat etorriz, kondenatutako pertsonak aurreratutako edo baldintzapeko askatasunerako eskubidea badu, hau bete ondoren:

- Kondenaren erdia.
- Kondenaren bi heren.
- Kondenaren beste zati bat (zehaztu):

2. Estatu emaileko agintaritza eskudunak ondokoak jakinarazteko eskatu du:

- Kondenatuaren aurreratutako edo baldintzapeko askatasunaren gainean aplika daitezkeen estatu betearazleko legeriaren xedapenak.
- Aurreratutako edo baldintzapeko askatasunaren aldiaren hasiera eta amaiera.

k) Kondenatuaren iritzia:

1. Adierazi inputatua agertu zen ebazpena eragin duen epaiketan:

1.  Bai, inputatua ebazpena eragin duen epaiketan agertu zen.
2.  Ez, inputatua ez zen agertu ebazpena eragin duen epaiketan.
3. 2. aukera adierazi baduzu, baieztatu hauetako gertaeretako bat izan den:

- 3.1a. Inputatua zuzenean deitu zuten ... (urtea/hila/eguna)(e)an eta ebazpena eragin duen epaiketa egiteko aurreikusitako tokia eta eguna jakinarazi zizkieten; halaber, epaiketan agertu ezean ebazpena eman zezaketela ere azaldu zioten.

Edo

- 3.1b. Inputatua ez zuten zuzenean deitu, baina beste bide batzuetatik horren berri eman zioten; horrela bada, zalantzarik gabe egiaztatu da bazekiela epaiketa egitea aurreikusita zegoela, eta horretarako aurreikusitako egunaren eta tokiaren informazio ofiziala zuela; horrez gain, epaiketan agertu ezean ebazpena eman zezaketela ere azaldu zioten.

Edo

- 3.2. Epaiketa egitea aurreikusita zegoela jakinda, inputatuak abokatu bati, hark berak edo estatuak izendatutako bati, epaiketan defenda zezan agindu zion, eta aipatutako abokatu horrek, hain zuzen ere, defendatu zuen epaiketan.

Edo

- 3.3. Inputatuari ebazpena ... (urtea/hila/eguna)(e)an jakinarazi zioten eta berriaz azaldu zioten epaiketa berri baterako edo errekurtsioa jartzeko eskubidea zuela, bai eta horretan agertzeko eskubidea izango zuela ere, eta epaiketan, halaber, aurkeztutako argudioak edo izan zitezkeen frogabide berriak ere berriro aztertuko zituztela adierazi zioten, eta epaiketak hasieran emandakoaren aurkako ebazpena ekar zezakeela.

- Inputatuak berriaz adierazi zuen ebazpen hori ez zuela aurkaratu behar.

Edo

- Ez zuen epaiketa berririk eskatu, ezta errekurtsorik ezarritako epean jarri ere.

4. 3.1b, 3.2 edo 3.3 puntuen aukera hartuz gero, azal ezazue, mesedez, beharrezko baldintza nola bete zen:

.....  
.....



2. Pertsona estatu emailean dago; gainera:

- a)  Epaia eta ziurtagiria helarazteko eskatu du.
- Epaia eta ziurtagiria helarazteko adostasuna eman du.
- Epaia eta ziurtagiria helarazteko adostasunik ez du eman (adierazi kondenatuak aipatutako arrazoiak):

.....  
.....

- b)  Kondenatuaren iritzia erantsi da.
- Kondenatuaren iritzia helarazi zaio jada estatu betearazleari egun honetan (uuuu-hh-ee):

.....

l) Gaiarekin lotutako bestelako zirkunstantziak (aukerazko informazioa):

.....  
.....

m) Azken informazioa:

Epaiaren (edo epaien) testua ziurtagiriari erantsi zaio<sup>1</sup>.

Ziurtagiria eman duen agintaritzaren eta/edo haren ordezkariaren sinadura; horren bidez edukia zehatza dela ziurtatzen du.

.....

Abizenak eta izena: .....

Eginkizuna (kargua eta maila): .....

Data: .....

Zigilu ofiziala (horrelakorik badago): .....

<sup>1</sup> Betearazi beharreko kondena irmoari buruzko informazio osoa edukitzeko gaiari dagokionez beharrezko diren epai guztiak erantsi beharko ditu agintaritzaren emaileak. Horrez gain, epaiaren edo epaien edozein itzulpen ere erantsi daiteke.

### III. ERANSKINA

#### ASKATASUNAZ GABETZEKO ZIGORRAK EDO BESTE NEURRI BATZUK EZARTZEN DITUEN EBAZPENA EUOPAR BATASUNeko BESTE ESTATU KIDE BATI HELARAZI ZAIOLA KONDENATUARI JAKINARAZTEKO ZIURTAGIRIA

Honen bitartez .....(estatu emaileko agintaritza eskuduna)(r)en epaia, ..... (epaiaren data) egunekoa, ..... (erreferentzia-zenbakia, halakorik badago) duena, .....(estatu betearazlea)(r)i helarazteko .....(estatu emaileko agintaritza eskuduna)(r)en ebazpena jakinarazten dizugu, jakin dezazun eta dagokion kondena Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko 2008/909/JAI Esparru Erabakia, askatasunaz gabetzeko zigorrak edo bestelako neurriak ezartzen dituzten zigor-arloko ebazpenak, Europar Batasunean betearazteko, elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa, aplikatzeko legeria nazionalarekin bat etorritz betearazteko.

Kondenaren betearazpena ..... (estatu betearazlea)(r)en zuzenbidearen arabera gauzatuko da. Estatu betearazleko agintariak eskudunak izango dira betearazteko prozedura eta lotutako neurri guztiak zehazteko, aurreratutako edo baldintzapeko askatasuna emateko arrazoiak barne.

.....(estatu betearazlea)ko agintaritza eskudunak bete beharreko askatasunaz gabetzeko aldi osotik kendu beharko du kondenarekin lotuta jada betetako askatasunik gabeko aldi oro. .... (estatu betearazlea)ko agintaritza eskudunak kondena egokitu ahal izango du, baina haren iraupenari edo izaerari dagokionez estatu horretako zuzenbidearekin bateraezina denean bakarrik. Egokitutako kondenak ez du .....(estatu emailea)(a)n ezarritako kondena larriagotuko, ez izaerari ezta iraupenari dagokionez ere.

## IV. ERANSKINA

### ZAINZAPEKO ASKATASUNAREN EPAIAK ETA EBAZPENAK EUROPAR BATASUNEKO BESTE ESTATU KIDE BATEAN BETEARAZTEKO ZIURTAGIRIA

Kontseiluaren 2008/947/JAI Esparru Erabakiaren, 2008ko azaroaren 27koaren, zaintzapeko askatasunaren epaiak eta ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa, zaintzapeko askatasunaren neurriak eta ordezeko zigorrak zaintzeko xedez, aplikatzeari buruzkoaren, 6. artikuluan jasotakoa <sup>1</sup>

a) Estatu emailea:  
Estatu betearazlea:

b) Etendako zigor bat, baldintzapeko kondena bat edo ordezeko zigor bat ezartzen duen epaia eman zuen organo judiziala.

Izen ofiziala:

Adierazi zer pertsonarengana jo beharra dagoen epaiari buruzko informazio osagarria eskuratzeko:

- Aurretik aipatutako organo judiziala.
- Agintaritza zentrala, lauki hau markatuz gero, adierazi agintaritza zentral horren izen ofiziala:
- Beste agintaritza eskudun bat; lauki hau markatuz gero, adierazi agintaritza horren izen ofiziala, betiere informazio hori ez baduzu eman b) letran.

Organo judizialaren, agintaritza zentralaren edo bestelako agintaritza eskudunaren harremanetarako datuak

Helbidea:

Telefono-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):

Fax-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):

Harremanetarako pertsonaren datuak:

Abizenak:

Izena:

Postua (titulua edo maila):

Telefono-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):

Fax-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):

Helbide elektronikoa (halakorik badu).

Komunikatzeko hizkuntzak:

<sup>1</sup> Ziurtagiria estatu betearazleko hizkuntza ofizialera edo hizkuntza ofizialetako batera idatzi edo itzuliko da, edo estatu horrek onartutako Europar Batasuneko erakundeetako gainerako hizkuntza ofizialetako batera edo batzuetara.

c) Baldintzapeko askatasunaren erabakia eman zuen agintaritza (halakorik badago)  
Izen ofiziala:  
Adierazi zer pertsonarengana jo beharra dagoen baldintzapeko askatasunaren erabakiari buruzko informazio osagarria eskuratzeko:

- Aurretik aipatutako agintaritza.
- Agintaritza zentrala; lauki hau markatuz gero, adierazi agintaritza zentral horren izen ofiziala, betiere informazio hori jada ez baduzu eman b) letran:
- Beste agintaritza eskudun bat, lauki hau markatuz gero, adierazi agintaritza horren izen ofiziala:

Agintaritzaren, agintaritza zentralaren edo beste agintaritza eskudun baten harremanetarako datuak, betiere informazio hori jada ez baduzu eman b) letran.  
Helbidea:  
Telefono-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):  
Fax-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):  
Harremanetarako pertsonaren datuak:  
Abizenak:  
Izena:  
Postua (titulua edo maila):  
Telefono-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):  
Fax-zenbakia (herrialdeko aurrezenbakia) (hiriko aurrezenbakia):  
Helbide elektronikoa (halakorik badu).  
Komunikatzeko hizkuntzak:

d) Baldintzapeko askatasun-neurriak edo ordezko zigorrak zaintzeko agintaritza eskuduna.  
Estatu emailan baldintzapeko askatasun-neurriak edo ordezko zigorrak zaintzeko agintaritza eskuduna:

